


INARDOGILALDIAK  
JORNADAS ENLAKUNDE

**GENEROA, SEXUA,  
HEDABIDEAK. ERREALITATEAK,  
ESTRATEGIAK, UTOPIAK**

**GÉNERO, SEXO, MEDIOS DE  
COMUNICACIÓN. REALIDADES,  
ESTRATEGIAS, UTOPIÁS**

Zuz./Dir. Natividad Abril

Universidad del País Vasco -  
Euskal Herriko Unibertsitatea



**I HARDUNALDIAK**

**GENEROA, SEXUA,  
HEDABIDEAK. ERREALITATEAK,  
ESTRATEGIAK, UTOPIAK**

Natividad Abril-ek zuzendua

Kazetaritza Saila. UPV-EHU

**EMAKUNDE**

Emakumearen Euskal Erakundea

Gasteiz 2004

IZENBURUA: "Generoa, Sexua, Hedabideak, Errealitateak, Estrategiak, Utopiak"  
IHARDUNALDIAREN ZUZENDARIA: Natividad Abril  
EGILEA: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz  
KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA: Arrin. Komunikazioa eta Diseinua  
DATA: Maiatza 2004  
ALE-KOPURUA: 1.000  
DESKRIBATZAILEAK: Hedabideak, internet, emakumearen irudia, simposioak  
IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia  
FOTOMEKANIKA: Esda, S.L.  
INPRIMAKETA: Gráficas Marcal, S.A.  
ISBN: 84-87595-95-2  
LEGE GORDAILUA: BI-891-04

**Salneurria: 12 euro**

## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>0 SARRERA</b>	
Natividad Abril. UPV-EHU .....	9
<b>1 INFORMAZIO GOGORRA ETA BIGUNA: ALDAKETAK ALBISTEAREN TIPIFIKAZIOAN</b>	
Concha Fagoaga. Madrilgo Unibertsitate Complutensea .....	17
<b>2 EMAKUMEAREN GUTXIESPEN SOZIALA ETA KULTURALA MASA-KOMUNIKABIDEETAN</b>	
Blanca Muñoz. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea .....	25
<b>3 GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO HARREMANEN ALDAKETAREN ETA BELAUNALDIARTEKO ERRELEBOAREN IRUDIKAPENA PRENTSAN. AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK</b>	
Amparo Moreno Sardá. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa .....	41
<b>4 IKT-AK (INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK), GIZARTE-ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ESKU-HARTZE ESPAZIO BERRI BAT. EMAKUMEEK INTERNET OKUPATZEN DUTE</b>	
Montserrat Boix. Kazetaria - TVE. Mujeres en Red-eko koordinatzailea .....	53
<b>5 1. MAHAI-INGURUA: GENERO HARREMANAK HEDABIDEETAN: BARNETIKO BEGIRADA BAT</b>	
— Mertxe Aizpurua. Garako zuzendaria .....	71
— Julio Ibarra. ETB2ko Teleberriaren zuzendaria .....	73
— Nerea Azurmendi. Zabalik-eko zuzendaria .....	75
— Julio Flor. Canal Bizkaia-ko erreportaje- eta elkarrizketa-programen zuzendaria .....	79
— Montserrat Lluís. El Correoko erredaktorea .....	84
<b>6 2. MAHAI-INGURUA: HAUTAZKO HEDABIDEAK: BA AL DIRA GENERO HARREMANEN ARAKETAN ERE?</b>	
— Andra-ren Erredakzio Kontseilua .....	91
— Helena Bengoetxea. Eguzki Irratia .....	94
— Indymedia Euskal Herria .....	97
— Ruth Balboa Mayordomo. Halabedi irrati libreko “Sasi guztien gainetik” programaren partaidea .....	101

## AURKEZPENA

G

izarteko balore eta sinesmen nagusiek osatzen dute geure jokabidearen (banakakoa nahiz taldekakoa) oinarritzko euskarria. Era berean, eredu eta jokabide berriak sortzen

ari dira, baita horien aldeko eta aurkako iritziak ere; ondorioz, balore nagusiak ere aldatzen ari dira.


Aldaketa prozesu horren baitan komunikabideek eragin handia dute, eta nazioarte mailan adostasun handia dago ideia horri dagokionez. Beraz, eragin horri buruzko erreferentzia ugari daude genero harremani eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz hitz egitean. Zalantzarik gabe, eragin hori handiagoa izango da kultura eta hezkuntza maila handia izateaz gain, etengabeko informazioa eskuratzeko aukera duten gizarteetan. Gizarte horiek mota askotariko euskarri informatikoak lor ditzakete, eta, gainera, berehala. Sortzen ari den ezaugarri horren ondorioz informazioaren gizartearen kontzeptua sortu da, eta, gazteengan du eraginik handiena. Talde horiek dira, hain zuzen, etorkizuneko balore eta jokabide nagusiak ezarriko dituztenak.

Beijingeko Ekintza Plataforma Emakumeen IV. Mundu Konferentzian adostutako dokumentua da (NBE 1995), eta helburu hau proposatzen du: "komunikabideetan agertzen diren emakumearen irudi negatiboak eta iraingarriak deuseztatzea, emakumeen bizimoduei buruzko ikuspegi orekatua eskaintzeko, baita emakumeek munduari emandako ekarpenei buruzko ikuspegi orekatua ere". NBEren Asanblada Orokorren Bilera Berezia zela-eta, jarraipen txosten bat egin zuten: txosten horretan agerian geratzen dira gai horretan lortutako aurrerapen garrantzitsuak. Halere, oraindik ere badaude hainbat oztopo emakumearen irudi negatiboak eta iraingarriei dagokionez, pornografia barne, baita estereotipatutako irudikapenei dagokionez ere.

Gure Erkidegoan, orain arte, emakumeen aldeko ekintza positiboko hiru plan onartu ditu Eusko Jaurlaritzako Batzordeak. Plan horien garapena administrazioaren esku geratu da, hiru mailatan: autonomikoan, foru administrazioan eta tokiko administrazioan. Plan horien arabera, komunikabideak gizarteratze sistemarik ahaltsuenak dira, familiarekin eta hezkuntzarekin batera. Beraz, komunikabideek ere funtsezko egitekoa dute gizartearen mentalitatea aldatzen laguntzeko; horretarako, informazio ildoak aldatu egin beharko lituzkete eta bestelako gizarte baten irudia eskaini, emakumearen bizitzan gertatutako aldaketa sakonak islatuko dituen gizarte irudia, hain zuzen. Zentzu horretan, geure komunikabideetan ere aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, eta emakumeek gizarterari egindako ekarpenak argiago agertzen dira. Halere, lan asko egin behar da oraindik gure kulturaren ikuspegi androzentrikoa aldatzeko. Izan ere, kulturak, oraindik ere, emakumeak eremu pribatuetan kokatzen ditu gehienetan, eta eremu publikoetan daudenean, berriz, emakume horien familiarekiko aipamenak etengabekoak dira, baita horien edertasunarekiko eta jantziarekiko aipamenak ere. Gizonak prozesu politikoan, sozialen eta ekonomikoan protagonista bakarrak izango balira bezala agertzen dira. Izan ere, arlo ekonomikoan ez dago ia emakumerik.

Euskadiko emakumeentzako Ekintza Positiboko III. planak botere publikoan baitan lan egiteko beharra azpimarratzen du, komunikabideetan lanean diharduten profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko. Ekintza zehatzak ere proposatzen ditu, emakumeek eta gizonek gizarte komunikabideen erantzukizun maila guztietan parte hartzeko aukera berbera izan dezaten. Neurri horiek guztiak beharrezkoak dira ohitura profesionalak aldatu ahal izateko, estereotipo sexistak komunikabideetatik desagerrarazteko, bai informaziotik, entretenimendutik edo publizitatetik.

Esparru horren baitan, "Generoa, Sexua eta Komunikabideak" izeneko konferentziak egitea erabaki dugu. Konferentzia horien bidez, hausnarketa komunikabideetako egungo profesionalen eta biztanleen esku utzi nahi dugu, eta, bereziki, ikasleen esku; izan ere, horiek izango dira etorkizuneko informazioaren eta ekintzen protagonistak.

A handwritten signature in black ink, reading "Txaro Arteaga". The signature is enclosed within a large, loopy oval shape that extends downwards into a long, wavy tail.

TXARO ARTEAGA ANSA  
EMAKUNDE / Emakumearen  
Euskal Erakundeko zuzendaria

**SARRERA**

NATIVIDAD ABRIL  
UPV-EHU



Irakaskuntzan lan egiten dugunok ongi ezagutzen ditugu gai edo errealitate jakin batzuk geletan mahaigaineratu eta aurkeztean zenbaitetan sortzen diren arazoak. Gai horiek ikasleen begirada eta arreta erakar dezaten asmatu eta azpilanean prestatu behar ditugun amarru guztiak. "Errealitate deseroso" horietako bat, izaten dituen erantzun desberdinengatik, Feminismoarena da. Hain zuzen ere, feminismo hitzak, auskalo zergatik, hasieran nolabaiteko gaitzespena eta higuina sortzen du ikasleen artean. Esaterako, kazetaritzako lengoaiaren alderdi sexistak berrikustea proposatzen denean, beti dago harritu egiten den norbait. Emakumezko ikasle batek, proposamenengatik haserre, honela zioen: "Zentzurik al du orain lengoiaia sexista den edo ez ikertzea, neskoie ere arduratzen ez gaituen gaia denean? Zergatik sentitu behar gara diskriminaturik "alumnos" esaten digutenean, betidanik horrela izan bada eta ohituta bagaude? Horiek aspaldiko kontuak dira, matxismoaren eta feminismoarenak, baina orain berdintasuna interesatzen zaigu". Gizateriaren etorkizunerako zorionez, emakumezko ikasle guztiek ez dute horrela pentsatzen, ez eta gizonezkoek ere.

Berdintasuna. Gako-hitza. Komodin ideologiko aproposa. Ikasleek feminismoaren aurrean erakusten duten zenbait portaera interpretatzeko ezinbesteko laguntza da. Izan ere, belaunaldi berriek "berdintasunaren" mezua inolako prebentzio ideologikorik gabe onartzen dute, eta, horregatik, benetan bitxia da ideologia feministak sinbolizatzen duena hain gogor arbuizatzea, teoriarik biek helburu berberak dituztelako. Zentzuduna den inork gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa zalantzan jarriko ez duen arren, oso gutxik aztertu dute bazter guztietara hedatu den kontzeptu hori, haren anbiguotasuna, postulatuaren eta praktikaren artean dagoen aldea, gizarte-arloan zein arlo pribatuan. Horren ondorioz, berdintasunari buruz hitz egiteak "garai berrietara" moldatzea esan nahi duen bitartean, feminismoari buruz hitz egitea ustez iraganean ainguratzea da. Nagusi den pentsamoldeak berdintasunaren ideia "politikoki zuzena" denarekin lotzen du, alegia, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen aurrean jarrera baikorra, aurrerakoia eta elkarrizketarako irekia izatearekin. Feminismoa, aldiz, txanponaren beste aurkia izango litzateke: salaketa, borroka, arazo oinarriaren azalpen garbia; eta hori batzuei ez zaie gustatzen, errealitatea aztertu ostean emandako diagnostikoa ez delako atsegina izaten. Baina gauzak ez dira horrela. Berdintasunaren ideia eta kontzeptua ideologia feministarekin loturiko zerbait bezala garatu eta zabaldu beharko litzateke, ideologia horretatik sortu baitzen; eta ez feminismoaren ordezkari bat bihurtu, sexuen arteko desberdintasunen ikuspegi moderno eta "zibilizatu" baten modura. Horrek, izan ere, feminismoa ostrazismora kondenatzen du, gizonen eta emakumeen arteko borrokaren gezurrezko irudikapen hutsal eta interesatua egiten delako.

Baina, noski, feminismoa ez da une historiko jakin batean gertaturiko "esperimentu soziologikoa", hori baino askoz gehiago baizik; hain zuzen ere, feminismoa ez da atzoko gauza bat, 70eko hamarkadan sortutako zerbait, pertsona askok uste duten bezala. Historian zehar betidanik egon dira nortasun feministak, sexu-diskriminazioaz jabetzen ziren emakumeak, sorkuntza artistikoen bidez –poesia, pintura, gutunak...- beren inkonformismoa islatu zutenak. Hala ere, "feminismo modernoaren" edo sexu-berdintasuna exijitzen duten emakumeen talde-mugimenduaren iturburuak Ilustrazioan eta Frantziako Iraultzan daude. Azken 40 urteetan, eta 1973. urtean Estatu Batuetan "Women's Studies Program" delakoak abiarazi zituztenetik, mundu osoko unibertsitateetan emakumezko ikerlari askok –eta gizonezko batzuek ere bai- ikuspuntu feminista edo, egun esaten zaion moduan, "genero-ikuspuntua", beren lanean sartu dute. Egiaz, ikerketa feministek zailantzan jarri dituzte diziplina guztiak, eta ezagutzan haustura epistemologikoa eragin dute.

Baina erdiespen horiek ere ez dira ikasgeletan gehiegi ezagutzen. Informazio-faltak eta gizartean hedaturik dauden aurreiritziek sekulako eragina dute ikasleek gure eztabaidagaia, hau da, "informazio-errealitatea" sortzerakoan kazetari gisa zein gaurkotasunaren kontakizunaren protagonista gisa gizonek eta emakumeek duten partaidetza desberdina ikertzeko eta interpretatzeko duten ja-

rrean. Dirudienez, jendeak uste du berdintasuna hitzari darion justizia-kutsua dela eta arazo guztiak haiei aurre egin beharrik gabe bakarrik konponduko direla.

## **GENEROZKO INFORMAZIO-POLITIKAK**



labaina, emakumeek eta gizonek albisteetan duten protagonismoari buruzko azkeneko azterketen emaitzak ez dira inola ere itxaropentsuak. Funtsean, 70 eta 80ko hamarkade-

tako ikerketek estatuan, nazioartean eta Euskal Herrian bertan jasotako emaitzen berdinak dira (1). Duela gutxiako analisiek adierazten dutenez, adibidez, albisteetan aipatutako izen berezien %15 bakarrik dira emakumeenak, eta gainerako %85 gizonenak. Politika, ekonomia eta kirolak –informazio-politika gailenen oinarriak– dira gehien errepikatzen diren jarduerak, gizon zein emakumeei dagokienean. Emakumeen kasuan artisten aipamenak ere egiten dira, eta sarritan lanbideak ere ez dira aipatzen.

Albisteek gizon eta emakumeak irudikatzeko duten moduari dagokionez, emakumeen aipamenean %15ean haien estatus bikarioa azpimarratzen da, haiek emazte, ama edo alaba gisa erakutsiz. Gizonen kasuan, aldiz, aipamenean %0,5 bakarrik dago estatus horrekin lotuta. Horrez gain, emakumeak sarritan biktima gisa azaltzen dira, eta gizonak gaitzesgarria den zerbait egin duten pertsonak bezala. Genero-erolek aipatutako egoera horrekin zerikusirik izango al dute? Eragina izango al du egunkarietako erredakzioetan berdintasuna oraindik helburua izateak, eta enpresa- eta lanbide-eliteen kasuan ameskeria hutsa izateak? Izan ere, kontuan hartu behar da kasu baikorrenetan erredakzioetako emakumezkoen kopurua batez beste %37 ingurukoa dela, eta erantzukizuneko lanpostuetan daudenena %7tik beherakoa. Ezin dugu erabat ziurtatu kazetaritza-jardueran eta erabaki-eremuetan emakumeen kopuruen handitze hipotetikoak, alegia, emakumeak gehiago izate hutsak, aldaketa ideologikoa ekarriko duela informazio-politiketara. Haatik, komunikazio-enpresetan emakumezko langileak gizonzkoen mailan egotea eskatzea justizia eta lan-zuzenbidezko gertakari hutsa da. Geroago, denborak esango digu behin laneko diskriminazioa gaindituz gero diskriminazio ideologikoa gainditzen dugun edo berdin jarraitzen dugun.

Segur aski, gauza asko esan daitezke hedabideen alde. Adibidez, esan daiteke ez direla egoera honen erantzule bakarrak; une historikoaren produktu edo ondorio gisa, eredu kultural gailenak jarraitzen dituztela. Baina ikuspegi idiliko eta alde bateko hori onartuko bagenu, hedabideen botere alderdi onetsiena ahaztuko genuke: hedabideek errealitateak aldatzeko ahalmena dute, gizartean ohitura, balore, ideia, errito eta sinbolo berriak sartzen dituztelako. Eta genero-harremanei dagokienez, bereziki azken hogeita hamar urteotan emakumeen bizitzan gertatu diren aldaketa nabarmen eta garrantzitsuenei dagokienez, hedabideek ez dute hori guztia islatu, interesagatik itsu jarraitu dute.

Alor horretan kazetarien lanak duen arazo handienetariko bat zera da, generoaren ikuspuntua barne hartzen duen informazio-politikarik ez dagoela. Erredakzioetan oraindik "emakumeen

(1) Gallagher, Margaret: *El modo de presentar a la mujer en los medios de comunicación social y su participación en ellos*. ONU, 1979; Fagoaga, Concha y Secanella, Petra M<sup>a</sup>: *Umbral de presencia de las mujeres en la prensa española*. Emakumearen Institutua, 1984; Abril, Natividad: *Las mujeres en la prensa diaria vasca. Protagonistas, temáticas, tratamiento periodístico*. UPV-EHU, 1994.

gaiez" hitz egiten da, haien egoerarekiko "sentsibilitateaz". Informazio, trebakuntza, gogoeta eta eztabaida pila falta da –fakultateetan, erredakzioetan, zuzendaritzetan-, genero-harremanak bizi-tzaren eta harreman sozialen eremu guztietan, eta, beraz, informazioaren esparru edo atal guztietan ere (politika, gizartea, kultura, kirolak, etab.) ikusgai egiteko.

Emakumeen aurrerapen gero eta handiagoei buruzko informazioa ematerakoan, orain arte emakume baten lanbide-lorpenaren "bitxitasuna" edo "ohizkanpoko izaera" azpimarratu besterik ez da egin, batzuetan tonu paternalista bat erakutsiz. Emakume taxilariak, autobus-gidariak, meatzariak, astronautak, lorazainak, etab. albiste bilakatu dira ordura arte gizonenak bakarrik ziren lurraldeetara heldu direlako. "Informazio-errealitatea" sortzerakoan generoa aintzat hartzen duen ikuspunturik ez dagoenez, zenbait ekimen interesgarri porrot egiten dute ezinbestean. Nahiz eta gai bat zuzen-zuzen tratatu –dela hitzaldi batzuen garapena, edo etxeko indarkeriagatik salaketa bat, etab.-, informazio hori ez da "informazio-joera" bihurtzen. Gertakari isolatua da, eta beste hainbat informazio orokorren artean edo publizitate-mezu sexisten artean urtu eta desagertu egiten da. Kazetaritzan genero-ikuspuntua izateko lan-tresnak aldatu egin behar dira eta ohitura profesional guztiak berrikusi, gaietatik eszenatoki eta protagonistetara.

## ARGITALPENARI BURUZ

Unibertsitateetako geletan pixkanaka Generoaren kontzeptua zabaltzen doa, eta gero eta ikasle gehiago dira, neska zein mutil, gizon eta emakumeen arteko harremanak nola eta zein balio eta sinbologiekkin eratzen diren jakin nahi dutenak, eta hedabideek gai horri dagokionez duten eragina ezagutu nahi dutenak. Hain zuzen ere, 2002ko abenduaren 18an eta 19an Leioako Campusean izandako "*Generoa, Sexua, Hedabideak, Errealitateak, Estrategiak, Utopiak*" Hitzaldi Sortak euskarri teorikoa eman nahi izan zion jakingura horri, eta teoria praktika bihurtzen saiatzerakoan sortzen diren kontraesan eta zailtasunak erakutsi ere bai. Hitzaldiak Emakunderen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatearen, UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko Ikerketa Errektoreordetzako Kazetaritza Sailaren laguntzarekin antolatu ziren, eta mota askotako jende ugari bertaratu zen, gogoz parte hartu zuelarik.

Hitzaldi Sortak hiru helburu nagusi izan zituen:

- Egungo errealitatearen diagnostikoa egitea, hedabideetako (prentsa, irratia, telebista, internet) diskurtsoari eta jarduera profesionalari dagokionez.
- Ikerketaren eta hedabideetako jarduera profesionalaren arteko elkarriketa sortzea: teoria eta praktika elkarrengana hurbiltzea.
- Estrategia berriak, informazio-ikuspegi berriak proposatzea, gizon eta emakumeen arteko harremanak justuagoak izan daitezen informazio-diskurtsoa aldatzeko.

Egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa hainbat ikuspuntu (kazetaritza, historia eta soziologia) kontuan izanik egin zen, eta hedabideetan izandako esperientzia profesionala oinarritzat hartuz. Parte-hartzaileen artean gaian adituak diren irakasle nabarmenak zeuden, esate baterako, Concha Fagoaga, Blanca Muñoz, Amparo Moreno eta Montse Boix, bai eta kazetari ospetsuak eta zenbait euskal hedabidetako arduradunak ere, hala nola, Mertxe Aizpurua, Julio Ibarra, Nerea Azurmendi, Julio Flor eta Montserrat Lluís, Andra, Eguzki Irratia, Indymedia Euskal Herria eta Hala Bedi Irratia hedabide alternatiboen ordezkariak gain.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Kazetaritzako katedraduna den Concha Fagoagak beste gauza batzuen artean dio erantzukizuneko lanpostuetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunik ez dagoen bitartean oso zaila izango dela aldaketarik egotea. Bere iritziz, arazorik handiena soziologoek, gizonen mintzaira erabiliz, hesi ukiezin deitzen dietenak dira; hau da, "gizonen konplizitatezko sareak, gregarismoan eta senidetasunean oinarrituriko lotura murriztaile eta baztertzailaz osaturik egotean emakumeentzako iragazgaitzak direnak". Madrilgo Carlos III Unibertsitateko doktore eta irakasle Blanca Muñozen ustez, ezinbestekoa da hedabideek erabiltzen dituzten genero-harremanen berrikuspen historikoa eta praktikoa egitea. Berrikuspen horrek etorkizuneko jarraibideak finkatu behar ditu, "kultura eta komunikazioa gizartea alienatzeko tresnak bilakatu ez daitezten". Bestalde, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Komunikazioaren Historiako katedradun Amparo Morenok bere teoria berresten du, zeinen arabera "diskurtso akademikoaren ordena androzentrikoaren kritikak analisi erredukzionistetan ez erortzeko eta hedabideetan azaltzen diren eredu eta harreman sozialen dibertsitate kontraesankorrari heltzeko irizpide teoriko eta metodologiko zabalak eskaintzen ditu". TVEko kazetari Monserrat Boixek, Mujeres en Red-eko koordinatzailea den neurrian, sareko "espazio alternatibo" delakoetatik lan-eredu abangoardistak erabiliz komunikazio soziala eta bereziki komunikazio feminista sustatzeko egiten ari diren jardueretan parte hartzera animatzen du.

Interes handikoak dira, halaber, *Garako* zuzendari Mertxe Aizpuruak, *Teleberri* (ETB2) albiste-giaren zuzendari Julio Ibarrak, *Zabalikeko* zuzendari Nerea Azurmendik, *Canal Bizkaiako* erreportaje- eta elkarriketa-programen zuzendari Julio Florek eta *El Correoko* erredaktore Montserrat Lluisek aurkeztutako gogoetak eta testuak, bai eta Andra, Eguzki Irratia, *Indymedia Euskal Herria* eta *Hala Bedi Irratia* hedabide alternatiboen kolaborazioak ere.

Hedabideen kasuan, alde batetik, ohiko hedabideetan lan egiten dutenek eremu horretan dauden arazoei eta lortutako gauzei buruz zeukaten iritzia ezagutu nahi zen. Bestetik, iritzi horiek hedabide alternatiboetan lan egiten duten pertsonenekin, kazetariak izan ala ez, alderatu nahi ziren, esperientziak berdinak edo bestelakoak diren ikusteko. Adibidez, hedabide alternatiboen kasuan generoaren problematika onartuta dagoen jakin nahi zen, eta denen artean informazio-alternatibarik biltzen ari diren. Eztabaidak hari komuna izan zezan, ikuspegi orokorra azaltzeko oinarritzko jarraibide batzuk aurkeztu ziren, eta esperientziaren arabera parte-hartzaileei beste gai interesgarri edo garrantzitsu batzuk proposatzeko eskatu zitzaizen.

Hau da ohiko hedabideen lehenengo mahaiari eman zitzaion gidoia:

— "Albiste-balioek" eta "ohitura profesionalek" albisteen hierarkizazioan eta "informazio-errealitatearen" eraketan duten eragina. Ohiturek eta baloreek sexuak informazioaren unibertsoan irudikatzean duten eragina. Konponbide eta alternatiba posibleak.

— Lengoia sexista erabiltzen al dugu hedabideetan? Maskulinoa neutrotzat har al dezakegu? Gai hori erredakzioetan mahaigaineratzea eta eztabaidatzea ongi iruditzen al zaizu? Zure laneko jendeak nola hartzen du jarrera hori –femeninoa aipatzea-? Lengoia sexista erabiltzeak zer-nolako eragina du? Zein neurri zuzentzaile iruditzen zaizkizu egokienak? Nahi izanez gero, prentsako eta telebistako irudien lengoiaz ere hitz egin daiteke.

— Laneko hierarkiak. Zure laneko inguruneari begiratu bat bota –bereziki zuzendaritzako staffari- eta egoera deskribatu. Zuzendaritzan emakume bat egoteak hedabidearen eduki orokorretan eragina izan dezakeela uste al duzu? Izatez, emakumeek "errealitateari" buruzko ikuspuntu desberdina dutela uste al duzu? Zergatik?

— Erantzukizun familiarak. Egun, emakumeek orokorrean etxearekin eta familiarekin konpromiso handiagoa hartzen dute. Horrek nolako eragina duela uste duzu emakumeen lanbide-sustapenean? Zein aldaketa egingo zenituzke familiarren eta lanaren arloan gizonen eta emakumeen artean berdintasun gehiago egoteko?

Hedabide alternatiboek, aldiz, honako jarraibideak eman zitzaizkien:

— Hasteko, ongi egongo litzateke ohiko hedabideen informazio-politikei eta batez ere genero-harremanei emandako trataerari buruzko iritzia ematea. Horrez gain, plantillen eta zuzendaritza-karguen gaia ere jorra daiteke. Adibidez, zuzendaritza-lanpostuetan emakumeak egongo balira hedabideen edukiak berdinak izango liratekeen ala ez.

— Eztabaidaren puntu garrantzitsu bat pertsona bakoitzak lan egiten duen hedabideari buruzko azalpenak dira. Proiektuaren helburuak eta arrazoiak, eta sortzen diren kontraesanak. Interesgarria izango litzateke emakumezkoen espazioak eta hedabideak sortzeko premia eztabaidatzea, eta eguneroko lanean azaltzen diren arazoak aztertzea: Albisteak baloratzeko irizpideak, protagonistak, iturriak, lengoia, etab.

— Beharbada, lanaren eta gizartearen eremua etxearen eta familiaren eremuan dagoen erantzukizun-desberdintasunarekin erlazionatu daiteke. Era berean, eremu pribatuari dagokionez egiten den balorazio eta informazio-tratamendu urria aztertu daiteke.

Hedabideekiko interesak eta haiek genero-harremanen eraketan duten eraginak unibertsitatearen eta kazetaritzaren alorrak gaintitu eta gizarteko eremu asko ukitzen dituzenez, Emakundek asmatu egin du aipatutako Hitzaldi Sortan aurkezturiko txostenak eta komunikazioak argitaratzean.

Azkenik, laguntza teknikoa, profesionala, ekonomikoa eta, batez ere, adiskidetsua eman didaten pertsona eta erakunde guztiei eskerrak eman nahi nizkieke; hitzaldietan zein mahainguruetan parte hartu zuten pertsonen, beren konfiantza eta profesionaltasunagatik; eta bertaratu ziren pertsonen, gehien bat kazetaritzako ikasleak. Argitalpen honek aztertutako problematika argitzen lagunduko digula espero dut, emakumeen eta gizonen aurkako bideen korapilo konplexu eta zaharra pixka bat "lasaitzeko".

# **INFORMAZIO GOGORRA ETA BIGUNA: ALDAKETAK ALBISTEAREN TIPIFIKAZIOAN**

CONCHA FAGOAGA  
Madrilgo Unibertsitate Complutensea

**I**nformazio-baliabideak betidanik gizonen lurraldea izan dira. XIX. mendeko eta XX. mendeko hasierako prentsan, emakumeek postu sinbolikoak zituzten, eta egun masa kritiko gisa esku hartzen dute. Aldaketa horri esker kazetaritza-ekoizpenaren arazo espezi-fikoetan jarri da arreta, haren emaitzetan edo estereotipoak, generozkoak barne, juzka-tzen diren toki gisa errealitatearen irudikapen sinbolikoan jarri beharrean; hain zuzen ere, emaitza horietan audientziek parte hartzen dute.

Mezuak, esaldiak edo testuak teknikoki sortzeko moduaren egiturak eta prozesuak alderdi erabakigarriak dira. Bertan, maila desberdin ugari nahasten dira: hedabideen jabegoa eta haien kontrola; testuinguru soziokulturala, nazioz gaindiko ekintzetatik tokian tokiko ekintzetara; publizitatearen presioa tresna finantzario gisa; hierarkia erredakzioan eta nortasun profetionalean; diskurtsoarako edo errealitatearen tematizaziorako iturriak; informazio-iturriak, sinesgarritasuna eta ikuspen soziala kontuan hartuz; irudikapena eta estereotipoak, narrazio-formak eta publikoaren edo audientzien eraikuntza... Horiek guztiek eragina dute genero-harremanetan. Beraz, ondoko galdera egin dezakegu: Emakume kazetariak masa kritiko gisa ekoizpenean parte hartzen ari badira, zergatik ez dira orokorrean genero-estereotipoak desagertzen, bereziki ustez femeninoa denaren menpeko estatusa indartzen dutenak?

Informazio-jardueraren alor honetan egiten den ekoizpena gizonen zuzendu izan dute gehienbat, eta orain ere horrela gertatzen da. Hala eta guztiz ere, hasieran esan dudan bezala, emakumeak masa kritiko gisa aurrera egiten joan dira (1). Aurrerapen hori lanbide-elkarteen eremu korporatiboan ere islatu da (2); emakume kazetariak beren taldeak sortu dituzte, arazo espezi-fikoei lanbide-elkarteen bidez aurre egiteko (3).

Emakumeen kopurua %30 ingurukoa da prentsan, eta %40 ingurukoa beste hedabide batzuetan (hedabideentzako berri-agentziak edo zerbitzuak, irratia eta telebista). Horri esker, azken urteotan emakumeen presentzia nabarmen areagotu da; testuen eta zutabe pertsonalen egileak dira, kazetariak, analistak, eta, orokorrean, erredakzioetako maila guztietan daude, zuzendaritzan izan ezik: zuzendaritzako postuak gizonen betetzen dituzte oraindik, eta, beraz, maila horretan gutxiengoa izaten jarraitzen dute. Hori aintzat hartu beharrekoa da, ondorio latzak dakartzalako: orokorrean, emakumeek ez dute ekoizpen-baldintzak aldatzeko aukerarik izaten. Horrez gain, emakumeek ezin diete dagokien tokia eman beren izaerarekin loturiko alderdietan oinarrituriko tematizazioei; hau da, emakume gisa ezin dute mundu erreala irudikatu.

(1) Espainian, 1987. urtean emakumeak 108 egunkarietako erredakzioen %18,5 ziren; hau da, 500 emakume inguru eta 2.200 gizon inguru zeuden. 1995. urterako (Fundesco Txostena 1995) ia hamar puntu gehiago irabazi zituzten: 6.000 kazetari ingurutik %28,2 ziren. 1987ko datuak *AEDE*ko txostenetik atera ditut; 1987ko 2. sei hilekoa, "La prensa en España", 75-80 orrialdeak.

(2) Trantsizio demokratikoaren hasieran, Madrilgo Prentsa Elkarteak (APM) 1.500 kide baino gutxiago zituen, eta Espainiako garrantzitsuena zen kide kopuruaren aldetik. Emakumeak kopuru horren %11,5 ziren. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasierarako kopurua bikoiztu egin zen: 2.750 kide baino gehiagotik %22,7. 1993. urtean 3.145 kideen %25,8 ziren. 2002ko irailean, 4.725 kide kazetaritik emakumezkoak %40 ziren. Kasu guztietan, adin-talde nagusia 25 eta 45 urteen artean dago. 25 urtetik beherako emakumezkoen kopurua sinbolikoa zen, gizonen kopurua bezalakoa, eta 45etik gorako emakumezkoen kopurua oso txikia da bi kasuetan. Datu horiek *Lista de Asociados de la APM. 1-4-1976* (dokumentu inprimatua)-etik atera ditut: 15-4-1991 datara arte zeuden kide kopurua, *Periodistas*, 44, 1991; *El País* (1-6-1993)-etik, APMren datuekin. 2002ko datuak, APMrekin izandako telefono bidezko elkarrizketatik.

(3) Gogotsuena Associació de Dones Periodistes de Catalunya da. Autonomia Erkidego honetako Kazetari Eskolan dago sartuta.

Emakume kazetariak albiste-topikoei dagokien tokia, alegia, albisteak sortzeko balio duten toki komunak kritikatu dituzte (4). Izan ere, eraikuntza sinboliko hori kazetaritza-prozeduren edo ekoizpen-ohituren bidezko eguneratze saihestezina da; toki horrek ez ditu gogortzat hartutako albisteak ekoizpen-baldintzak iragazten. Horren ondorioz, biguntzat hartutako albisteak atal marjinalan kokatzen dira; aldiz, lehenengo orrialdean edo albiste gogorrenzat egokitzen hartzen diren tokietan nazioarteko politika edo politika nazionala edota ekonomia jartzen da, baita gero eta toki gehiago hartzen ari den kirol profesionalizatuaren negozioa ere, batez ere futbol-liga profesionalarena.

**E**makume kazetariak albiste bigunen ekoizpenean lan egiten dute batez ere. (5). Hau ezin da esan kausazko erlazioa denik; kontakizunen edukiak aztertzerakoan zera ikus dezakegu: emakumei buruzko aipamen gehienak lehenetsuak ez diren atalaren daude, atentzio emateko lehenengo orrialdean egon beharrean; oso gutxitan irudikatzen dira lehenetsuak atal horietan, albiste gogorak deiturikoak biltzen dituzten tokietan. Ondorioz, emakumezko pertsonaiak desagertu egiten dira lehenetsuak tokietatik, eta kazetariak bere marjinalizatzen dituzten tokietara eramaten dituzte. Emakumezko pertsonaiak toki horietan atalase orokorraren azpitik egoteak ez du esan nahi kazetaritza-informazioaren ekoizleek emakumeak aintzat hartzen ez dituztenik: emakumeen irudikapena urria da, haien jarduerak eta rolak mugaturik daude, eta, beraz, estereotipoa gehiago erabiltzen da. Hori gertatzen da, adibidez, politikan edo negozioetan lanean ari diren emakumeen kasuan, edo giza jardueraren edozein alorretan arrakasta lortu dutenen kasuan. Tematizazio bat eguneratzerakoan mundu errealeko emakumez informatu behar denean, informazio-ekoizleek gizonen mundu errealean informatzeko aintzat hartuko ez lituzketen xehetasunak ematen dituzte askotan. Hau da, Europar Batasuneko gizarte garatu eta konplexuetan egon behar liratekeen genero-harremanekiko desegokiak diren genero-harremanak irudikatzen dituzte. Hedabideen desegokitasun hori atzerapentzat har dezakegu. Estereotipoa hedabideek gorputza nabarmentzeko duten joeran ikus daiteke: informazioak gorputza femeninoa dela azpimarratzen du, zainketak behar dituela, arreta emakumearen jardueran jarri beharrean. Horrez gain, emakumearen mundu afektiboa nabarmentzen da (amatasuna, familia zaintzeko ardurara, albiste-faktoreek mugaturiko informazio-razionalitatearen gainetik). Emakumearen gorputza bihurtzen da gaia, eta, hortaz, albiste bigunen tokian kokatzen da. Beranduago gai honetara itzuliko naiz.

---

(4) Ikus L. Van Zoonen, "One of the girls?", C. Carter et al. (eds.) *News, gender and power*-en, Londres, Routledge, 1998, 35. orrialdea.

(5) Demoscopia Inkesta. "El periodista español, retrato intermitente." *Periodistas*, 39, 1990eko abendua; M. García de Cortázar eta M.A. García de León (2000); E. Neveu (2001); Van Zoonen, o.c., (1998)

Laurogeita hamarrekoko hamarkadaren erdialdera, kazetaritza-informazioaren ekoizpenean egiten den albiste gogorren eta bigunen tipifikazioa berraztertu zen. Zerbitzuei, kontsumoari eta eguneroko bizitzari buruzko informazioari leku gehiago eman zitzaion, horretarako baliabideak jarritz. Zenbait adituk (Van Zoonen 1998; Neveu 2001) joera honetan ezaugarri bat antzeman zuten: prentsaren feminizazioa. Izan ere, Europan eta, orokorrean, mendebaldeko herrialde askotan, emakume kazetariak gai sozial, kultural (arteak eta ikuskizunak adibidez), zerbitzu, joera eta bizitza-estiloen berri ematen dute gehienbat. Hori guztia entretenimendua eskaini nahi duenaren arintasunarekin aurkezten da; ekoizpen-prozesuan informaziotzat hartzen da, eta erredakzioan albiste biguntzat hartzen da, *hard news*-aren kontra; albiste gogorrak, hain zuzen ere, bizitza publikoaren eguneratzearekin talka egiten duen gertakarian jartzen du arreta. Gogorra eta biguna tipifikatzen dituen teknikaren kalitatea ona da bi kazetaritza mota horietarako. Ez dugu kalitate hori zalantzan jartzen; ordea, informazio gogorra ez da eztabaidagarritzat hartzen gertakari gisa, informazio bigunak hainbat interpretazio izan ditzakeen "giza interes" arin bat duen bitartean.

Azken urteotan gero eta toki gehiago ematen ari zaio informazio bigunari, gu aztertzen ari garen zentzuan. Inoiz baino emakume gehiago dago erredakzioetan; informazioaren ekoizpena emakume horiekin lotuta dago eta horrek prentsaren feminizazioa dakarrela dirudi, baina ez da hala. Ildo horretan bi eragozpen daudela esan dezakegu. Batetik, eguneroko prentsa-erredakzioetan gizonak oraindik gehiengo dira, emakume kopurua igotzen ari den arren; ez da, beraz, lan-eremu feminizatua. Bigarrenik, informazio biguna emakumeekin erlazionatzen da edo emakumeekin loturiko gaiak berehala biguntzat hartzen dira, baina ez da inoiz argitzen femeninoa biguntzat hartzen diren pertsonaiak (hala nola, subjektu sexudun maskulinoak edo femeninoak), gauzak (zerbitzuak, produktuak), edota aldaketa bat faboratzen edo sumatzen duten edo egonkortasuna dakarten gertakariak diren. Hain da handia "giza interesa" deiturikoan dagoen nahasketa; bizitza publiko eta pribatuaren arteko tentsioa bezain arina agian. Hortaz, ez gara prentsaren feminizazioa ikusten ari, albisteen tipifikazioaren aldaketa bat baizik. Aldaketa honek generoa sartzen du, hura sexualizatuz. Hori da, hain zuzen ere, generoa hutsean aurkezteko modu bakarra –errealitate sozialean ez da horrela gertatzen, generoak klase sozialean eta talde etnikoetan banatzen baitira-. Horregatik, gorputza diskurtso edo gaiaren iturri bihurtzen da, lehen esan bezala. Gorputza, "gorputz gaixoa", Muñozek aipatu bezala (2001), gida "izpiritualek" edo, hobeto esanda, izpirituaren sektarizazioaren gidak ekarritako anorexiak, liposukzioak eta terapiak, inoiz baino toki gehiago hartzen ari diren albiste bigunak dira. Look-a gurtzen da, azalekoa; Tuñón-ek dioen legez (2001), gorputza "beharrezkoak ez diren harreman mutanteen aroa, pertsonen elkar ezagutzeko interesik ez duteneko aroa"ren erakusgarria da. Kanpoko irudia da garrantzitsuena; adibide bat emateko, publizitate-makinaria komertzialek eta gazteek *top model* bat nahiago dute aktorea bat baino. Muñozek Ziklo honetan aipatu duen bezala, ugalketarekin zerikusia duena (haurdunaldia, amatasuna) ere arinki hartzen da, eta horrek pertsona gauza bihurtzen du.

Hedabideek gizonetzko irakurle unibertsal bat sortzen dute. Irakurle horri interesatzen zaiona ezinbestez beste irakurle guztiei interesatu behar zaie, genero-markarik kontuan izan gabe, alegia, emakumezko zein gizonetzko. Aldiz, emakume irakurle bati interesatzen zaiona ez zaio gizonetzko unibertsalari zertan interesatu. Hori eredu edo paradigma bihurtzen da erredakzioko kide guztientzat, zein gizon zein emakume, eta gogorra/biguna sailkapena eragiten du. Informazio gogorra hasieratik kokatzen da, eta kokapen horretarako giza baliabideak eta baliabide materialak jartzen dira. Informazioaren izaera gogorra zalantzan jartzen duen interpretaziorik ez da egiten. Informazio bigunak, ordea, interpretazioak izan ditzake; beraz, hainbat espazio ezberdinetan jarri daiteke, eta bere kokapena atzeratu egiten da. Esate baterako, agenda-orrialdean, "jendea" atalean, kontrazalean edo igandeko edizioan jarri daiteke; interpretazio kontrajarriak izan ditzake, eta bazuetan, informazio horrek hurrengo ediziora arte itxaron dezakeela erabakitzen da.

Interpretazioek biguntasunarekin jolasten dute: non jarri informazioa, zein ediziotan izango da egokiagoa... eta erredakzioako antolamenduak eta indibidualtasunak zerikusi handia dute horrekin (6). Hau guztia mundu errealeko gertakari batean aplikatu nuen, 1995eko Pekingo Konferentzian. Gertakari hura eta urte bat geroago (7), konferentziaren berri emateko lau korrespontsal berezirekin elkarrizketa izan nuen. Erredakzioak ez zuen kasu batean ere gertakizun haren berri emateko ezer prestatu edo erabakirik hartu. Kasu guztietan, korrespontsalak bere berehalako nagusiekin elkarrizketa pertsonalak izan zituen, Pekinera joatea emankorra izan zitekeela konbentzitzeko. Konferentziak aldaketa soziala sustatzen zuen eta gobernu guztiak eta gizonezko unibertsala barne hartzen zuen, baina "emakumeen gai" gisa tipifikatu zuten, genero-marka erantsiz; horregatik ezin zen nazioarteko albisteen orrialdeetan jarri. Informazio gehiena "gizartea" atalean kokatu zen, alegia, hondakinaren hondakina den atalean, edo igandeko edizioetan. Horrelako beste kasu asko aipa genitzake, aspertu arte.

**O**rain arte, erredakzioaren antolakuntzan antzematen diren zenbait errealitatez aritu naiz, errealitate horiek kazetaritza-narratiba gisa irudikatzen direlako. Estrategiak proposatu ditzakegu, eta utopia onartu. Estrategiei dagokienez, bestelako ekoizpen-moduak daude; alternatiba garrantzitsuena sareko nodoak izan daitezke. Prentsari dagokionez, duela gutxi egindako ikerketa batek (Gallego 2002) finkaturik dauden jokaerak eta ohiturak aldatzeko erredakzioen baliabideetan inbertitzea proposatzen du, audientzia-ikerketetarako baliabide gehiago jartzeaz gain. Erredakzio bakoitzak argitaratzerakoan generoarekin loturiko gaietan aholkuak eman ditzakeen pertsona bat izatea ere proposatzen du, beste gai batzuetarako adituak erabiltzen diren moduan; era berean, berdintasunaren aldeko erakundeen eta bereziki Europako Batzordearen babesa duten ikasmaterialak eskuratzea eta hedatzea proposatzen du (8). Nire aldetik, emakumeak zuzendaritza-postuetan baldintza berdinetan ez dauden bitartean gauzak aldatzea zaila izango dela uste dut. Ildo horretan, zailtasun handiena soziologoek gizonen hizkerarekin "hesi ukiezinak" deitzen dituztenak dira; "emakumeentzako iragazgaitzak diren gizonezkoen konplizitate-sareak, artaldekeriak eta senidetasunak eragindako lotura murriztaileak eta baztertzaitzeak dituztenak". Elkartasun-harremanetan sortutako gizonezkoen artaldekeria horrek –elkartasuna beste norbaiten aurkakoa da, kasu honetan emakumezkoak diren pertsona guztien aurkakoa- "behar den denbora guztia darama", eta arduragabetasuna sortzen du: "ez zara zu jokatzeko ari dena, zure taldea baizik" (Gil Calvo 1997). Arduragabetasun horrek ordena natural eta onartu baten modura irauten du –gizonen izaerari buruzko gogoeta egiten ari diren taldeek egoera hori aldatu dezakete-. Bourdieuk

(6) Etengabeko interpretazio hauci buruz, ikus Gallego (2002); El País-eko ekoizpen-prozesuen artezketa, "Mujeres" igandeko atalari dagokionez.

(7) Elkarrizketak ikerketa zabalago baten barruan egin nituen, *Imágenes sociales de las mujeres* deiturikoan (Madrilgo Erkidegoko ikerketa-txostena 1996). Informatzaileek *El País*, *Expansión* eta desagerturiko *Diario 16* eta *Ya* egunkarietako erredakzioetan lan egiten zuten.

(8) Norvegia, Finlandia, Suedia, Holanda eta Alemaniako telebista-kate publikoekin batera, Europako Batzordeak Screening Gender (2000) koprodukzio didaktikoa finantzatu du. Koprodukzioak generoaren irudikapenean sortzen diren zenbait arazo aztertzen ditu. 2002an, Europako Batzordeak Madrilgo Erkidegoarekin batera "Estereotipoak baztertzeko" proiektu didaktikoa finantzatu zuen.

(1998) iraupen horri "doxaren paradoxa" deitu dio: ezarritako ordena betikotu egiten da eta bizitza-baldintza eramangaitzenak ere onargarri eta naturaltzat hartzen dira.

Gu xedea garelako gogoratu behar dugu, ez baliabidea. Horrek gutako batzuk, zein gizon zein emakume, gure ekintzak gaitzera eramaten gaitu; utopiaren atzetik gabiltza –niretzat utopia bestearen irudimena onartzen duen gure irudimeneko toki bat da-, giza emantzipazioarentzako egokiagoak diren irudikapen-ereduak dituzten hedabideak lortu nahian.

## **AIPAMENAK**

BOURDIEU, P. (1998) *La domination masculine*, Paris, Seuil.

CARTER, C. et al., ed. (1998) *News, gender and power*, Londres, Routledge.

GALLEGO, J.,dir. (2002) *La prensa por dentro*, Bartzelona, Los libros de la frontera.

GARCÍA DE CORTÁZAR, M. eta M.A. GARCÍA DE LEÓN, koord. (2000), *Profesionales del periodismo*, Madril, CIS.

GIL CALVO, E. (1997) *El nuevo sexo débil. Los dilemas del varón postmoderno*, Madril, Temas de hoy.

MUÑOZ, B. (2001) "La televisión y sus efectos: violencia, misoginia y Comunicación" B. Muñoz, koord., *Medios de comunicación, mujeres y cambio cultural-en*, Madril, Madrilgo Erkidegoa

FUNDESCO TXOSTENA (1995) *Comunicación Social 1995. Tendencias*, Madril.

NEVEU, E. (2001) *Sociologie du Journalisme*, Paris, La Découverte.

TUÑÓN, A. (2001) "Estereotipos femeninos y postmodernidad" EE.BB-k, *Mujeres, Hombres y Medios de Comunicación-en*, Valladolid, Argit. Lex Nova / Gaztela eta Leongo Junta.

**EMAKUMEAREN GUTXIESPEN  
SOZIALA ETA KULTURALA  
MASA-KOMUNIKABIDEETAN**

BLANCA MUÑOZ

Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea

## SARRERA

**P**sikologiak gizakiak agresibitateko joera duela ikusi du. Freudek joera hori Metapsikologian kokatu zuen, zibilizazioaren jarraitzearen eta dialektikaren faktore erabakigarri-

tzat hartuz (1). Agresibitatea, pribatua zein soziala, gizartearen ezaugarrietako bat da, eta irrazionaltasuna Historian zehar era ezberdin askotan nagusitu da.

Baina Historia bertan islatu direnen irudia erakusten duen ispilua baino ez da. Arazoa isla hori barraka-ispilu bat balitz bezala interpretatu behar denean sortzen da; ispiluak, hain zuzen ere, bartzuetan bertan islatzen den pertsonaren benetako irudia baino irudi handiagoa edo txikiagoa erakusten du. Horrela, gizonaren historia, gizon biologiko-maskulinoaren historia, protagonistaren papera beharrez konpartsa edo konplizearena izan duten hainbat talde sozialen historiarekin nahastu izan da askotan. Konplizearena, hain zuzen, beren "ni" sakonenean eta beren kontzientziaren eraketan balore nagusiak onartzeagatik.

Emakumeak historia bat izan du; baina belaunaldiz belaunaldi gizonak sortu eta birsortutako historia izan da. Emakumearen historia beraz, emakumeari buruzko aurreiritzien historia izan da. Aurreiritziak, talde-ezagutzaren egitura sinboliko gisa, emakumea "ondasun higigarri"tzat, truke-rako eta lotura ekonomiko eta sozialak sortzeko gaitzat hartzen duten hainbat arau, instituzio eta jokaera sortu ditu. Azken batean, aurreiritzia boterearen eta menperatze sozialaren egituren arrazionalizazio bat besterik ez da.

Beraz, emakumeak kanpotik introiektatu dizkieten bere buruari eta bere errealitateari buruzko ideia estereotipatu multzo batekin borrokatu behar izan du. Tamalgarriena zera da, marjinauak nolabait marjinauzaileak inposatzen dion ikuspuntu hori onartzen amaitzen duela. Gizonak egindako arteak, eta ez bakarrik arteak, baita erlijioek eta mitologiak ere, emakumea irudikatzen duten moduak historian zehar errepikatuko diren aurreiritzi eta estereotipo uholde bat eragingo du. Natura-Kultura kontraposizioak emakumeak Natura eta gizonak Kultura irudikatzen zutelaz azpimarratzen zuten; kontraposizio hori, hain zuzen ere, genero femeninoa elementu biologiko natural hutsaren kategoriara zokoratzen zuten adierazpen askoren iturria izan da. Hasierako sinismen-sistema erlijioso guztien sorrerarekin batera jaioa den aurreiritzi horrek, emakumearen gutxiespena balore sozial nagusien funtsezko osagarri bihurtu duen mundu-ikuskera bat eragin du (2). Aldi berean, egoera horrek emakumeekin loturiko edozereko gorroto bizizko jokaerak sortzen dituzten hainbat jarrera daramatza berekin. Izan ere, emakumearekiko gorroto horrek gizonaren pentsamoldeak Historian zehar izan duen oinarritzko ezaugarrietako bat sorrarazi du: misoginia.

Misoginia gaixotasun historikoa eta emakumeak gizonagan sortzen duen kezka eta beldurraren aurrean gizonak duen defentsa-mekanismoa kontsidera daiteke. Baldintza horietan, emakumea azpiratzeko eta menperatzeko mekanismoek bi dimentsio dituen prozesu bat erakusten dute. Batetik, emakumea goretzi egiten da, "jainkosa eta birjina" lortezina balitz bezala. Eta beste aldetik, emakume menperatua iraindu eta gutxietsi egiten da, eta gizateriaren gaitz handi guztiak leporatzen zaizkio, Pandora, Eva edo Salomeren kasuan bezala. Alabaina, aurreiritzia eta estereotipazioa defentsa-sistemak diren arren, "beharra"ren aitzakiarekin justifikatzen diren erasoak eragiten dituzte.

(1) Ikus Freud, S. *El malestar en la cultura*. Madril, Nueva Visión, 1974. 3017-3068 or., VIII. Liburukia.

(2) Aurreiritziari buruzko ikerketa soziologikoarentzat ikus: Bettelheim, B. y Janowitz, M. *Cambio social y prejuicio*. Madril, F.C.E., 1975. 57. or. eta hurrengoak.

Emakumea "otzandu beharreko piztia" da (3). Emakumearekiko agresibitatea emakumearekin loturiko guztia gaizto eta suntsizaile bihurtzen duen mitologiaren ondorio logikoa da. Beraz, ez da harritzekoa gizarteak emakumearekiko indarkeria onartzea eta derrigorrezkotzat hartzea, "izaki hain kaltegarri eta zital" horien aurrean. Erasoa ezinbesteko bihurtzen da, eta historian zehar emakumearengan eragin handiena izango duen fenomenoetako bat sortzen da: emakumearekiko etsaitasunez eta hondamendiz betetako errealitate baten etengabeko mehatxua. Ezagutzazko misoginiak eta eraso fisikoak emakumearen nahiak eta aukerak menpeko bizitza penagarri batera murriztuko ditu.

### **GENERO-INDARKERIAREN OINARRI HISTORIKOAK: INTERPRETAZIO EZBERDINAK**

**E**

*l origen de la familia, la propiedad privada y el Estado* lanean (4), Engelsek dio patriarkatuaren iturburuak izan zen abeltzaintza-sistema ekonomiko nomadaren garaipenak

matriarkatuaren eta emakumearen porrot historikoa ekarri zuela. Egia esan, Neolitikoan emandako porrot harekin emakumearekiko gorrotoa eta mesprezua islatzen duten oinarri kosmologikoak eta teologikoak sortu ziren, eraso fisikoak eta indarkeria psikikoa ekarriko zituztenak.

Azaleko errepasso bat egiten badugu, emakumearekiko agresibitatea zibilizazio askoren jatorrian kokatzen dela ikusiko dugu. Grezia klasikoko gizartean, garapen intelektuala eta politikoa nabarmena zen arren, emakumeak bigarren mailako papera zuen: Biltzarretan parte hartu eta hitz egin zezakeen, baina ez zuen bozkatzeko eta erabakiak hartzeko eskubiderik; hori Atenaseko gizonen bakarrak egin zezaketen. Hetairak ziren gaitasun intelektualak eta artistikoak zituzten emakume ikasi bakarrak, eta gizonen esanetara zeuden; beraz, gizonen premien arabera bi emakume talde ezberdin zeuden: emaztea ginezeoan, eta hetaira atseginerako eta elkarrizketarako (5).

Erromak erradikalizatu egin zituen emakumearen azpiratzearen alderdiak. Emakumeak, adibidez, zorrak kitatzeko eman zitezkeen. Emakumea izan zen Inperioaren gainbeheran emandako ankerkeriaren biktima nagusia. Harekiko gorrotoaren goieneko aldia Erdi Aroan gertatu zen, Eliza botere hegemonikoa bihurtu zenean. Erdi Aroko hainbat eta hainbat sorgin-erreketa eta autofedee-tan milaka emakume hil ziren, eta horrek emakumea pertsona sufrizazko bihurtzen duen misoginia finkatu zuen. Erdi Aroaren ondoren, emakumearekiko guztiz kontrako aurretiko jarrekin eta iritziek bizirik iraun zuten Europako kulturari; emakumea espeziearen "lehenengo bekatari eta zikintzaile"tzat hartzen zen oraindik.

Berpizkundeak ekarri zituen zientzia, arte eta gogoeta filosofikoarekin balore, sinbolo eta aurreiritzi horiek guztiak betiko desagertuko zirela pentsa genezake. Guztiz kontrako gertatu zen, ordea. Modernitateak, proiektu eraldatzaile handi hark, aurreiritzi gehiago ekarri zituen, eta batez ere, sofistikazio eta fintasun handiagoko indarkeria-modu berriak.

(3) Artearen Historiak eta Literaturak sarritan emakumea pertsonetatik baino animalietatik gertuago zegoen izaki gisa irudikatu dute. Adibidez, Aristofanek emakumeen biltzar bat oilategi baten modura irudikatu zuen.

(4) Engels, F. *El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado*. Madril, Fundamentos, 1978.

(5) Ikus Duby, G. y Perrot, M. *Historia de las Mujeres*. Madril, Taurus, 1994. I. Liburukia: "La Antigüedad".

Max Horkheimerrek eta Theodor W. Adornok azpimarratu zuten bezala, ilustrazioan positibitate eta negatibitatearen arteko dialektika eman zen (6). Argien Mendean ezagutza eta arrazionaltasuna gizakiaren hobekuntzaren ardatz bihurtu ziren, eta pertsona eta lan ospetsuak sortu ziren, hala nola Rousseau, Kant eta Entziklopedia. Ekarpenean baikor horiekin batera, ordea, ezin dugu ahaztu emakumearekiko gorroto sutua ekarri zuen idazlea: Donatien-Alphonse-François, Sadeko markesa.

Hain zuzen ere, sadismoa, hau da, emakumeari egindako eraso anker eta gaiztoan oinarrituriko plazera, idazle horren hiru lanek sortu zuten: *Justine ou les malheurs de la vertu*, *L'histoire de Juliette* eta *La philosophie dans le boudoir*. Saderekin, emakumeen aurkako indarkeria konplexuagoa bihurtu zen: idazleak borrarero bat eta biktima bat partaide dituen hedonismo baten zenbait elementu intelektual sortu zituen. Indarkeriaren intelektualizazio hori pornografiaren merkaturazko zuzen sexualitate baten jatorria izan zen; gure mendean, hain zuzen ere, pornografia oinazea plazeraren gailurtzat hartzen duen zinea eta teknologizazioa bihurtu da (7). Iluminismoaren dialektika horretan, negatibitatea zuzenean eta dramatikoki emakumearen rolean eroriko da, birjinen eta emagaldueen irudien fluktuazio dekadentearen itzulerarekin. XX. mendeak irudi horiek jasoko ditu, haiek hobetuz eta gizarteko sektore gutxiak zabalduz.

Sufragismoa XIX. mendeko gizarte-mugimendu handienetako bat izan zen. Langile-mugimenduak, nazionalismoak eta sufragismoak populazioaren zati handi bat baztertzeko ordena soziopolitikoak hautsi zuten. Jabegoan eta sufragio zentsitarioan oinarrituriko ekoizpen-sistemak zokoraturiko talde sozialak altxatu egin ziren. Altxatzeak hainbat defentsa-erreakzio sortu zituen, eta defentsaren tresna eta estrategiek errepresioa jo zuten, hura gero eta gehiago erabiliz. Langile-mugimendua onartu egin zuten azkenean, eta eskubide politikoak lortu zituen. Tokian tokiko burgesia hasi berrien nazionalismoak, aldiz, industrializazioko lehenengo kapital-pilatzean parte hartzea lortu zuten. Sufragismoa izan zen, beraz, lehenengo gizarte industrialari etekinik atera ez zion bakarra.

Sufragismoa ikara elementu nagusia zuten estrategien bidez zigortu zen. Pixkanaka bereganatzen ari ziren espazio publikoetatik emakumeak baztertzeko taktiketako bat Jack Errai-ateratzailearen irudi ikaragarriarena da. Hiltzailearen nortasunaren misterioak kasua Estatu-auzi bihurtu zuen. Bere krimenen biktimak gauean nora ezean zebiltzan emakumeak ziren, gizarteak adibide txartat hartzen zituenak. Saderen kasuan bezala, lehenengo Masa-kulturan emakume-hiltzailearen irudia "nobela beltzaren" eta suspentse-folletoiaren oinarritzko pertsonaia bihurtu zen. Emakumearen aurkako krimena, izan ere, kontsumo-irudien oinarrietako bat da. Baina irudikapen horren alderdi beldurgarriena zera da: krimenok literatura gañditu eta gizartean errepikatu zirela.

Beraz, Saderen lanek indarkeria fina ekarri zuten; aldiz, hiltzaile anonimo baten hilketak, Jack Errai-ateratzailearen kasu, prentsan hedatzerakoan, emakumea kontrolatzeko modu berriak sortu ziren. Bestalde, Sacher-Masochen ikonografia ere ezin dugu ahaztu: bere ikonografiarekin, iraina gizon eta emakumearen arteko harremanaren funtsezko elementu bihurtzen duen emakume-eredu bat sustatu zuen. *La venus de las pieles* nobelan, masokismoak sufrimenduaren bidez boterea sentitzeko beharra erakusten du. Agresibitateak irrikak asetzeko biktima bat bilatzen du, eta harekin errukirik gabe jokatzeko da. Freuden iritziz, sadismoa eta masokismoa "nia" egituratzeko gaita-

(6) Horkheimer, M. y Adorno, Th.W. *Dialéctica del Iluminismo*. Buenos Aires, Sur, 1971, 102-146. or.

(7) Saderen lanaren eragina askotan antzeman daiteke literatura postmoderno berrian; literatura horrek, izan ere, ez du inolako arrazionaltasunik ez etikarik erakusten. Saderi buruzko azterketarik onena isilean gordetako Simone de Beauvoirren liburua da. *El marqués de Sade*. Buenos Aires, Siglo Veinte, 1964.

sunik ez duten eta antolamendu falta hori "beste"rekiko indarkeriaren bidez orekatu nahi duten pertsonetan ematen da (8). Zoritxarrez, "beste" hori emakumea izan ohi da gehienetan.

Jokaera sadomasokistaren eredu mugimendu sufragistaren hasierarekin batera sortu zen. *Ekintzaren eta erreakzioaren* dialektika, izan ere, gizartean aldaketarik txikiena gertatzen denean ematen da. Sufragismoa emakumea bere egoeraz jabetzen deneko lehenengo ekinaldia dela esan dezakegu. Azken batean, sufragio unibertsalaren eskaerarekin, emakumea-natura sinboloa emakumea-hiritarra sinboloa bihurtu zen. Eskubide eta erantzukizun osoko hiritarra. Sufragismoak, emakumeen arteko kohesioaren jaiotzarekin, aro berri bati eman zion hasiera. Gizarteak, hala ere, gogor aurre egin zien emakumeen lorpen berriei: lortutako eskubideak sinbolikoki ahultzeko teknikak sortu ziren. Taktika iraintzaile asko garatu ziren, haien artean prentsa satirikoa, buruzagi sufragisten karikatuzazioa eta zurrumurru gaizki-esaleak. Orokorrean, estrategia guztiek emakumea etengabe estereotipatzen zuten. Ahultze sinbolikoa, beraz, Masak konbentzitzeko teknika bihurtu zen; talde, gizabanako, fenomeno edo gai bat gutxiesteko eta hari izena kentzeko teknika. Adibidez, egungo telebistako programa askok eta askok emakumearen irudikapenari dagokionez ahultze sinbolikoa erabiltzen dute. Publizitatea da industrializazioaren ondoren gertaturiko emakumearen aipu-galtzearen hedatzearekin zerikusi handiena duen mekanismo mass-mediatikoa.

Beraz, lehenengo Masa-Komunikabideak balore eta sinbolo nagusien aurka doan guztiarekiko agresibitatea eta gutxiestea areagotzen duten esanahi ideologikoz beterik daude. Eta, batez ere, Masa-Komunikabideak bilakatuko diren merkatu itzel horretan, emakumea merkatu-harremantara egokitu behar duen gizarte baten sinbolo bihurtuko da. Horren ondorioz, fetitxizazioa, sadismoa eta masokismoa egunero eta nonahi ikusiko dira gizartean.

### **GIZARTEAREN ERAKETA ETA MASA-KOMUNIKABIDEAK: INDARKERIA ETA TELEBISTA**

M

asa-komunikazioan manipulazioa izugarria da. Baieztapen hau masa-komunikabideekin batera sorturiko paradigma psikologiko baten garapenarekin berretsi daiteke, hau da,

Ipar Amerikan sortutako Konduktismo komunikatiboarekin. Konduktismoak erreflexu baldintzape-tuen ikerketa reflexologikoari ekiten dio berriro, baina erreflexuok gizakiaren portaerari aplikatzen dizkio. Pavlovek sortutako ereduaren aurrean, Watson estatubatuarrek animalien erreflexuen eta ohituren etologia sinplifikatua zena gizakietara egokitzen du (9).

Psikologia konduktistaren eskemak mass-mediatan erabiltzerakoan, errefortzuak talde-portae-rak inhibitzeko edo sustatzeko erabiliko dira. Jokaerak suspertzen dituzten errefortzu positiboak eta jokaerak inhibitzen dituztenak komunikabideek erabiltzen dituzten funtsezko gailuetako bat dira. Kontsumitzaile-hartzaile deituriko "espezie berri" horren errefortzu positibo eta negatiboen erabileraren bidez lorturiko motibazio sozialaren ezagutza gero eta handiagoa da, eta ezin da industrializazioaren ondoko gizartearen eraketatik bereizi.

Beraz, kontsumo-gizartea Komunikabideen komunikazio industrializatuarekin eratzen da. Hala ere, egituratze horretarako kontsumoaren banaketaren praktiken esanetara jarri daitekeen hiritar

(8) Ikus S. Freud-en ezinbesteko azterketa, *Lo siniestro*. Madril, Biblioteca Nueva, 1974, 2483-2507. or., VII. Liburukia.

(9) Konduktismo komunikatiboari buruzko azalpenak: Saperas, E. *Los efectos cognitivos de la Comunicación de Masas*. Bartzelona, Ariel, 1987, 15-53. or.

bat behar da. Hiritarrak birsozializatu egin behar dira, eta, horretarako, emakumea populazioaren motibazio psikologikoaren ardatz bihurtu behar da. Emakumearen rola sistemaren egokitzearen barometroa izango da. Egokitzearen hori aurrera eramateko, ordea, emakumea kontsumitzera bultzatzen duten prozesu guztien oinarritzko errefortzua bilakatu behar da. Helburu horrekin, eredu konduktistak bere arreta guztia emakumeetan jarriko du, historian zehar emakumeari buruz sortutako aurreiritziak aldatzea galaraziz eta hartzaile-kontsumitzaile "arruntari" haiek onartuaraziz.

Bigarren Mundu Gerratearen amaieraren ostean komunikabideek emakumeei dagokienez sortutako ikonografia aztertuz gero, emakumeek lanean, adimenean eta politikan lortu dituzten aurreapenentzako izugarritzko oztopoa izan den mitologia aurkituko dugu.

Gerra amaitu eta berehala, eta emakumeek atzealdean (fabrikak, batez ere arma-fabrikak, be-  
raiek jarri zituzten abian) egindako ahalegina saritzeko, zineak gerran eta gerra aurretik zegoen ereduarekiko atzerapauso bat zen emakume-eredua hedatu zuen. Independentziaz eta adimenez beteriko aktoreak, hala nola Greta Garbo, Marlene Dietrich edo Katherine Hepburn, emakumea bere rol tradizionalera zokoratzen zuen itxurakeriazko genero-eredu batekin ordezkatu zituzten. Berrogeita hamarreko hamarkadako "Telefono zuriko" komedietan azaltzen diren emakumeen bizi-itxaropen bakarra etxea, ezkontza eta haurrak ziren. Emakumearen rola bazterketaz gain, ezin dugu ahaztu garai hartan etxeko telebista azaldu zela, eta emakumearen irudia publizitatean hedatzen hasi zela. Emakume-ama eta emakume-objektuaren arteko dualtasuna komunikazioaren oinarrietako bat bilakatu zen.

Komunikabideen indarkeriaren lehenengo saialdiak hirurogeiko hamarkadaren bukaerako tele-sailetan eman zirela esan dezakegu. Indarkeria "zelo eustezin" batzuk eraginda Gildari emandako zaplaztako tuntun hura baino askoz urrutiago zihuan; garai hura 1973. urteko petrolioaren krisialdiak eragindako kapitalismoaren egokitzearen hasiera izan zen. Mendebalde mitikoko cowboyaren tiroketen eta heroi bakartiaren etikaren orde, suspensez eta hilketaz beteriko telesailak ematen hasi ziren. Alfred Hitchcocken "*Frenesi*" filma egungo psikopaten aurrekarizat har daiteke. Emakumea pertsona sufritzaile eta pasibo gisa azaltzen hasi zen, biktima gisa. Aldi berean, pornografiaren industriak hazkunde izugarria izan zuen industrian eta gizartean, eta liberalizazio politikoa herrialdeetara hasieran "erotikoak" deitzen ziren filmen etorrerarekin nahastu zen. Alabaina, hirurogeita hamarreko hamarkadako bukaeratik aurrera komunikabideek erabilitako emakumeen sinbologian eman zen aldaketarik handiena indarkeriaren, sadomasokismoaren eta emakumearen iraintzearen hazkundera izan zen. Beraz, ondoko galdera egin dezakegu: masa-komunikabideek zergatik lotzen dute emakumearen rola biktimarenarekin?

Erantzun ezberdin asko eman izan dira. Komunikologoek eta analista kritikoek iritziak, neokapitalismo berantiarrean aldaketak gertatzen diren uneetan emakumea errefortzu handi gisa erabiltzen da. Emakumea gizarte osoan eragina duten benetako gatazka eta gatazka posibleen motelgailua da. Emakumea sistemaren helburuak betetzeko tentsio sozialak desbideratzen dituen "kopla-burukoa" da -ia Nazismoko talde gutxiengodunak bezala-. Ildo horretan, emakumearekiko indarkeriak talde-tentsioak bideratzen laguntzen du, senetzko irrika arkaikoenak ustezko primitibismo batekin antolatuturiko jokaeretara zuzenduz; eta primitibismo horrek sadismo eta masokismora darama funtsean.

Egunero telebistak erakusten duen indarkeriari buruz duela gutxi egindako inkestak aztertzen baditugu, zera ikusiko dugu: mezuen %76an ekintza edo jarrera agresiboak daude. Emakumea edo neska oso sarritan iraintzen da, telebistako iragarkietan zein haurrentzako programetan, eta hori benetan kezagarria da. Populazioa birsozializatzen ari da, eta balore eta sinbolo krudeletara ohi-tzen. Fenomeno hori soziologiaren ikuspuntutik azaltzeko, emakumeen rola gatazkak bideratzen dituela kontuan hartu behar da; eta batez ere, hiritarrak lehiakortasunaren eta darwinismo indibi-

dualistaren baloreak (10) barneratzen ari direla. Izan ere, balore horiek ezinbestekoak dira guztien ongiaren kontzeptuari gero eta garrantzia txikiagoa ematen dion gizarte baten iraupenerako. Honek guztiak moralismoa dirudien arren, entzule gehien dituzten orduetan ematen diren basakeria eta sadismo portzentaje handietan egiaztatu daiteke. Horrek zera esan nahi du: asteko edozein egunetan komunikabideek behin eta berriro eskaintzen duten indarkeria ez dela errugabea, eta, are gutxiago, indarkeria gehiena aste bukaeratan, bereziki ostiral eta larunbateko gauetan, ematen dela kontuan izanik.

Emakumearekiko indarkeriaren estrategia gorago aipatutako xedeak ezkututzen dituen bihotzeko gaiekin loturiko programekin osatzen da. Emakumea familiaren zainketaren ohiko eginkizunera itzultzean, gastu soziala txikitu egiten da, neokontserbadorismoan zein neoliberalismoan. "Emakumeak oso "femeninoak" izan behar dira", moda eta kosmetika jarraitu behar dute, eta haurrak eta zaharrak zaindu behar dituzte. Eta guztiaren gainetik, afaltzen duen bitartean futbola ikusten duen edo igandeetan berak aitagarrebarekin izango duten bazkaria prestatzen duen bitartean "footing" egiten duen senarra zaindu behar du. Mundu idiliko eta zoriontsu hori emakumearen kontzientziaren atzerakadaren oztoporik larriena da, Adornok zioen legez. Horrekin ekonomia ideologia bihurtzen da, eta ideologia hori industrializazioaren ondoko hiritarren psikologia bilakatzen da.

## **GENERO-EGINKIZUNEN EGOKITZE SOZIALA: ROLAK ETA IRUDIKAPEN SINBOLIKOA**

**K**

omunikabideek emakumearen eginkizuna aldatu duten modua larria da, baina ezin dugu ahaztu emakumeak beti bigarren mailako rola izan duela. Bere mitologiaren sortzaile gisa, gizonak bere burua goraiatu du,

bere gabeziak "besteei" egotziz. Gizonak bere kontzientziaren eta psikologiaren eraketa sozialari buruzko autokritika egin beharko luke XXI. mendean erabat sartzeko. Nolanahi ere, laurogeita hamarreko hamarkadan gertaturiko aldaketa ekonomikoak eta soziopolitikoak bi dira nagusiki:

a) Talde sozialek lortutako eskubideak eta Estatu sozial gisa justiziazko irizpide hobeak dituen banaketa ekonomikoa ekarri duen forma politiko baten instituzionalizazioa mugatu egin dira.

b) Pribatizazio ekonomikoak unibertsaltasunaren eta arrazionaltasunaren kontzeptuen aurkakokak diren desdoitzeak eta desorekak ekarri ditu.

Ekintza horien eragina, psikologia sozialean emandako aldaketa handietan islatzen da:

a) Pribatizazio sutsuak indibidualismo posesiboaren ideologia dakar –MacPhersonen indibidualismo horren sorrera ezin hobeki aztertu zuen- (11). Aldi berean, taldeen arteko elkartzun-loturak hautsi egiten dira, haiek despolitizatuz eta aurkako bihurtuz.

b) Komunikabideek sistemaren tentsioak arintzeko motibazio-teknikak erabiltzeko, errealitatea ulertzeko modu kausala eta arrazionala senezkoa eta irrazionala denarekin ordezkatzeko duten joera sortu behar dira. Ildo horretan, gizonaren psikologia ezinbestekoa egiten da aipatutako prozesu soziopolitikoak eta ekonomikoak mantentzeko. Prozesu ekonomikoaren eta limurtze sozialera-

(10) Planteamendu horren eraketaren azterketa ikuspuntu politikotik: Macpherson, C.B. *La teoría política del individualismo posesivo*. Barcelona. Fontanella, 1970. 169-225. or.

(11) Macpherson, C.B., lan bera, 50-69. or.

ko teknika konduktista eta neokonduktisten eboluzioaren arteko loturak gertatzen ari diren aldaketa psikologikoak erakusten ditu.

Beste lan batzuetan, gizonak emakumearen rolean eragin duen aldaketa bikoitzari buruz aritu izan gara. Lazarsfelden komunikazio-fluxuaren maila bikoitzaren teoriari jarraituz, hasierako hipotesiak ikus-entzunezko sektoreko industria handien nazioz bestaldeko komunikabide-ekoizpenetan ez ezik, herrialde bakoitzaren berezko ekoizpenetan ere berresten direla ikus dezakegu (12). Flichyk esaten zuen legez, komunikazio-edukiak eta merkantziak oso azkar bateratzen ari dira (13). Ildo horretan, genero-rolen egituratzearekin loturiko edukiak gero eta bateratze arraroagoa jasaten ari dira.

Hain zuzen ere, 'mass-media' delakoek egiten duten gizonaren eta emakumearen irudikapen sinbolikoa integrazio handiena sortzen duten mekanismo ideologikoetako bat bilakatzen ari da; hau da, kapitalismoaren jatorriko diziplina sozialera itzultzea sustatzen duen ikuspuntu politiko neoliberalak emakumearen rola berregituratzean oinarritzen da, eta batik bat gizonaren rola lehiakortasun sutsuaren xede ekonomiko eta politikoetara egokitzean. Horrela, gizonaren kontzientzia nagusi den darwinismo psikologikora egokitzen da; eta Durkheim soziologo frantsesak deskribaturiko talde-kontzientziaren kontrolaren antzerakoa den kontrol sozialerako modu berri baten ardatza bilakatzen da (14). Kontrola, bestalde, presio gisa egiten da. Eta presio horretan indarkeriak funtsezko eginkizuna dauka.

Aldaketa horiek ikusirik, telebistako programazioa aste batez behatu dugu komunikabideen gaien edukiak aztertzeko, eta genero-eginkizunen eraikuntzaren oinarriak diren baloreak ikusteko. Emakumeak ondoko ezaugarriak izango lituzke:

— *Arinkeria* "emakumeen munduaren" berezko jarreratzat hartzen da. Hutsalkeria eta azalke-ria etengabe islatzen dira "berriketa"-programetan, edertasunari buruzko programetan eta kontsumo-telesailetan, publizitate komertzialak egiten duen emakumearen irudikapen estereotipatua kontuan hartu gabe. Ildo horretan, modak bi norabideko estrategia baldintzatzaile baten moduan jokatzen du. Batetik, haren bidez erdiko klaseak eta klase ertain baxuak klase ertain altuen eta eliteen portaerazko jarraibide eta bizitza-estiloekin identifikatzen dira, iritzi-buruzagien bitartez; buruzagi horiek ere "arrakasta sozialarekin" erlazionatzen dira. Horrek gezurrezko mugikortasun soziala eragiten du, kontsumo arranditsuan oinarrituriko altzari edo arropa mota batekin irudikatzen dena.

— *Arinkeria* leporatzeaz gain, *emakumea gauza bihurtzen da*; Kontsumo-gizartearen "objektu nagusia" bilakatzen da, eta gizartean indartu egiten da misoginia, baita emakumeetan ere, konturatu gabe beren generoari buruz sortutako aurreiritziak barneratzen dituztelako. Emakumearen gauza bihurtze hori hain hedatua izanik, oso kezagarria da; emakumea izugarri gutxien da, eta horren adibiderik mingarriena pornografia da.

— Aurrekoarekin loturik eta haren ondorioz, emakumearen rola aldaketaren aurrean defentsa-mekanismo gisa, laurogeiko hamarkadan gizonak ezaugarri berri bat sortu zuen, *emakumearen irudi sufritzailearena*. Hau da, emakumea komunikabide askotan –aldizkariak, irratia, telebista– "gorputz gaixo" bat bezala irudikatzen da. Argaltzetik menopausiara, masa-komunikabideek emakumearen irudi iraingarria ematen dute; izaki akastuna balitz bezala aurkezten dute, arreta guztia bere fisiologian jarritz. Berritoki ere emakume-naturaren mitoa sortzen da, haren eginkizun

(12) Lazarsfeld, P. y Katz, E. *La influencia personal. El individuo en el proceso de Comunicación de Masas*. Barcelona, Hispano Europea, 1979.

(13) Flichy, P. *Las multinacionales del audiovisual*. Barcelona, Gustavo Gili, 1982. 176-223. or.

(14) Durkheim, E. *De la división del trabajo social*. Buenos Aires, Shapire, 1967.

nagusia "ederra eta erakargarria" izatea delarik. Emakumearen bizitzaren azken xedea aerobika eta kaloria gutxiko dietak izango dira. Hori frogatzeko, emakumeentzako aldizkariari begirada bat botatzea besterik ez dugu: bihotzeko aldizkariak zein "emakume aktiboarentzako" aldizkariak (*Dunia, Mía, Marie Claire* etab.) irudi hori islatzen dute. Era berean, komunikabideek egunero bortxaketak, hilketak eta jipoiak erakusten dituzte, eta aldizka hartzaile "arrunta" sexu-gerra horri buruzko sasi-eztabaidekin josten dute. Emakumearen biktimizazioa pilatutako tentsio sozialen irteera-balbula bihurtzen ari da.

Orain arte, Masa-komunikabideek egiten duten emakumearen irudikapen sinbolikoaren ezaugarri nagusiak azaldu ditugu. Horregatik, rolen berregituratzea beti emakumearen eginkizunekin eta haren estereotipoekin loturik dagoela pentsa genezake. Hala izan zen beste hamarkada batzuetan ere, baina laurogeiko hamarkadatik aurrera gauzak aldatu egin dira. Populazioaren psikologia merkatu-gizartearen xedeetara gero eta gehiago moldatzen joan dela esan dezakegu. Ildo horretan, emakumeari pertsona gisa garatzeko dituen aukerak murriztu egiten zaizkion bitartean, gizonari teknika psikologiko konplexuagoen bidez presionatzen zaio. Horren helburua zera da: gizonak emakumea baldintzatzea eta indibidualismo posesiboaren azken xedeak bere egitea.

Beraz, industrializazioaren ondoko gizartean gizonaren rola hartzen dituen ezaugarri berriak gizarte-harremanak merkatu-harreman bihurtzarekin loturik daude. Komunikabideetan eskaintzen den maskulinitasun-eredua femininitasun-ereduaren osagarria eta haren aurkakoa da. Bere ezaugarriak honakoak dira:

— Neokapitalismoaren baldintza ekonomikoek etsaitzat hartzen dituen besteekin lehiatzen duen psikologia mota bat eskatzen dute. Lehiakortasunaren prozesuaren bidez egitura sistematiko guztiak mantentzen dira; era berean, hiritarrek lehiakortasun horren bitartez argi eta garbi mugaturik dagoen errealitate baten ikuspegia bere egiten dute. Gizonak argi lehiakortasun-printzipio horretan oinarriturik dauden komunikazio-mezuak jasotzen dituzte. Gizabanakoen arteko borroka darwiniarrak merkatu-prozesuen muina den lehiakortasun orokortu hori errepikatzen du. Eta borroka horretan komunikabideak bozeramaile bihurtzen dira, desberdintasunaren ekonomiarekin bat datozen portaera-kodeak transmitituz. Futbola, boxeoa, atletismoa eta golfa bera eguneroko telebistako programen eta egunkarien zati garrantzitsuenetako bat dira. Bertako ekipoaren garaipenak indarkeriazko ekintzak eta portaera primitiboak sortzen ditu. Indarkeria hori, gainera, barkatu egiten da jarraitzaileen pozak sortua delako. Egia esateko, jokaera oldarkorrek sustatu egiten dira gizentasunaren sinbolorik handienak direlakoan.

— Misoginiaren indarrak eta berpizkundeak emakumearen ahultasunarekin eta azpiratzearekin lotzen dutela eraso inisialazio-errito bihurtzen duen elkartasun maskulino bat sortzen laguntzen dute. Nerabeentzako gazteen filmak aztertzen baditugu, emakumearen rola barregarri uzten dela ikusiko dugu, gizonen artean elkartasuna sortzeko. Zine mota horretan, komikietan, "manga"tan eta fanzinetan, pertsonaia maskulinoen zitalkeria sexuala eta hondatzailea emakumeak egindako irudizko irainez mendekatzen den senetzko "jaiotzetiko izaera" baten aitzakiarekin barkatzen da. Komunikazioaren industriaren produktu horiek guztiak emakumearekiko izugarritzko gorrotoa islatzen dute; batez ere, belaunaldi belaunaldi transmitituriko aurreiritzi historiko guztiak finkatzen dituzte, eta, gainera, haur eta gazteen artean eragin handiagoa duten beste aurreiritzi batzuk sartzen dituzte. Ipar Amerikako hainbat soziologok egindako azterketa baten arabera, komunikabideek nerabeentzako egiten dituzten ekoizpenen %80k emakumearekiko indarkeria-maila oso handia du.

— Ikus-entzunezko ekoizpenen edukian azaltzen den beste baloreetako bat emakumearekin loturiko guztia mesprezatzea eta barregarri uztea da. Kultura guztietan, genero-estereotipoen erai-kuntzak beste edozein fenomenok baino hobeto islatu ditu jendea menperatzeko egiturak. Beraz, emakumeari buruzko erreferentziak beti gutxiespenez beterik egon dira. Gutxiespen horrek "besteak", ezberdina denak eragindako beldur kulturala erakusten du; ikuspuntu metapsikologikotik, bel-

dur hori gizonen beldur kolektiboetan oinarriturik dago. Hala ere, komunikabide estandarizatuek emakumea balioesteko duten modua ez dago horrekin loturik, baizik eta aurrerago aipatutako gatazkak saihesteko estrategiekin. Indibidualismo posesiboen baloreak onartzeak botere- eta menperatze-posizioak zalantzan jarri daitezkeen aurrean adiskidetasun primitiboa berekin dakar. Eta ildo horretan, emakumea barregarri uztea taldeko adiskidetasun hori gehien areagotzen duen prozeduretako bat da.

— Azkenik, generoen irudikapen sinbolikoaren eduki orokorre buruzko aipamen labur honetan, rol maskulino eta femeninoaren psikopatologizazioa ere aipatu behar da. Sadomasokismoa generoen arteko harreman "normala" bilakatu da. Horrela, hirurogeiko hamarkadara arte ikus-entzuzko ekoizpenetan portaera arrarotzat hartzen zena gaur egun eguneroko irudikapena bihurtu da. Horrek errealitatea ikusteko modu berri bat sorrarazten ari den egokitze sakona seinalatzen du; hain zuzen ere, iraganean menperatze sadomasokista horrek gizarte-harremanak asaldatzen zituela uste zen. Psikopata, beraz, komunikabideek sortutako sinboloen artean beste pertsonaia bat bihurtu da; horrek gizonaren rola aldatu egin dela erakusten du, bere ezaugarriak indarkerian eta sunsi-penean gero eta gehiago oinarritzen direlako.

Laburbilduz, generoen irudikapen sinbolikoa gizarte-eredu darwinizatu baten sorreran kokatzen da. Eredu horretan, emakumea teorikoki eskubide osoko hiritartzat hartzen den arren, beste garai batzuetako estereotipo zaharrak berpiztu dituzten hainbat taktika jasan behar ditu. "Emakumearekiko gorrotoak" gizartea atzera egiten ari dela erakusten du; gizarte horretan, "beirazko sabaiak" gaindiezinagoak eta antzemateko zailagoak bihurtzen ari dira pixkanaka.

### **AHULTZE SINBOLIKOZKO PROZESUAK: TAKTIKAK ETA ESTRATEGIAK**

G

izartea konbentzitzea lortzeko erabilitako komunikazio-tekniken artean, azken urteotan talde eta gutxiengo sozialetan eragin zuzena dutenak finkatu dira. Kathlee K. Reardonek dioen bezala:

Ahultzea Gerbnerek "funtsean ikararen taktika" gisa deskribatzen duena da. Bortxaketaren instituzionalizazioa, edo bortxaketa "krimen normalizat" tratatzea, emakumearen irudiaren aldaketa ahultzeko modu bat da. Bigarrena pornografia esplotazio-modu bat beharrean "indar askatzaile" gisa onartzea da. Publizitatea izaten da horren erruduna. Batzuetan, eraso mezu subliminalen bidez igortzen da; mezu horiek oso burutsuak dira, eta norbaitek iragarkiaren egileei haiek iragarkian sartzea justifikatzeko eskatzen baldin badie, egileok mezuok ukatu egin ditzakete. Publizitatearen pornografia askoz agerikoagoa da. Baina gure gizartea erdi biluzik dauden emakumeak telebista-pantailan ikustera ohitu da." (15)

Ahultze sinbolikoa errefortzu negatiboen erabilera besterik ez da, Konduktismoaren tradizioa jarraitzen duena. Horrela, Reardonek dioen legez, jokaera-aukeren mugak betikotu egiten dira, "gizonari dagokiona" eta "emakumeari dagokiona"ren artean eztabaidaezina den bereizketa ezarriz. "Emakumeari dagokiona" sinbolikoki arinkeriarekin erlazionatzea deuseztapen sinbolikorako teknika indartsuena da.

(15) Reardon, K. *La persuasión en la comunicación*. Barcelona, Paidós, 1983, 225. or.

Komunikabideek etengabe emakumea sinbolikoki ahultzen eta gutxien dute, hiru taktika erabiliz:a) Jokaera baten alderdi probokagarri edo bitxiak azpimarratzen dira.

b) Emakumea kanpoaldearekin loturarik eta "munduaren gora-beherekiko" interesik ez duen gizabanako isolatu gisa aurkezten eta baztertzen da.

c) Emakumearen rola irudikapen komun eta topikoak barregarri uztea, nahasmendua eta umore gaizki-esalea.

Reardonek honakoa dio etorkizunari dagokionez dauden aldaketa-aukerei buruz:

"Telebistan egiten den emakumeen irudikapen negatibo horri dagokionez, Gerbnerek etorkizunarekiko deskribapen goibela egiten du. Emakumeek sexuen arteko gizarte-harremanen egitura guztiz onartezintzat hartzen duten arte, segur aski iragarkien egileek emakumeak rol inozoetan aurkeztuko dituzte. Gutxi dira publizitate-iragarkiek arinkeriaz irudikatzen dituztelako haserretzen diren emakumeak, eta, beraz, iragarkien egileak aspaldi desagertu behar izango liritekeen irudiak errepikatzeke aske sentitzen dira. Komun garbiaren, esku-oihal leunaren eta orbanik gabeko al-kandoraren efektu desiratuak emakumeak gizonetatik bereizten dituzte; gizonen efektu desiratuak, hain zuzen ere, aseguruak, likoreak, kirolak eta beste gauza 'garrantzitsuago' batzuk izaten dira. Iragarkien egileek masa-komunikabideek islatzen dutenaren eta emakumeentzat garrantzitsua denaren, alegia, beraien interesen, arteko inkoherentziari erantzun bat ematen ez dioten bitartean, jendeak emakumeen irudi desitxuratuetatik portaerazko jarraibideak ondorioztatzen jarraituko du." (16)

Itxuraldatzea, beraz, emakumeari atxikitako baloreen interpretazioaren jarraibide orokorra bihurtzen da. Horren ondorioz, aurreiritzi-zirkulu bat sortuko da, eta handik irtetea gero eta zailagoa bihurtuko da. Emakumeen autoestimua jaitsi egingo da; izan ere, ahultze sinbolikoak psikologia sozialak hainbeste kutsatuko ditu, ezen emakumeak berak bere rolari atxikitako estereotipoak sinistuko dituen.

## **GENERO-ROLEN ALDAKETAREN ERAGIN SOZIALAK**



kuspuntu soziologikotik, argi dago gizabanakoen berpsikologizazioa –ideologiari zein gainegiturari dagokionez- mass-media errukigabeek egunero transmititzen dituzten

sexu-rol oso bereizien eraketaren bidez gertatzen ari dela. Eraketa hori batez ere gizonaren rolari dago zuzendurik, eta bere helburua gizarte-harreman nagusien aldaketen aurrean gizonaren erantzunak bideratzea da. Gizonaren rola, beraz, aurreko hamarkadetan baino gehiago ideologizatu da, lehiakortasuna gailentzen duen egokitzapena jasan duelako. Egokitzapen hori lortzeko, hainbat komunikazio-teknika erabili dira: modak edo komunikabideek hedatutakoaren aurkakoak diren emakume-ereduak isilean gordetzen duen *isiltasun-kiribila*; hegemonikoak bihurtzen ari diren etatik ezberdinak diren argudioak deuseztatzen dituen *kontrargudiaketa*; *teknika hipodermikoaren* erabilerak, hau da, balore, gai, sinbolo eta aurreiritzi berdinen etengabeko errepikapena edo "tanta-erortze sinbolikoa", gizarteak haiek barneratzen dituen amaitzen dena. Aipatutako teknikek iritzi-

(16) Reardon, K., lan bera, 226. or.

giro jakin bat sortzen dute gizartean, eta handik irtetea oso zaila egiten da. Beraz, masa-komunikabideak gizona eta emakumea etsai amorratu bihurtzen dituen prozesu ideologikoa ari dira abian jartzen; gezurrezko "sexu-gerra" hori etengabe azaltzen da eguneroko telesail eta filmetan, bai eta telebistako eztabaida eta hizketaldi sasi-ikasietan ere. Teknika horiek sakonago aztertzea merezi du. Gehien erabiltzen direnak honakoak dira:

— Erabilera eta Sarietan oinarrituriko limurtze-teknikak. Planteamendu honen arabera, Masa-komunikabideak taldeen beharrak asetzeko erabiltzen dira. Katz, Gurevitch eta Blumlerrek komunikabideek hartzaileei motiboak identifikarazten dizkiela frogatu dute. Genero-rolen kasuan, sari erotikoa komunikazio-edukiek sustaturiko tentsio emozional handi batekin loturik dago. Horren ondorioz, emakumea kontsumitzaile-hartzaile arruntaren bizigarririk garrantzitsuen bilakatzen da.

— Gaur egun asko ikusten den teknika bat teknika hipodermikoa delakoa da. Teknika horren arabera, komunikazioak orratz hipodermiko baten erara funtzionatzen du, pixkanaka artifizialki sortutako sailkapenak, baloreak, arauak eta kodeak hartzailean sartzen dituelako. Generoen bereizketari dagokionez, epe labur eta luzera teknika horrek dituen zeharkako eraginei buruzko ikerketek -Hartmann eta Husbandenak adibidez-, aukeratutako tanta-erortze sinboliko horren eraginez talde sozial batean gerta daitekeen jarrera-aldaketa sistematikoa berresten dute.

— Elizabeth Noelle-Neumann soziologo alemaniarrek aipatutako teknikaren azterketa egin du, arreta mezu sinboliko espezifikoei jarri beharrean komunikabideetan isiltzen eta desagerrazten diren mezuetan jarriz. Bere ekarpen garrantzitsuenak isiltasunaren kiribilari eta Agenda edo Agenda-Setting izenekoaren ezarpenari buruzko ikerketak dira. Emakumearen kasuan, Agenda-Setting-a emakumeak gutxietako jarrera sozialak eragiten dituen errefortzu negatibo iraunkorrenetako bat da.

— McGuire psikologo ipar amerikarraren kontrargudiaketaren teknika jendea konbentzitzeko prozedura negatiboetako bat da. Teknika epe luzera gizartean gutxiespena edo *boomerang efektua* delakoa sortzen duten argudioak aurkeztean datza. Emakumeari buruzko arazoak eztabaidatzen diren telebista programa askotan jokaera-aukeraketarako, teknika hori erabiltzen da.

Laburbilduz, ezinbestekoa da komunikabideek erabiltzen dituzten genero-rolak teoria eta praktikaren ikuspuntutik berriro zehaztea. Birzehaztapen horretan etorkizunerako norabide historikoa baldintzatzen duen zerbait behar da: kultura eta komunikazioa alienazio orokorrerako tresna bihurtzea. Izan ere, komunikabideak populazioaren kontzientzietan interpretazio jakin batzuk hedatzen ari dira, etengabe transmititzen diren estereotipoak finkatzen dituzten norabide bakarreko interpretazioak.

Hala ere, egungo baldintza ekonomiko eta sozio-politikoetan genero-rolak berriro zehaztea posible ote den galdetu behar diogu gure buruari. Ildo horretan, gizonaren rola desdoitzea eta aldaketa komunikabideen arketipo sinbolikoetan oinarritzen da. Gizona lehiakortasuna muin ideologikotzat duten interes ekonomiko eta politiko batzuetara gero eta gehiago zuzendurik dauden jarrerak akritikoki barneratzen ari da. Horrela, emakumea elementu lehiakortzat hartzen da, eta gizartearen indarkeria eta oldarkortasuna haren aurka desbideratzen dira. Emakumea, hortaz, egitura osoa desitxuratzen duen elementua bihurtzen da, eta horren ondorioz, misoginia erradikalizatua berpiztu egiten da. Misoginia hori industrializazioaren ondoko gizartearen krisi orokorrak eragindakoa da. Prozesu horrek hondatu egiten du pixkanaka gizarte osoa, eta ia egunero edozein egun-karieren gertakari-kroniketan ikusten ditugun oldarkortasun-fenomenoak sorrarazten ditu. Sexu-rolen eta haien bereizketa sozialaren eraginez gizarte-bizitza baldintzatzen duten egiturazko alderdiak gero eta negatiboago bihurtzen ari dira. Aldi berean, gainera, gizon ideologizatuari bere menperatzea betikotzeko argudioak ematen dizkiote; horren ondorioz, gizon eta emakumeen arteko harremanetan irrazionaltasuna sortzen da, sadomasokismozko elementu psikopatologiko nabarmene-

kin. Hori frogatzeko, ikuskizunen sailean dauden filmak ikustea besterik ez dugu; emakumearen eta gizonaren arteko harremanaren narriadura -horrela deitu ahal baldin badiogu- ez ezik, gizarte-harreman guztien narriadura ere nabarmena da. Aurreko hamarkadetan egindako filmak egungoekin konparatzen baditugu, adibidez, ondorio oso kezagarriak aterako ditugu.

Telebistak, prentsak, publizitateak, irratiak eta musikaren munduak eta bere idoloek eredu maskulino patologikoak sortzen dituzte etengabe, eta sinbolo horiek eragin handia dute gaztetxo eta nerabeengan. Baina ez dira gazteak eragin horiek jasaten dituzten bakarrak; sektore intelektualek eta postmodernoek ere misoginiaz beteriko rol maskulinoa goستن dute. Zenbait literatura-eremutan hedatu den misoginiak barregarri uzten du emakumea intelektualki, haren antzinako irudikapenak eginez. Horrela, "sexu-gerraren" gatazka faltsuak emakumearekiko mesprezua sortzen du gizarte osoan, ahultze sinboliko horren azpian dagoena.

Beraz, emakumearen izena galtzea, emakumea barregarri uztea eta emakumearenganako indarkeria ikuspuntu psikoanalitiko batetik baino gehiago ikuspuntu soziologiko eta juridikotik aztertu behar dira. Ikuspuntu psikoanalitikoetik, zenbait egilek gizonak emakumearekiko eta haren ama-rolarekiko duen gutxiagotasun-konplexua azpimarratu dute. Baina gauzak dauden bezala uzten dituen Edipo-konplexu sekretu hori aztertzeko beharrik ez dago; aztertu beharrekoa gizarteak emakumearekiko indarkeria eta tratu txarreko erakusten duen permisibitatea da. Esate baterako, etxeko indarkeriari buruz dagoen hipolegislazioa deigarria da, beste gai batzuei buruz, jabegoari buruz adibidez, dagoen hiperlegislazioarekin alderaturik. Zuzenbide publiko eta pribatuarekin konparatuta, beraz, emakumearekiko indarkeriari buruzko legeak urriak dira. Horrez gain, gizartearen tentsioak emakumeei egozten zaizkiela ere soziologikoki ikus daiteke (17). Emakumea gizartearen koplak burukoa bihurtzen ari da, lehenago talde etnikoekin edo beste sinesmen batzuk zituzten taldeekin gertatu den bezala. Gatazkak eta talde-tentsioak segmentu ahulenetara bideratzen ari dira, eta emakumea "bestea" izaten jarraitzen du, desberdina dena. Teologiaren ikuspuntutik "gaizkia" zena orain "arraroa" izatera pasa da. Emakumea pertsona historiko berri bat den arren, eta bere errealitatea belaunaldietan zehar transmitituriko eta oldarkortasunean oinarrituriko interpretaziotik ezberdina den arren, gizarteak oraindik ere ez du onartzen (18).

Komunikabideek rol maskulino bortitza etengabe sustatzeak honako eraginak dakartza gizartean:

a) Gizartea psikologikoki kutsatu egiten da, eta azkenean komunikabideek sustaturiko patologiak "jokaera normal" gisa onartzen ditu.

b) Lehiatzea hiritar guztien arteko oinarritzko harremana bihurtzen duten baldintza ekonomiko eta sozialak legitimatu egiten dira. Beraz, darwinismo soziala industrializazioaren ondoko gizarte-ideologia nagusia bihurtzen da.

c) Haur eta gazteen sozializazioa gertatzen da; talde hau heroï bortitz horiekin identifikatzen da, eta gero eta oldarkoragoak eta ankerragoak diren portaerazko jarraibideak errepikatzen ditu (19). Gogora dezagun, adibidez, eskoletan ematen den indarkeria, Estatu Batuetakoa bereziki.

(17) Ikus Gurvitch, G. *Sociología del Derecho*. Rosario, Depalma, 1955. 57-73. or.

(18) DUBY, G. y Perrot, M., lan bera, 91-135. or.

(19) Muñoz, B. *Teoría de la Pseudocultura*. Madril, Fundamentos, 1995. 221-229. or. "Un estudio de Sociolingüística: Condicionamiento simbólico y cultural en grupos infantiles y juveniles a través de los 'mass-media'".

d) Emakumea desbideratutako eta bideratutako indarkeriaren helburua bilakatzen da. Hau da, gizartearen ezinegona egitura eta instituzioetara zuzendua ez izateko, emakumearengana zuzentzen da; beraz, emakumeak gizarte osoak onartzen eta suntsitzen dituen biktimak dira (20).

Komunikabideen mezuek eta gizartearen jarrera eta ekintzek emakumea etengabe erasotzeari uzteko hainbat funtsezko aldaketa gertatu behar dira. Hasteko, egoera hori nolabait toleratzen duten legeak aldatu egin behar dira. Aldi berean, benetako aldaketa ideologikoak eman behar dira. Emakumearen izena galtzea, suntsitzea, hura barregarri uztea edo hura ikaratzeko teknikak zigortu egin behar dira, eta komunikabideen edukietatik eta gizartearen jokaera orokorretatik kendu. Beraz, emakumearen duintasunaren aldarrikapena eta duintasun hori lortzeko borroka toki eta baldintza sozial guztietako emakume guztien xedea izan behar da. Txiki-txikitatik gizona iraintzera eta emakumea iraindua izatera ohitzen duen tolerantzia faltsuarekin intoleranteak izan behar gara. Beste pertsona bat mespretxatzea, iraintzea edo beheratzea jasanezintzat hartzen denean bakarrik bihurtuko da gizartea arrazionalagoa eta zibilizatuagoa. Emakumea mespretxatzea eguneroko ohi-tura da, eta horrek gure gizarteari demokratikoa izateko oraindik asko falta zaiola erakusten du. Basakeria arrazoiarekin eta ankerkeria guztien *on unibertsalaren kontzeptu ederrarekin* ordezkatu-ko duen sistema soziala eraiki behar da, hiritar guztiak duin bihurtu eta goraipatuko dituen gizarte-  
tea.

---

(20) Colombo, F. *Alternativa a la violencia*. Bartzelona, Lumen 1978. Herbert Marcuseren liburua, *La agresividad en la sociedad industrial avanzada*. (Madril, Alianza, 1981), funtsezko azterketa da industrializazioaren ondoko egungo gizartean ematen den indarkeriaren arrazoiak ulertzeko.

**GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO  
HARREMANEN ALDAKETAREN  
ETA BELAUNALDIARTEKO  
ERRELEBOAREN IRUDIKAPENA  
PRENTSAN. AZTERKETA ETA  
PROPOSAMENAK**

AMPARO MORENO SARDÁ

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Ematera noan hitzaldia Nati Abril doktoreak, BUako Kazetaritza Saileko irakaslea den Manel López doktoreak, Isabel Alonso Dávila bigarren hezkuntzako irakaskuntzako irakasleak eta beka-dun gisa landa-lanean eta datuen ustiakuntzan ari diren Patricia Gómez, Núria Simelio eta Soledad Vargas doktoretzako ikasleek osaturiko taldea egiten ari den ikerketa-proiektuaren memorian oinarriturik dago. Hasteko, Nati Abril doktoreari eskerrak eta zorionak eman nahi nizkioke hitzaldisorta hau antolatzeagatik (1).

Proiektu hau Emakumearen Institutuan aurkeztu zen 2000. urteko I+G proiektuen deialdian, eta 3 urtez ikerketak egiteko (2001-2004) finantziazioa lortu zuen. Egun, datuak lortzeko eta ustiatzeko lehenengo fasean gaude, eta oraindik ez dugu, beraz, emaitzarik lortu. Hori dela eta, hipotesien planteamendu teorikoak, frogatzen ari garen hipotesiak eta haiek frogatzeko erabiltzen dugun metodologia bakarrik azaldu ahal izango dut.

Labur esateko, gure ikerketaren helburua XX. mendean gizon eta emakumeen arteko harremanetan gertaturiko aldaketa sozialen eta diktaduratik demokraziarako trantsizioan komunikabideek irudikatu dituzten gizon eta emakumeen ereduaren arteko erlazioa aztertzea da. Gure ustez, aldaketa sozialei esker belaunaldi gazteenek aukera-berdintasun handiagoa dute, baina arazo berriei ere aurre egin behar diete. Bestalde, aldaketa horiek fideltasun handiagoarekin edo txikiagoarekin irudikatzean eta modu positiboan edo negatiboan aurkeztean komunikabideek izan duten papera ikertu nahi dugu. Horren helburua da aukera-berdintasuna aldarrikatzen duen gizarte baten irudi positiboa eta erakargarria sustatzen duten mezuek sortzeko eta prentsa kritikoki irakurtzeko jarraibideak finkatzea.

Proiektuaren izenburuak zenbait planteamendu seinatzen ditu. Planteamenduak diskurtso akademikoari buruz –diskurtsoa azterketa egiteko erabiltzen den tresna epistemologikoa da- eta azterketaren oinarria diren komunikabideei buruz egindako aurreko ikerketen emaitzak dira. Izan ere, gure iritziz arazoa aipatzeko erak, eta, ondorioz, hura ez aipatzeko erak ere bai, eragina du arazoaren definizioan eta egiten dugun diagnostikoan eta tratamenduan. Aipatutako planteamenduak geroago azalduko ditut, baina honakoak dira, laburbilduta:

Gizarte-harremanak eta haiek prentsan irudikatzen diren modua ezberdintzen ditugu: errealitate sozial zabala eta era askotakoa, batetik, eta komunikabideek egiten duten errealitatearen erai-kuntza sinbolikoa, bestetik.

Gure abiapuntua diskurtsoaren ordena androzentrikoaren kritika da. Sexu-banaketa eta "gendero" ereduaren erai-kuntza aztertzen dugu; banaketa hori, hain zuzen ere, beste zenbait aldagaiekin uztartzen da, eredu konplexu multzo bat sortuz; multzo horren erdian Gizonaren Arketipoa dago, aldi berean sexista, heldua, arrazista eta klasista den eredu. Ildo horretan, ereduaren eta adinaren eta belaunaldiarteko erreleboaren artean dauden loturak ikertu ditugu.

Gure xedea informazioan eta publizitatean eta argitalpen mota ezberdinetan irudikatzen diren eredu sinbolikoak erkatzea da.

---

(1) Taldea osatzen duten pertsonen esperientzia handia dute komunikabideei buruzko ikerketetan. Amparo Moreno, Natividad Abril eta Manel López ikerketa honek aztertzen duen denboraldiko prentsarekin eta prentsak egiten duen gizon eta emakumeen irudikapenarekin loturiko doktoretza-lanak eta Doktore-Tesiak zuzentzen ari dira, eta zenbaitetan elkarrekin lan egin izan dute.

**EREMU TEORIKOA ETA  
METODOLOGIA: DISKURTSO  
AKADEMIKOAREN ETA MASA-  
KOMUNIKABIDEEN ORDENA  
ANDROZENTRIKOAREN  
KRITIKA**

# X

X. mendean, batez ere azkeneko laurdenean, eta XXI. mendearen hasierako urteetan, adin eta baldintza sozial guztietako gizon eta emakumeen arteko harremanak asko aldatu dira etxean, lanean, politikan, aisialdian eta abar. Horrek eragina izan du komu-

nikabideek irudikatzen dituzten eta talde sozial ezberdinekin erlazionatzen diren portaera-ereduetan.

Aldaketa horiei esker, belaunaldi gazteenek aukera-berdintasun handiagoa dute; hala ere, hainbat arazo sortu dira, gizarteak aldaketei kontra egiten dielako eta komunikabideek hedatutako eta kontsumo-merkatuak baldintzatutako balore-sistemak harreman lehiatsuagoak sustatzen dituelako.

Azken hamarkadetan ikerketa ugari egin dira komunikabideek emakumearen irudia islatzeko izan duten moduari buruz. 2000. urtean Emakumearen Institutuak *Imágenes de las mujeres en los medios de comunicación* (2) txostena argitaratu zuen. Txostenean Espainiako eta Europar Batasuneko beste herri batzuetako hainbat emakume ikertzailek parte hartu zuten, Ullamaija Kivikururen zuzendaritzapean, eta emakumeak eta gizonak komunikabideetan irudikatzen diren moduari buruzko zenbait ikerketa aztertu zituzten.

Txosten honen ondorioetan aipatutako ikerketen hutsunerik handienak deskribatzen dira: konparazio-ikerketak falta dira, denboran zehar ematen diren aldaketak neur ditzaketen ikerketa linealak, ikuspegi sistematikoak, eta ikerketaren metodoei eta emaitzei buruzko erreferentziak (64. orr.); komunikabideen, emakumeen eta politikaren arteko erlazioa ikertu behar da, eta komunikabideek talde etnikoen eta bereziki talde horietako emakumeen premia eta zaletasunei behar bezalako arreta jartzen dieten aztertu behar da (66-67 orr.).

Gainera, ikerketarako eta ekintzarako gomendioak ematen dira. Horien artean, ondokoak dira garrantzitsuenak proiektu honi dagokionez: komunikabideen edukietan dauden genero-irudien jarraipen ordenatua eta sistematikoa egitea (69. or.); eremu publikoan eta batik bat politikan lan egiten duten emakumeak ulertzeko moduan komunikabideek duten papera ikertzea (70. orr.); talde etnikoak, etorkin-talde berriak eta emakumeen talde gutxiengodunak komunikabideetan irudikatzen diren modua ikertzea (70-71 or.); komunikabide berrien bidez emakumeentzako sareak sortzea (72. or.); emakumeak komunikabide berriak erabiltzeko hezteak eta trebatzea (73-74. or.).

Hala eta guztiz ere, txosten honek Espainian burututako ikerketei buruz egiten duen balantzea (103. orrialdea eta hurrengoak) partziala da. Izan ere, ikerketak txostenaren amaieran agertzen diren gako-hitzetan oinarritzen dira: emakumeak, emakumeen irudia, estereotipoak, generoa, maskulinoa, femeninoa, feminismoa, berdintasuna, komunikabideak eta hezkuntza.

---

(2) Kivikuru, U. (2000). *Imágenes de las mujeres en los medios de comunicación*, Gizon eta Emakumeen arteko Aukera-Berdintasunerako Komunitatearen Ekintza-Programaren (1996-2000) barruan kokaturiko Ikerketak, Azken Txostena, 1997ko ekaina. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Emakumearen Institutua, Madril.

Aipatutako hitz zerrenda osatu gabe dago, diskurtso akademikoaren eta komunikabideen ordena androzentrikoaren kritikan (3) oinarrituriko laurogeiko hamarkadan egindako ekarpenak aintzat hartzen ez dituelako. Kritika hori Emakumearen Institutuak finantzaturiko ikerketetan egin zen, eta laurogeita hamarreko hamarkadan ikerketok metodologia sistematiko bat sortzeko erabili ziren. Metodologia horrekin, prentsak genero-eredu femeninoak eta maskulinoak beste aldagai batzuekin -adina, etnia eta klasea, esaterako- uztarturik irudikatzen dituen modua ikertu daiteke; eredu horiek eremu sozial pribatu, publiko eta marjinalekin erlazionatu daitezke, eta eremu horiekin loturiko gizarte-ekintza eta harremanekin; aldaketak eta iraupenak antzematen dituzten azterketa historiko linealak egin daitezke; azkenik, komunikabide bakar baten informazioaren eta publizitatearen arteko konparazio-azterketak egin daitezke, edota zenbait komunikabideren artekoak, eta egunkariaren testuen eta testuinguru historikoen artekoak ere bai (4).

Argi dago ikerketok egiten dituztenen ikuspegiak ikerketen emaitzak baldintzatzen dituztela beti. Hain zuzen ere, Espainian egindako ikerketek buruzko txosten honi azken urteetan egindako ikerketa guztiei leporatzen zaiena aurpegiratu diezaiokegu: hutsetik abiatuz egin dirudiela (123. or.). Zehatzago esanda, zati bat alde batera utzi eta azterketa partzial baten bidez dena orokortu egiten duela.

Denborari eta komunikabide motei dagokienez corpus mugatueta oinarrituriko azterketa partzialetatik abiatuz ondorioak orokortzeko joera hori, hain zuzen ere, komunikabideen genero-ereduei buruzko ikerketa askotan ikus daiteke (5).

Adibidez, laurogeiko hamarkadaren hasieran Concha FAGOAGAK eta Petra M. SECANELLAK eguneroko "eliteko" prentsari eta prentsa "herrikoari" buruz egindako ikerketak honakoa ondorioztatzen du: egunkariak gizonezkoen irudiez beteriko mundu bat erakusten dute, eta horrek egunkariak gizonek gizonentzako egiten dituztela frogatzen du. Halaber, aipatutako bi ikerlarien ustez, prentsan emakumei buruzko aipamen gutxi daude emakumeak ez daudelako aurreikusteko moduko gertakarien agendan, eta ez direlako erakunde burokratikoaren bozeramaileak edo ohiko informazio-iturriak, eta ez direlako inoiz irakurtzat hartu; horren guztiaren ondorioz, emakume-belaunaldi berriei zaila egingo zaie euren bizitzako eta laneko xedeak betetzeko nahikoa erreferentzia aurkitzea (6).

---

(3) Diskurtso akademikoaren ordena androzentrikoaren kritikari buruz ikus MORENO SARDA, A. (1986), *El arquetipo Viril protagonista de la Historia. Ejercicios de lectura no-androcéntrica*, LaSal, Bartzelona, eta (1988) *La otra política de Aristóteles. Cultura de masas y divulgación del arquetipo viril*, Icaria, Bartzelona. Androzentrismo akademikoak masa-komunikabideen azterketan dituen eraginak eta komunikabideek genero-harremanak eta ereduak irudikatzen duten modua ulertzeko ikuspegi ez-androzentriko bat hartzearen beharra aztertzeke, ikus (1989), "En torno a la comprensión histórica de la cultura de masas. I. El orden androcéntrico del saber académico", ANALISI, BUA 12. zk., 81-91. or. eta (1992) "En torno a la comprensión histórica de la cultura de masas. II. Paradigmas para una Historia de la Comunicación Social (No-Androcéntrica)", ANALISI, BUA 14. zk., 9-31. or.; (1990), "Los inicios de la cultura de masas (algunas observaciones no-androcéntricas)", ANALISI, BUA 13. zk., 137-143. or.; (1994) "Prensa de successos: models de marginació i integració social en els processos de mobilitat social", ANALISI, BUA, 16. zk., 35-54 or., eta beste argitalpen batzuk. Orientazio hau beste emakume ikertzaile batzuek kontuan izan dute, eta 1987-1988an Emakumearen Institutuak finantzaturiko eta BUAKo Kazetaritza Saileko Feminari Dona i Cultura de Masses-ak egindako ikerketan aplikatu dugu. Ikerketa (1990) *Prensa para mujeres o el discurso de lo privado: el caso del grupo HYMSA*-en argitaratu zen. GARITAONANDIA, C., y otros (ed.), Comunicación, cultura y política durante la II República y la Guerra Civil-en, EHU, Bilbo T. 223-233. or.

(4) Komunikabideak aztertzeke metodologia ez-androzentrikoa hainbat lanetan azaldu da, eta sistematikoki MORENO SARDA, A. (1998). *La mirada informativa-n*, Bosch, Bartzelona.

(5) Gure Doktoretza Tesian frogatzen dugun legez, egungo diskurtso akademikoaren gezurkeria ez da androzentrismoa soilik; zorrozki Gizonaren Arketipoari dagokion eredu partikularra pertsona guztiarentzako orokortzeak sortutako opakotasuna ere bai. Lan hau ere gezurkeria horretan erortzen da, partikularra dena orokortuz.

(6) FAGOAGA, C. y SECANELLA, P. M. (1984), *Umbral de presencia de la mujer en la prensa española*, Emakumearen Institutua, Madril.

Urteak geroago, satellite bidezko nazioarteko telebista-kateetan jasotako lagin batean oinarrituz, bi egileek berretsi egin zituzten datuok eta emakumeak programen aurkezpenaren continuum-ean, telesailetan eta publizitatean baino ez zirela existitzen ondorioztatu zuten (7).

Vicente BACA LAGOS-ek komunikabideek ematen duten emakumeen irudiarri buruz Espainian egindako ikerketen balantze bat egin zuen, antzerako ondorioak atereaz: komunikabideak berandu moldatzen dira emakumeek hartu dituzten rol berrietara, publizitateak rol horiek sortutako premiak asetzeko emakumearen irudia modernizatzen duen arren (8).

Geroago egindako ikerketek ere "informazio orokorreko" prentsak emakumeak irudikatzen duen modua aztertu dute (9). Lortzen dituzten ondorioak, ordea, ezin dira komunikabide guztietara orokortu, ikerketak corpusaren aukeraketan eta datuen tratamenduan eragina duen ikuspegi parzial batetik abiatzen direlako.

"Informazio orokorreko" komunikabideek emakumeak irudikatzen duen modua ikertzean, zenbait komunikabideek eremu publikora heldu diren emakumeak nola tratatzen dituzten bakarrik ikus daiteke. Genero-ereduak prentsan edo komunikabide guztietan nola tratatzen diren behar bezala ebaluatzeko, eta gizartea aldatzen doan neurrian aldaketak eta berdín jarratzen duten gauzak antzemateko, komunikabideetan egiten diren adin eta baldintza sozial guztietako gizon eta emakumeen irudikapen guztiak kontuan izan behar dira, eremu publikoa ez ezik, beste eremu sozial batzuk, pribatuak eta marjinalak esaterako, ere aztertuz.

Izan ere, bizitza politikoan sartzea ez da emakumeek XX. mendean lortu zuten aldaketa sozial bakarra, ezta masa-komunikabideek jaso duten bakarra ere. Adin eta baldintza sozial guztietako gizon eta emakumeak irudikatzen dituzten komunikabideak, haiek finantzatzen dituen publizitatea barne, aztertzen baldin baditugu, komunikabideek beste aldaketa sozial asko jaso dituztela ikusiko dugu.

Horrela, ikuspegi zabalago batetik abiatuz, 1992ko uda eta 1993ko uda bitartean Madrilen ikus zitezkeen telebista-kateen publizitatearen eta programen edukien gaineko ikerketa batean (10), Manuel MARTIN SERRANOK honakoa ondorioztatu zuen: telebistan azaltzen diren gizon eta emakumeen artean desberdintasun nabarmenik ez dagoela, programetan gizon gehiago (%53) eta iragarkietan emakume gehiago (%52) ikus daitezkeen arren. MARTIN SERRANOren arabera, telebistak eremu pribatuarekin eta eguneroko bizitzarekin loturiko ekoizpen sozialeko auziak tratatzen ditu, eremu publikoarekin loturiko ekoizpen sozialak baino, eta baita elkarrekin sozialak ere (maitasun- eta familia-harremanak, lagunen arteko harremanak, beren arazo eta poz, adostasun eta desadostasunekin); programen laurdenak eta iragarkien erdiak, hain zuzen ere, gai horiekin loturik daude.

Guk geuk egindako ikerketetan eta guk zuzenduriko beste batzuetan, antzerako ondorioak atera ditugu prentsako informazioaren eta publizitatearen arteko ezberdintasun eta kontraesanei dago-

---

(7) FAGOAGA, C., y SECANELLA, P. M. (1990), *La presencia de las mujeres en los medios de comunicación*, PEÑA MARIN, C. y otros, *La mujer en la publicidad*-en, Emakumearen Institutua, Madril.

(8) BACA LAGOS, V. (1995), *El análisis de las Representaciones Sociales de los Géneros y los Estudios de la Mujer en España*, MARTIN SERRANO, M. Y E. Y BACA LAGOS, V., *Las mujeres y la publicidad. Nosotras y vosotros según nos ve la televisión*-en, Emakumearen Institutua, Madril.

(9) Beste batzuen artean, ikus ALTES, E., GALLEGO, J., BACH, M. et al. (1999), *El sexe de la notícia. Reflexions sobre el gènere a la informació i recomanacions d'estil*, Diputació de Barcelona; BUENO ABAD, J. R. et al. (1996), *Estudio longitudinal de la presencia de la mujer en los medios de comunicación de prensa escrita*, Nau, Valentzia.

(10) Ikus MARTIN SERRANO, M. y otros (1995), *Las mujeres y la publicidad. Nosotras y Vosotros según nos ve la televisión*, Emakumearen Institutua, Madril.

kienez (11): masa-komunikabideek hainbat eremu sozial, pribatu, publiko eta marjinaletan diharduten hainbat baldintza sozialetako gizon eta emakumeen artean gertatu diren aldaketa sozialak jasotzen dituzte; eta hori egitean adina, klase soziala eta arraza bezalako aldagaiekin loturiko banaketa sozialak uztartzen dituzten eredu femeninoak eta maskulinoak sortzen dituzte. Banaketa horiek tratamendu idealizatua edo dramatikoak, positiboak edo negatiboak, izaten dute, eta horrek integrazioaren eta bazterketa sozialaren aukerak identifikatzera darama.

Beraz, ikerketen ikuspuntua aberastu egiten da ikuspegi akademiko androzentrikoa, "generozko" ikuspuntua barne, irekitzean; komunikabideetan eremu publikoak gaituz eta gizarte-bizitzako beste eremu batzuk kontuan hartuz, baldintza ezberdinetako gizon eta emakumeen arteko gizarte-harreman anitz eta kontraesankorrak aztertuz.

Gure ikerketaren abiapuntua, hortaz, orain arte hainbat ikuspuntutatik egindako lanen ekarpenak eta Emakumearen Institutuak argitaraturiko txostenean aurkituriko hutsuneak dira. Gure xedea azken hogeita hamar urteotan argitaratutako prentsaren konparazio-azterketa sistematikoa eta lineala da; horren bidez, gertaturiko belaunaldiarteko erreleboa kontuan izanik, gizon eta emakumeen eta genero-ereduen arteko harremanen aldaketak prentsan, bai informazioan bai publizitatean, nola irudikatu diren azalduko dugu.

Azterketa honen azken helburua aukera-berdintasunaren ikuspegi erakargarria sustatzen duten informazio- eta publizitate-materialak irakurtzeko eta sortzeko jarraibide berriak zehazteko oinarriak finkatzea da.

## LAN-HIPOTESIA

E

gunkariek egunero errealitate soziala eta gizartean gertatzen diren aldaketak jasotzen dituzte, eta, beraz, aldaketa historikoak ikertzeko dokumentazio-iturri onak dira.

Horregatik, benetan garrantzitsua da prentsa historia kolektiboa osatzen dugun adin eta baldintza sozial guztietako gizon eta emakumeen arteko jarduerak eta harremanak ahalik eta modu sinesgarrienean eta aurreiritzirik gabe jasotzea.

---

(11) SOPEÑA I NUALART, A. (1991), La publicitat com a font documental per a la Història Contemporànea. El Hogar y la Moda, 1913-1931; ALONSO DÁVILA, I. (1991-1993), Cine y literatura, como fuente documental y materiales didácticos para la renovación de la Historia de Cataluña; SUÑÉ I BALCELLS, R. (1992), *Anàlisi hemerogràfica diacrònica automatitzada: aplicació a EL PAÍS 1976-1991*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; GONZÁLEZ ESCUDERO, E. (1994), *Un asesinato para la historia. Lucrecia Perez, 13 de noviembre de 1992*. Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; eta (2000), *Redes sociales, comunicación y procesos de movilidad y asentamiento de emigrantes magrebíes en Alicante (1985-1995)*, Doktoretza-Tesia, BUAKo Kazetaritza-saila; MOLINA, P. M. (1995), *Utilización didáctica de la prensa del corazón en la etapa instrumental de la formación básica de adultos*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; SÁNCHEZ MENÉNDEZ, J. (1998), *La representación de realidades sociales marginales en prensa diaria: la prostitución en las informaciones y la publicidad de EL PERIODICO y LA VANGUARDIA*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; VEGA, E. (2001), *La construcción del cuerpo andrógino en los videoclips de Michael Jackson y Madonna*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; SIMELIO, N. (2001), *Paper i influència de la premsa diària d'informació general durant la transició espanyola (1973-1983)*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; OSORIO, Z. (2001), *Las imágenes del periódico*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; QUINAYAS, G. (2002), *EL CASO, Semanario de sucesos. Una crónica de los procesos de movilidad social durante la Dictadura de Franco*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila; (2002), DE SAN MARTIN, L. E. (2002), *La mirada informativa del vespertino TAL CUAL sobre la sociedad venezolana (2000-2001)*, Doktoretza-lana, BUAKo Kazetaritza-saila.

Azken hogeita hamar urteotan, informazioaren eta publizitatearen bidez hainbat egunkarik gizartean eman diren aldaketak islatu dituzte; era berean, baldintza sozial ezberdinetako gizon eta emakumeen arteko harremanen eta genero-eredu maskulino eta femeninoen arteko aldaketak irudikatu dituzte.

Baina irudikapen hori ez da gardena, ezta kasu guztietan berdina ere; horregatik, prentsa ezin da iturri historiografiko gisa erabili bere ezaugarriak ezagutu gabe. Prentsak errealitatearen datuen aukeraketa eta tratamendua baldintzatzen duten prozeduren bidez sinbolikoki adierazten du errealitatea; prozedura horiek egunkari motaren arabera ("informazio orokorreko" egunkariak eta aldizkariak, "bihotzeko" aldizkariak, talde sozial jakinei zuzendurikoak...) modu ezberdinetan erabiltzen dira, eta informazioa edo publizitatea diren arabera. Aipatutako prozedurek gertatzen denaren, hau da, errealitateatza har dezakegunaren, eta egunkarietan azaltzen denaren, hau da, errealitatearen irudikapen sinbolikoen, arteko erlazioa baldintzatzen dute. Bestalde, prozedurok prentsan agertzen diren harreman sozial eta ereduen irudikapenetan antzeman dezakegun aniztasuna eta kontraesanak eragiten dituzte.

Kuantitatiboa den azterketa batek prentsan gizonak eta emakumeak zenbat aldiz agertzen diren bakarrik esaten du, eta datu horiek gizarte osoko gizon eta emakume kopuruarekin alderatu daitezke soilik. Aitzitik, kuantitatiboa eta kualitatiboa den azterketa batek, guk proposatzen dugunak adibidez, argitalpenek erabilitako prozedurek informazioan eta publizitatean gizon eta emakumeen errealitate sozialaren tratamendua eta haien irudikapen positiboa edo negatiboa nola baldintzatzen duten argitu dezake, integrazioa sustatuz eta bazterketa gaitzetsiz.

Hortaz, gure ikerketaren funtsezko hipotesia hau da: azken hogeita hamar urteotan egunkarietan eta informazioan eta publizitatean egin den adin eta baldintza sozial ezberdinetako gizon eta emakumeen arteko harremanen aldaketaren irudikapena ez da kasu guztietan berdina izan, baizik eta era askotakoa, eta kontraesankorra ere batzuetan: egunkari eta kazetaritza-produktu batzuk aldaketekiko sentiberagoak eta irekiagoak izan dira eta aipatutako aldaketen irudi erakargarriagoak eskaini dituzte; beste egunkari batzuk, aldiz, aldaketa horiekiko itxiagoak izan dira eta ez dute aldaketen hain irudi erakargarririk eskaini.

Funtsezko hipotesi hau egunkari motarekin aukeratutako aldagaiak kontuan hartzen dituzten beste batzuekin osatzen da.

Lehenik eta behin, balorazio androzentriko akademikoa zalantzan jartzen dugu, "informazio orokorreko prentsa" deiturikoari aldaketa sozialetan esku hartzeko gaitasun handiagoa eta ikuspuntu aurrerakoiagoak egozten dizkiolako, eta emakumeentzako prentsa hutsala eta aldaketekiko itxiagoa dela uste duelako.

Aurreiritzi androzentriko honek komunikabideei buruzko azterketa askotan du eragina, generoaren ikuspuntutik egindako azterketetan ere bai. Guk zera frogatu nahi dugu: "informazio orokorreko" egunkariak, nagusiki hainbat botere-istantziekin loturiko gizonei zuzenduriko egunkariak eta astekariak, aldaketekiko itxiagoak izan direla, aldaketei gogorrago egin dietela; ez dituztela aldaketa horien irudi hain erakargarriak eskaini, eta, hortaz, ohiko harreman eta ereduen iraupena sustatu dutela. Aldiz, nagusiki emakumei eta jende guztiari zuzenduriko argitalpenak, hau da, bihotzeko aldizkariak, emakumeentzako aldizkariak etab., aldaketekiko sentiberagoak eta irekiagoak izan direla; irudi erakargarriagoak eskaini dituztela, eta, beraz, ohiko harreman eta ereduen aldaketa sustatu dutela.

Ido horretan, beste zerbait ere frogatu nahi dugu: informazioa, batez ere "informazio orokorreko prentsa" eskainitakoa, aldaketekiko gogorrago eta itxiagoa izan dela; ez duela aldaketa horien irudi hain erakargarririk eskaini, eta, hortaz, ohiko harreman eta ereduen iraupena sustatu duela. Publizitatea, aldiz, aldaketekiko sentiberagoa eta irekiagoa izan dela, aldaketen irudi erakargarriagoak eskaini dituela eta, beraz, ohiko harreman eta ereduen aldaketa sustatu duela.

Hipotesi hauek egiaztatzean, gizonezkoentzat gorde izan diren eremu publiko, politiko, ekonomiko eta zientifikoetara heldu diren emakumeek eremu horiei lehentasuna ematen dieten komunikabideetan ikusiak izateko eta lorpen hori erakargarria egiteko dituzten zailtasunak uler ditzakegu.

Era berean, lehentasuna etxeko espazio eta harremanei ematen dieten eta emakumeei espezifikoki zuzenduta dauden komunikabideek emakumeentzako debekatuta egon izan diren eremu publikoetara emakumeak heltzea eragin duten etxeko harremanen aldaketa era positibo batean aurkeztu duten egiaztatu dezakegu, eta, beraz, ikuspuntu androzentrikoak aitortzen duena baino aldaketa askoz erabakigarriagoa sustatu duten ere bai.

Baina azken urteotako gizarte-harremanen aldaketa ez da berdina izan gizonen eta emakumeen artean. Emigratu egiten duten pertsonen kasuan beste aldagai batzuk aintzat hartu behar dira, hala nola jatorrizko klasea, herrialdea eta taldea, eta talde gutxiengodunen berezitasunak. Izan ere, aldagai horiek pertsonen baliabide ekonomikoek baldintzatzen dituzte; aukera ekonomiko horiek pertsonak bizirik irauteko behar dituzten baliabideen erabileran islatzen dira, eta kontsumo-merkatuan eta bizitza politiko eta kulturean duten partaidetzan. Komunikabideek baliabide horiek irudi negatibo edo positiboekin irudikatzen dituzte, baliabiderik ez duten eta eremu marjinaletan bizi diren gizon eta emakumeen egoera dramatizatuz, edo baliabideak dituzten eta talde aberatsetan daudenen bizitza idealizatuz.

Ildo horretan, gure iritziz gizon eta emakumeen arteko harremanen aldaketa irudikatzeari kontra egiten dioten komunikabide eta produktuek marjinaturik bizi diren gizon eta emakumeen arazoak irudikatzeari ere kontra egiten diote; eta etxeko eremuan gizon eta emakumeen gizarte-harremanen aldaketa irudikatzearekiko sentiberagoak diren komunikabideak marjinaturik bizi diren gizon eta emakumeen arazoekiko sentiberagoak dira.

Antzerako hipotesia frogatu nahi dugu adinaren aldagaiari eta komunikabideek belaunaldiarte-ko erreleboa irudikatze-ko duten moduari dagokionez.

Gure ustez, izan ere, gizon eta emakumeen arteko harremanen eta genero-ereduen aldaketa irudikatzeari gogorrago egiten dioten komunikabide eta produktuek belaunaldi gazteenen egoera irudikatzeari ere gogorrago egiten diote; aldiz, etxeko eremuan gizon eta emakumeen arteko gizarte-harremanen aldaketekiko sentiberagoak diren komunikabideak belaunaldi gazteenetako gizon eta emakumeen egoerarekiko sentiberagoak dira.

Prentsak adin eta baldintza sozial ezberdinetako gizon eta emakumeen arteko harremanen aldaketak islatzeko eta aldaketa horiek modu erakargarrian edo dramatikoan aurkezteko duten sentikortasuna ebaluatzeko, prentsak eskaintzen dituen irudikapenekiko egokiak diren irakurketa kritikorako jarraibideak ezarri behar dira.

Horrez gain, ebaluazio horrek bidezko genero-harremanak eta aukera-berdintasuna dituen gizarte baten abantailen ikuspegi positibo eta erakargarria sustatzen duten mezuak sortzeko jarraibide berriak eman behar ditu. Jarraibideak egunkariak errealitatea irudikatze-ko erabiltzen dituzten prozeduretan oinarrituko dira; halaber, errealitatearen tratamendu eta ikuspegi pluralagoak eta bidezkoagoak, gizarte demokratiko batekin bat datozenak, sortzera zuzenduko dira.

Beraz, ikerketa honen lehen xedea betetzean, gizon eta emakumeen arteko harremanen aldaketaren irudikapenari buruzko eztabaida (bigarren xedea) aberastuko dugu, eta horrek gure azken xedea lortzen lagunduko digu: prentsa kritikoki irakurtzeko eta mezuak sortzeko jarraibideak finkatzea. Jarraibideak egunkarien berezitasunari egokituko zaizkie, eta aukera-berdintasuna nagusi den gizarte baten abantailen ikuspegi positibo eta erakargarria sustatuko dute.

## **METODOLOGIA ETA IKERKETA-TEKNIKAK**

# K

omunikabideek adin eta baldintza sozial guztietako gizon eta emakumeen arteko harremanen aldaketak jasotzean islaturiko iraupenak eta aldaketak aztertzeke, eta iru-

dikapen horiek azken hogeita hamar urteotan gizartean eman diren aldaketekin alderatzeko, La mirada informativa (12) lanean diseinaturiko azterketa hemerografiko diakroniko automatikoa erabiliko dugu.

Egunkari bakoitzaren informazio eta publizitate-unitateetan garrantzia handiena eta txikiena eman zaien gizon eta emakumeak aztertzeke eta egunkariak pertsonak nola tratatu dituzten ikusteko, pertsona horiei nolako tokia eman zaien ikertzen da; hau da, informazioaren eta publizitatearen komunikazio-unitateetan inprimaturiko gainazala nola antolatu den aztertzen da.

Egunkari bakoitzak bere inprimaturiko gainazala antolatzeko duen moduaren azterketa kuantitatiboa eginez, egunkariak lehentasuna zeri eman dion ikus daiteke, eta zer zokoratu edo baztertu duen. Horrez gain, adin eta gizarte-baldintza ezberdinetako gizon eta emakumeei tratamendu positiboa edo negatiboa, idealizatua edo dramatizatua, eman zaien ere ikus daiteke.

Aipatutako azterketa egiteko, fitxa bat osatu dugu; fitxaren bidez, egunkariak beren unitateetan aipatzen dituzten protagonistei, haiekin loturiko ekintzei eta haiei dagozkien eremuen ezaugarriak buruzko datu esplizituak sistematikoki eta era unibokoan jasotzen dira. Fitxak alderdi formalak ere barne hartzen ditu, hala nola datuei ematen zaien tokia eta egunkarian azaltzen diren orrialdea, titulua, irudiak eta testuak; alderdi horiek irudikatzen diren ereduak irudi positiboak edo negatiboak sortzen laguntzen dute.

Azterketarako, aukeraturiko laginaren ale osoak erabiltzen dira. Datuak datu-base batean biltzen dira, eta SPSS programaren bitartez prozesatu egiten dira. Emaitzekin, aztertutako denboraldian egunkari bakoitzak posizio hierarkikoak edo marjinalak dituzten talde sozial, adin eta gizarte-baldintza ezberdinetako gizon eta emakumei eskaini dien arretak eta tratamenduak nola eboluzionatu duen erakusten duen erradiografia osatu daiteke.

Lagina osatzen duten aleen lehen azterketa kuantitatibo hori egin ondoren, multzoaren gainerakoa aztertuko da, aukeratutako aleen tarteetan erradiografiak erakutsitako aldaketa nabarmenenak kokatzeko, eta egunkari bakoitzak denboraldi horretan egin duen gizon eta emakumeen irudikapenaren balantzea egiteko. Azkenik, aztertutako egunkari guztien artean konparazio-azterketa egingo da.

Horrela, egunkarietako testuen azterketaren emaitzak aldaketa sozialei buruzko datuekin konparatu ahal izango dira: informazio- eta publizitate-testuak testuinguru historikoarekin, alegia. Gainera, argitalpenak denboraldi horretako aldaketa sozialak argitzen lagunduko duten iturri dokumental gisa erabili ahal izango dira. Aldaketak ez dira ohiturazko datu ekonomiko edo soziologikoetara mugatuko: prentsak irudikapen sinbolikoen iraupenean eta aldaketetan izan duen papera ere kontuan hartuko da.

---

(12) Ikus MORENO SARDÀ, A. (1998). *La mirada informativa*. Bosch, Bartzelona.

**ERREALITATEAREN  
ALDAKETAREN IRUDI  
POSITIBOAK SUSTATZEN  
DITUZTEN AZALPEN  
BATZUETARAKO  
ESTRATEGIAK ETA UTOPIAK**

tzea saihesteko eta komunikabideetan agertzen diren eredu eta gizarte-harreman multzoaren aniztasun kontraesankorrari heltzeko irizpide teoriko eta metodologiko zabalak ematen dizkigu.

**D**atuen bilketaren eta tratamenduaren fasean gaudenez, ezin dugu oraindik ondoriorik atera, eta are gutxiago jarraibiderik finkatu. Nolanahi ere, zera esan dezakegu: diskurtso akademikoaren ordena androzentrikoaren kritikak, azterketa erreduzitzaileetan eror-

**IKT-AK (INFORMAZIOAREN  
ETA KOMUNIKAZIOAREN  
TEKNOLOGIAK), GIZARTE-  
-ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO  
ESKU-HARTZE ESPAZIO BERRI  
BAT. EMAKUMEEK INTERNET  
OKUPATZEN DUTE**

MONTSEERRAT BOIX

Kazetaria - TVE

Mujeres en Red-eko koordinatzailea

1997. urteko abuztuan Mujeres en Red esperientzia sortu nuen, Internet munduko emakumeen egoerari buruzko informazioa trukatzeko espazio gisa erabiltzeko; ordutik hona asko aldatu da nire ikuspuntua. Hasieran, IKTek eskaintzen zituzten aukerak ez nituen ia ezagutzen, baina egunetik egunera esperientzia praktikoa hartzen joan nintzen, nire aurrean neukan lurralde ia ezezagunarekin ez larritzeko ahaleginak eginez. Web orri bat nola egiten den ikasi nuen; garai hartan partekatzea ezinbestekotzat hartzen nuen informazioa bertan sartzeko. Posta elektronikoaren bidez informazioa banatzeko zerrendak antolatzen ere irakatsi zidaten. Orduan, emakume feministekin –eskuragarrien nituenekin behintzat– harremanetan jarri nintzen, haiek sortzen ari nintzen espazio berriari "nahasteko" esperantzarekin... Leonor Taboada, adibidez, IKTek gizarte-mugimenduentzat eta feminismoarentzat zeukaten garrantziaz jabetu zen lehenengo pertsona izan zen, beste gauza askoren artean. Harekin batera Mujeres en Red-en lehenengo urratsak ikusi nituen. Victoria Sendón, bestalde, sarean feminismoaren gaineko testu original eta berri bat (1) partekatzearen aldeko apustua egin zuen gure lehenengo feminista "teorizatzailea" izan zen. Horrela, intuitiboki eta ekimen hark zuen balioaz oraindik jabetu gabe, aipatutako emakumeek Interneten gogoetak, iritziak eta ezagutzak partekatzen lagundu zuten; Internet bihurtu den "talde-adimen" horretan doan eskaintzen diren ezagutzak jasotzeko guneak eraikiz, "copyright"aren beldurrik gabe; Manuel Castells soziologoaren ikasle izandako Pekka Himanen filosofo finlandiarrak "hacker etika" (2) deitutakoari jarraituz, eta Linux sistema eragile gisa erabiltzeak sinbolizaturiko software librearen eta kode askearen aldeko gizarte-mugimenduaren ildotik.

Praktikatik hasi nintzen, sarean komunikazio feminista eginez; Internetek eremu horretan eskaintzen zizkigun aukera anitzekin harritu egiten nintzen egunero. Eremu hura mugimendu feministek konpondu gabeko arazo handienetarikoa bat zen nire iritziz. Ondoren, formatu elektronikoko (3) emakume-sareen historia ikertu nuen. Horretarako, gizarte-mugimenduek Interneten izandako bilakaera eta emakume-taldeek emakumeei IKTak erabiltzen irakasteko egiturak nola sortu zituzten aztertu behar izan nuen. Orduan, Bellaterrako Informazio Zientzien Fakultatean ikasitako kontzeptu teorikoak burura etorri zitzaizkidan... Zer da komunikazioa? Zer da informazioa? Zein da komunikazioaren eta informazioaren arteko ezberdintasuna, eta zein da "teknologia berriak" deiturikoez eztabaidarako eta praktikarako egin duten ekarpena? Duela urte bat inguru CRIS (Communication Rights in the Information Society – Komunikazio Eskubideak Informazioaren Gizartean) (4) mugimendua ezagutu nuen eta haren kanpainarekin bat egin nuen... Mugimendua Porto Alegreko izpiritua jasotzen zuen; zenbait talde sozialek, haien artean komunikazioaren generoaren eta garapen sozialaren ikuspuntutik lanean ari ziren batzuek, komunikazioa oinarritzeko eskubide gisa aldarrikatu behar zela uste zuten, Nazio Batuek 2003ko abenduan antolatuko duten eta 2005an Tunezen jarraituko duen Informazioaren Munduko Konferentziaren inguruan, eta CRIS premia horri erantzun bat emateko sortu zen.

---

(1) ¿Qué es el feminismo de la diferencia? - Una visión muy personal. Victoria Sendón de León [http://www.nodo50.org/mujeresred/victoria\\_sendon-feminismo\\_de\\_la\\_diferencia.html](http://www.nodo50.org/mujeresred/victoria_sendon-feminismo_de_la_diferencia.html)

(2) "La ética del hacker y el espíritu de la era de la información" - Pekka Himanen. Editorial Destino - 2001

(3) "La comunicación como aliada: tejiendo redes de mujeres". Montserrat Boix. "El Viaje de las Internautas. Una mirada de género a las nuevas tecnologías". Género y Comunicación 3. zk. AMECOK argitaratua. Bertsio elektronikoa: [http://www.mujeresenred.net/el\\_viaje\\_de\\_las\\_internautas.html](http://www.mujeresenred.net/el_viaje_de_las_internautas.html)

(4) <http://www.comunica.org/cris/>

Norabide bakarrek informazioaren kontzeptuaren aurrean, komunikabideetan bi norabide ahalbidetzen dituzten egiturak sortu behar dira. Informazio-igorpenak gero eta zorrotzago kontrolatzeko sortzen diren monopolioen aurrean, gure xedea informazio-eskuratzearen demokratizazioa ahalbidetzen duten bideak eta egiturak sustatzea da; demokratizazio hori, izan ere, nahi eta nahizkoa da komunikabideek baztertu egin ohi dituzten emakumeentzat. Beraz, praktikaren aldetik Internet dinamikaren erdi-erdian dago, eta lan-ardatz nagusia da.

Aurkezpen labur honekin bukatzeko, gaur egun egiten ari naizenari buruz hitz egingo dizuet. Sareko "espazio alternatiboak" deiturikoetan garatzen ari diren ekintzak ikertzen eta haietan esku hartzen ari naiz: kontrainformazio-mugimenduak, hacktibismoa –teknologia eta borroka sozialaren batura-, Interneteko edukien eraketan partaidetza handiagoa ahalbidetzen duten web orriak editatzeko tresna berriak –weblog-ak, wiki-ak, SPIP-ak, etab.-.... Horren guztiaren helburua teknika abangoardistetatik ikastea da, komunikazio soziala eta bereziki komunikazio feminista sustatzeko.

### **SAREA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ESPAZIO DEMOKRATIZATZAILE GISA**

Z

enbait faktorek komunikazioaren demokratizazio-prozesua errazten dute. Lehenengoa Interneten egitura fisikoa bera da. Bere an-

tolamendua teorikoki hierarkiarik ez duten nodoen konexioan oinarriturik dago; hau da, pertsona guztiek nodo bakoitzetik informazioa igortzeko eta jasotzeko botere bera dute. Bigarrenik, sarea kostu txikiko komunikabidea da; orriak zerbitzari alternatibo batean etengabe editatzeko aukera duen web gune batek urteko 100 euro baino gutxiago balio du, eta paperezko edozein aldizkariren argitalpenak, aldiz, gutxienez 2.000 euro balioko luke urteko. Eta hori irratia- edo telebista-emisore bat sortzearen kostuak kontuan hartu gabe, noski. Gainera, milioika pertsonak guk sortzen ditugun guneak ikus ditzakete. Edozein pertsonak edukiak igorri ditzake, eta edozein hartzailek berriro ere informazioa igorri dezake. Komunikabide tradizionaletan bazterturik egon ohi diren emakumeentzat, eta beren diskurtsoak boterearen diskurtso nagusiarekin bat ez datozelako zokoraturik dauden talde sozial askorentzat, Interneten ezaugarriak oso garrantzitsuak dira, komunikazioa bidezko eta berdintasunezko gizarte bat sortzeko erabili dezaketelako.

### **MAKINEN KONTROLA ETA SOFTWARE LIBREA**

E

gia da gaur egun ordenagailuak ez daudela pertsona guztien eskuetan. Munduko toki askotan –asko urrundu beharrik gabe, Espainiar Estatuan bertan adibideak aurkitu

ditzakegu-, Internet-konexioa sortzeko telefono-linearik ere ez dago. Hala eta guztiz ere, askotan arazoa ez da ordenagailurik ez izatea, ordenagailua erabiltzeko dugun modua baizik.

Latinoamerikan, esate baterako, AEBetako eta Europako kooperaziorako alderdi kontrarioek helburu logistikoekin diseinaturiko politika erabakigarria izan zen gizarte zibileko taldeen artean ordenagailuak komunikazio-tresna gisa hedatzeko. Izan ere, alderdi kontrarioek nazioarteko tarifa-dun alferrikako telefono-deiak egin beharrean lana posta elektronikoaren bidez koordinatzea epe

ertainera askoz merkeagoa zela ikusi zuten. Horrela, ordenagailua eta modema "Hirugarren Munduko" edozein herrialdeko lankidetzaren bulegoren oinarritzko premien diseinuan ia-ia ezinbesteko tresnak bihurtu ziren.

Era berean, iristeko zailak diren tokietan telefono-linea txar eta garestien ordez Internet-konexioak dituzten ziberkafetegiak aurkitzea ohiko bihurtzen ari da. Webcam-aren bidezko konexioak osasunean eta hezkuntzan gero eta gehiago erabiltzen ari dira toki txiroetan garapena sustatzeko edo sakabanatuta dauden komunitateekin harremanetan egoteko.

Gai honi dagokionez, ezin dugu ahaztu Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko elkartasuna. Elkartasun horren ondorioz, izan ere, mugimendu hacktibistaren lehenengo ekintzetako bat sortu zen. Mugimendu honen buruzagia Ricardo Domínguez zen, mexikar jatorriko iparamerikarra; 1994. urtean mugimendu zapatistaren Interneteko estrategia diseinatu zuen, "Network Zapatista", eta hari esker mugimendu indigena horren kausa mundu guztitik zabaldu zen.

Bestalde, APCK (5) edo Asociación para el Progreso de las Comunicaciones -Komunikazioen Aurrerapenerako Elkartek- egindako lana ere funtsezkoa izan da. Eremu pobreenetan gizarte-egoera ahuleko taldeek Internet erabili ahal izateko trebakuntza-lana egin zuen; halaber, GKEen eta talde sozialen ekintzak Interneten jasotzeko eta koordinatzeko berezko zerbitzari-sare bat sortu zuen, Internetera sartzeko zerbitzari eta zerbitzu komertzialak erabiltzea saihesteko. Proiektua 90eko hamarkadaren hasieran abiarazi zuten Londreseko GreenNet (6) talde ekologistak eta New Yorkeko IGCK (7) (Institute for Global Communications); hamar urte geroago, 60 herrialde baino gehiagotan –bereziki Latinoamerika, Afrika eta Asian- aurki daitekeen zerbitzari-sare indartsua garatu da. Zerbitzariak GKEak zerbitzatzen dituzte, beren web orriak barne hartzen dituzte eta gizarte zibila diru gutxigatik Interneten bidez komunikatu ahal dadin trebakuntza-programak koordinatzen dituzte. Estatu Espainiarrean, gizarte zibileko taldeek Internet erabili ahal izateko ezinbesteko zerbitzarietako bat Nodo 50 izan da. Hasieran APCrekin loturik zegoen, jada desagertua den estatu-mailako Ipanex sarearen bitartez. Gaur egun, Nodo 50 APCrekin loturik ez dagoen arren, sortu zeneko lan-filosofia bera mantentzen du.

Dudarik gabe, egokiena talde sozialek beraiek beren zerbitzaria kudeatu ahal izatea izango litzateke. Software pribatuaren aurrean software librearen (8) alde dauden zenbait pertsonak

---

(5) <http://www.apc.org>

(6) <http://www.gn.apc.org>

(7) <http://www.igc.org>

(8) "Software Libre" erabiltzaileek softwarea exekutatzeko, kopiatzeko, banatzeko, aztertzeko, aldatzeko eta hobetzeko duten askatasunarekin loturik dago. Zehatzago esanda, softwarearen erabiltzaileek duten lau askatasun motarekin loturik dago: programa edozein xedekin erabiltzeko askatasuna (0 askatasuna). Programaren funtzionamendua aztertzeko eta programa erabiltzailearen beharrei egokitzeko askatasuna (1 askatasuna). Horretarako, lehenengo iturri-koderako sarbidea lortu behar da. Kopia banatzeko askatasuna, zure aldamenekoari lagundu ahal izateko (2 askatasuna). Programa hobetzeko askatasuna eta hobekuntzak besteei erakusteko askatasuna, komunitate guztiari mesede egiteko (3 askatasuna). Horretarako, lehenengo iturri-koderako sarbidea lortu behar da. GNU-La definición de software libre. <http://www.gnu.org/philosophy/free-sw.es.html>

–Richard Stallmanek (9) dion legez, AEBetan zure aldamenekoarekin softwarea partekatzeagatik kartzelan urteak pasa ditzakezu- komunitate interesgarriak sortu dituzte dinamika horrekin. Gaur egun, sareko gune berritzaileenak dira; haien bidez komunikabide berri horrek dituen bide anitzak eta aukera handiak aztertu daitezke. Komunitateok mugimendu hacktibistekin loturik daude. Estatu Espainiarrean arlo horretan egin den saiakuntzarik aipagarriena Sindominioaren sorrera izan da (10). Teknikaren ikuspuntutik, talde hacktibistek Linux erabiltzen dute sistema eragile gisa; Linux irabazi asmorik gabeko ehunka programatzailearen arteko lankidetzarekin sortu da, eta Bill Gatesen (11) Windows inperioaren eta multinazionalen aurrean kode irekiko software librea aldarrikatzen du. Sindominiooko kideen filosofia aldaketa sozialak lortzea helburu duten proiektu alternatiboek laguntzea da, proiektuei denen artean eta modu altruista batean sortutako tresna tekniko berritzaileak eskainiz.

Batzuetan, proiektu birtualaren partaideak espazio ez birtualetan elkartzen dira, HackLab ize-neko bilguneetan. HackLab-etan, kideek –emakume batzuk ere badaude, baina oraindik ez nahiko-ak- ezagutza berriak trukatzeko dituzte eta hizketaldiak antolatzen dituzte, bat-batean berriketaldiak hasten dituzte eta, azken batean, hacker etika berria gauzatzen dute. Mugimenduok ukatu egiten dute legaltasunaren onartze formala eta akritikoa, baina aldi berean ez dute onartzen hacker terminoa delitugile informatikoarekin, salbatzaile/"cowboy" digitalarekin edo elitismo profesionalarekin erlazionatzea. Lehenengo HackLab-ak Italian sortu ziren (Florentzia, Bolonia, Genoa...). Estatu Espainiarrean "hacking laborategiak" Bartzelonan, Bilbon eta Madrilan aurki ditzakegu. Zergatik laborategi bat?, diote beren web orrian... "Beste batzuekin batera errazago egin ditzakezun gauzak bakarrik probatzea erabilgarria ez delako, eta tristea ere delako. Ez dugulako inguruzten gaituen mundutik gure burua isolatu nahi, kontrakoa baizik. Bakoitzaren logela ordenagailu-sareak antolatzeko txikiegia delako. Digitalak ez duelako organikoa ordezkatzen. Gauzak elkarrekin ikastea eta egitea pozgarria delako". <http://www.sindominio.net/wh2001/>

## **EMAKUMEAK ETA INTERNET. ESPAZIO BERRIAK OKUPATZEN**

E

spazio birtualari eta haren sorrerari buruz teorizatzen hasi ginenean, gizon eta emakumeei eskubide eta aukera berdinak eskaintzen dizkien mundu hori eraikitzen hasteko

garaia izan zitekeela pentsatu genuen. Komunikabide hori ezagutzen ez genuelako eta mundu hasi berri hark itxaropen handiak ematen zituelako, hasieran espazio birtuala espazio ez birtualetik des-

---

(9) MITeko IA Laborategi mitikoan lanean aritu izan den hackerra. 1984. urtean GNU proiektua sortu zuen GNU sistema eragile libre bat garatzeko xedearekin. GNUaren aldaera bat kernel Linuxean oinarrituriko egungo sistemak dira; biek batera GNU/Linux famatua osatzen dute. Stallman *Free Software Foundation* (FSF) irabazi asmorik gabeko erakundearen lehendakaria da; FSFren helburua ordenagailuen programak kopiatzea, birbanatzea, ulertzea eta aldatzeari buruzko murrizketak kentzea da. Era berean, Stallmanek *copyleft* kontzeptua sortu zuen eta *GPL* edo "lizentzia publiko orokorra", software librearen gotorleku le-gala eta politikoa dena, idatzi zuen. "Software librea askatasun-kontua da: jendeak softwarea gizartearentzat erabilgarriak diren modu guztietan erabiltzeko askatasuna izan beharko luke", esan ohi du Stallmanek. Richard Stallman eta FSF software-patenteei aurka egiteagatik ere nabarmendu dira. Izan ere, patente horiek izugarritzko mehatxua dira software librearen etorkizunarentzako. <http://www.sindominio.net/unomada/stallman.html>

(10) <http://www.sindominio.net>

(11) Windows versus Linux. Manual práctico: el ordenador y la Internet. El Viaje de las Internautas. 67. or.

berdina eta berezia zela uste genuen, berezko kodeak eta berezko eboluzioa zituela. Baina gaur egun badakigu mundu birtuala eguneroko mundu ukigarriaren beste alderdi bat besterik ez dela. Betiko estereotipoak Interneten automatikoki errepikatu egin daitezke, eta, beraz, injustizia historikoak eta desberdintasunak, emakumeekin loturikoak esate baterako, espazio birtualera zabalduta daitezke. Bestalde, errealitate horretaz jabetzen garen arren, ezin ditugu ahaztu Internetek eta ITKek eskaintako tresna berriek gure borrokarentzat dituzten abantailak. Emakume-sare elektronikoen hamar urte bete dituzte dagoeneko: espazio birtualari eta Interneti esker, informazio eta pentsamendu feminista oso azkar hedatzen ari da, gogoeta eta ekintzarako estrategiak koordinatzeko eztabaida-guneak sortzen ari dira... emakumeak ikusgarriagoak bihurtu gara, eta politikan esku hartzeko aukera handiagoak ditugu.

Azken hamarkadan, esperientzia praktikoa ezberdin ugari garatu dituzten hainbat ziberfeminismo sortu dira Sarean. Horrek Informazioaren Teknologiek eta Internetek aktibismo sozialerako edo sormen artistikorako duten indarra erakusten du.

Ziberfeminismo artistikoari dagokionez, sarean eskuragarri dagoen lan bat, *Ciberfeminismos: entre la estética postmoderna y la militancia* (12) lana, irakurtzea gomendatzen dizuet. Bertan, emakume talde horren joerak eta iritziak azaltzen dira. Ziberfeministak batez ere 90eko hamarkadan aritu ziren lanean; izan ere, sarea sormenerako espaziotzat hartzen zuen Net Art-aren goreneko garaia izan zen. Mugimenduaren izen eta joeren artean "VNS (Venus) Matrix" talde australiarra nabarmendu dezakegu. Taldeak 90eko hamarkadaren hasieran "ziberfeminismoa" terminoa sortu zuen. Bere lehenengo instalazioek formatu elektronikoa zuten –argazkia, soinua eta bideoa-. Taldeak ziberespazioko esparru sozialaren, nortasunaren eta sexualitatearen eraketa aztertu zuen; emakumeak goi-teknologiako gaietatik aldentu ditzaketan mito maskulinoak ezagutzera eman zituen, eta errealitate hura hausteko doktrina jarraituz emakumeak "menperatze- eta kontrol-tresnez" jabetzea aldarrikatu zuen; makinak pentsamendu erradikalarekin kutsatzea, haiek aginte hierarkikoaren eraketaren helburutik desbideratzeko". Era berean, Sadie Plant filosofo eta ikerlari britainiarren lana, "Ceros + Unos" (13), azpimarragarria da. Lanak emakumeen eta teknologiaren historia aztertzen du, eta sare elektronikoen, hipertestuaren lengoia eta ordenagailuaren osagaiak feminismoaren ikuspuntutik berriro aztertzea proposatzen du. Prozesadorearen eta matrizearen arteko paralelotasuna ere azpimarratzen du. Beste adibide bat Cornelia Sollfranke (14) zuzenduriko OBN (15) (*Old Boys Network*) da. Mugimendu honen jatorria INNEN izan zen, hau da, generoaren ikuspuntutik formatu elektronikoen lan egiten zuten lau emakume artistak 1992an Hanburgon sortutako taldea. Taldeak 1997. urtean I. Nazioarteko Biltzar Feminista antolatzea lortu zuen, Documenta X-en eremuan. Documenta X munduko arte garaikideko erakusketa garrantzitsuenetako bat da, bost urtean behin Kasselen (Alemania) egiten dena.

Faith Wilding estatubatuarra bereziki nabarmendu nahi nuke. Diziplina anitzeko sortzailea eta idazlea, Critical Art Ensemble taldean ekintzaile kultural gisa aritu zen. Ricardo Domínguez, lehen

---

(12) "Ciberfeminismos: entre la estética postmoderna y la militancia" Montserrat Boix – 2002ko urria  
<http://www.mujaresenred.net/ciberfeminismo.html>

(13) Ceros + Unos. Editorial Destino, Bartzelona 1998

(14) Sollfranken proiektu garrantzitsuenen artean "Female Extension" (1997) eta "Women Hackers" (2000) daude.  
[http://sapiens.ya.com/webothello/\\_infografia/mediarama01/03cornelia.html](http://sapiens.ya.com/webothello/_infografia/mediarama01/03cornelia.html)  
<http://www.obn.org/hackers/>

(15) *Old Boys Network* unibertsitateetan eratzen diren "mutil elkarteak" esan nahi duen adierazpen anglosaxoia da. Talde horietan mutilek elkarri laguntzen diote, elkarren konplizeak dira, lanak eta informazioa trukatzeko. Mutil zaharrenek gazteenei laguntzen diete, eta unibertsitateko mutilik boteretsuenak dira. <http://www.obn.org>

esan bezala mugimendu hacktibistaren barruan zapatisten alde lan egin zuen gizona, 80ko hamarkadan talde horretako kidea izan zen. Wildingen lanak eta gogoetak erabakigarriak izan ziren ziberfeminismo artistikoaren eta harekin batera sortutako ziberfeminismo sozialaren artean zubi teorikoak eta praktikoak eraikitzeko. Wildingek politikan formak gaindituz parte hartzeko beharra zegoela azpimarratu zuen; era berean, ordenagailuek aktibismo sozialari eta feminismoari eskaintzen zizkieten aukerak ikertu zituen, horrek zekartzan abantaila eta desabantaila guztiak kontuan izanik. Horrez gain, emakume feministen belaunaldi ezberdinen arteko arrail digitala eta emakumearentzako telelanaren alderdi kontraesankorrak aztertu zituen, besteak beste.

## ZIBERFEMINISMO SOZIALA

Z

iberfeminismo artistikoarekin batera, ziberfeminismo soziala sortu zen. Bere xedeak honakoak ziren: ordenagailuak eta sare elektronikoen feminismoaren eragina handitzeko erabiltzea; espazio elektronikoen berria komunikabide tradizionaletan marjinalatu egin ohi diren emakumeentzako komunikazio-espazio erabilgarria bihurtzearen aukerak aztertzea; eta Internet aktibismo sozialerako erabiltzea, emakumeen eskubideen eta aukera-berdintasunaren defentsarako.

1993. urtean, APC Komunikazioen Aurrerapenerako Elkarteak APC-emakumeak taldea sortu zuen; bere xedea munduko emakumeen boterea teknologia berrien bidez indartzea zen. Lan-taldearen buruak Londreseko GreenNet zerbitzariko Karen Banks (16) australiarra eta Sally Burch kazetari britainiarra ziren; azken honek esperientzia handia zeukan herri-komunikazioan eta genero-komunikazioan, Ekuadoreko ALAI (17) informazio-agentzia alternatiboan lan egiteagatik. APCren proiektuaren inguruan bildu ziren lehenengo talde feministak American International Health Alliance, Boston Women's Health Book Collective, Casa de Colores, Center for Women's Global Leadership, Femnet, Equality Now, Global Fundation for Women, Isis Internacional eta De Mujer a Mujer (18) izan ziren.

Lehenengo urratsa eztabaidarena izan zen; posta elektronikoko zerrenden bidez, emakume-taldeek Pekingo IV. Emakumeen Munduko Biltzarrera eramanez nahi zituzten jarrerak eztabaidatu zituzten. Prozesua 1995. urteko irailean amaitu zen: Pekinen, 24 herrialde ezberdinetako 40 emakumek osaturiko talde batek 1.700 emakume erabiltzailerentzako trebakuntza eta laguntza bermatu zuen. Gainera, 18 hizkuntza ezberdinetan Txinan dauden GKEei buruzko informazioa ematen zuen espazio elektronikoa sortu zuten, eta bere web orriak 100.000 bisitaldi izan zituzten (19). Lehenengo aldiz, eta Txinara fisikoki bertaratu gabe, munduko emakume guztiak Biltzarra on line jarraitu eta beren iritziak denbora errealean azaldu ahal izan zituzten. "Biltzarreko saioetan mundu guztira bidalitako mezu elektronikoei esker, Pekinera joan ahal izan ez ziren taldeek informazioa

(16) <http://www.gn.apc.org>

(17) <http://www.alainet.org>

(18) Interneteko emakume-sareen historiari buruzko azalpen gehiago Montserrat Boixen "La comunicación como aliada. Tejiendo redes de Mujeres" testuan. AMECOK argitaratutako *El Viaje de las Internautas. Una mirada de género a las nuevas tecnologías* liburitik ateratako dokumentua. <http://www.mujiresenred.net>

(19) Irene León Pekingo komunikazio-taldeko ALAIko kazetariaren testuetatik ateratako datuak.

eskuratu ahal izan zuten, ia gertakizun haren berri eman ez zuten komunikabide tradizionalen menpe egon beharrik gabe. Biltzarrean komunikazioa emakumeak boteretsuago bihurtzeko tresna gisa erabiltzea aldarrikatu zen, eta komunikabideen demokratizazioa eskatu zen. Horrez gain, emakume-taldeek esploratu beharreko beste bide batzuk zeudela egiaztatu zuten, aurkitu eta okupatu beharreko mundu berri bat zegoela; eta mundu horretan agian baloreak alderantzikatu ahal izango zituztela, oraindik manipulatu gabe dagoen espazioa emakumeen borrokarako erabiltzeko" (20).

Pekingo Emakumeen Munduko Biltzarrean, lehenengo aldiz komunikazioa oinarrizko Giza Eskubideetako bat bezala aldarrikatu zen, eta emakumeek eskubide-berdintasunaren aldeko borrokarekin lortu nahi duten aldaketa sozialerako funtsezko elementu estrategiko bezala. "Indarren arteko harremana alderantzikatu egin dezakegu, edukiak eta praktikak baditugulako. Gakoa haiek baloratzea da. Ezinbestekoa da estrategia erasotzaile bat edukitzea, oldarkorra den estrategia bat. Ez dugu ezer galtzeko, dena dugu irabazteko. Horrela bakarrik aldatu ahal izango dugu mass-mediak ematen duten emakumearen irudia: aktorea gisa (egileak, kontzeptugileak, artistak, erreality-izadoreak...), pertsona gisa (eguneroko bizitza, politika, lana, indarkeria...), publiko gisa" dio Joelle Palmierik, ekonomiara aplikaturiko Informatika Zientzian espezializaturiko ziberfeminismo sozialaren ekintzaileak. Palmierik 1996ko ekainean "Penélopes" (21) sarea sortu zuen Frantzian. Sarea aitzindaria izan zen Interneten bidezko telebista-programetan emandako eduki feministadun soinu eta bideoen esperimentazioan.

Sare elektronikoek beste dimentsio bat eskaintzen diote borroka feministari. "Sareak ziberfeminismoari erabat ezberdina den baliabide bat eskaintzen dio. Horregatik, ziberfeminismoa aurreko bolada feministekiko erabat desberdina da. Feminismo tradizionalan –Faith Wildingek dio (22)–, emakumeak sukaldeetan, elizetan, biltzarretan eta kaleetan fisikoki elkartzen ziren. Feminismoaren lehenengo fasearen antolamendu zelularra joskintza-zirkuluak, bekatari taldeak edo emakumeen karitate-erakundeak izan ziren. Emakumeak pribatuan biltzen ziren askapen politikoa eta legala lortzeko kanpaina publikoak prestatzeko. Emakume talde hauek beren etxeetan isilean gordetako bakardadearen kontra borrokatzen zuten, eta matxinada femeninoaren eta aktibismoaren zeinu publikoa bilakatu ziren. Emakumeek elkarrekin jarduten zuten, jendaurrean hitz egiten zuten, kaleetara denak batera irteten ziren, eta bizitza publiko hankaz gora jartzen zuten, emakumeentzako debekaturik zeuden lurralde politikoak irekitzen zituzten ekintzen bidez. Feminismoaren bigarren bolada hirurogeiko hamarkadaren hasieran gertatu zen, eta emakumeak berriro ere elkartzen hasi ziren ekintzak prestatzeko (...). Garai hartan, feministak taktika berri bat menperatzen hasi ziren, mass-mediatan aurkakotasun-ikuskizunak sortuz. (...) Monumentu patriarkal guztiek Estatu Batuetako mugimendu feministen erasoak jasan zituzten; haien artean Miss America Pegeant, Playboyren bulegoak eta klubak, Wall Street, Metropolitan Museum of Art, Pentagonoa eta Etxe Zuria zeuden. Zerbait gertatzen zen bakoitzean, komunikabide berriek emakumeen zakarkeria iraingarri haien berri ematen zuten. Taktika horiei esker, feminismoaren hazkundearen berriak Estatu Batuetan eta nazioartean hedatu ziren. (...) Feminismoaren hirugarren boladan (feminismo kulturala, ekologista, teorikoa, sexu positibozkoa, lesbikoa, pornografiaren aurkakoa, kultur anitzekoa, etab.) –sarritan postfeminismoa deitzen zaio–, emakumeek ekintza eta

---

(20) *El viaje de las Internautas*. 32. or.

(21) <http://www.penelopes.org>

(22) "Notas sobre la condición política del Ciberfeminismo" [http://www.creatividadfeminista.org/articulos/ciber\\_artensamble.htm](http://www.creatividadfeminista.org/articulos/ciber_artensamble.htm)

matxinadazko estrategia publikoak erabiltzen jarraitu zuten. Ildo horretan, kasu interesgarri bat Emakume Aktiboen Koalizioaren (WAC) bizitza laburra baina bizia izan zen. Koalizioa New Yorken sortu zen 1991. urtearen amaieran, Estatu Batuetako emakumeak sumindu zituzten hainbat gertakariren ondorioz: Hill/Thomas lekukoen azterketa (epaiketa) dramatikoa, nazio osoan telebistaz eman zena; William Kennedy Smith eta Mike Tyson-i bortxaketagatik egindako epaiketa, eta abortu-eskubideei buruzko borroka judizialak. Horren guztiaren ondorioz, emakumeek gizartearen, sexuaren eta ekonomiaren eremuari eta zapalketa- eta indarkeria-politikari "gogor eta modu ikusgarri batean aurka egiteko" unea iritsi zela ikusi zuten. WAC berehala masa-komunikabideak erakartzen hasi zen, ekintza ikusgarri batek beste bat ekarriko balu bezala. Lehendabiziko urtean zortziehun emakume WACeko kide egin ziren, eta kide kopurua handitzen joan zen Estatu Batuetan eta Kanadan. Hasierako ekintza horien arrakasta komunikazio eraginkorrari eta WACek berehala sarean antolatu zuen lan-sistemari esker lortu zen. Sistema horretan, konexio telefonikoaren eta faxaren, e-mailaren eta mass-mediaren harremanen arteko konbinazioa erabakigarria izan zen. Zentzu horretan, WAC antolakuntza protoelektroniko goiztiarra izan zela esan dezakegu. Emakume asko motibatuz eta antolatuz, WACek aktibismo feminista indartu zuen, eta Estatu Batuetan lurralde feminista tradizionalen aurrean erantzuteko modu berri bat ekarri zuen".

### **MUJERES EN RED, FEMINISMOENTZAKO ESPAZIO KOMUN BIRTUALA**

I

997ko abuztuan, Mujeres en Red (23) sortu zen Espainian. Gaztelerazko espazio honek munduko emakume-taldean eta talde feministen artean informazioa eta estrategiak

trukatzeko eta harremanak sendotzeko bilgune bat eskaintzen du, eta feminismoari eta generoari buruz Interneten sakabanaturik dauden baliabide guztiak biltzen ditu. Bere sorrerarako, Nodo 50 zerbitzari alternatibo espainiarraren (24) laguntza funtsezkoa izan zen. Nodo 50-en xedea kontra-informazioa egitea eta gizarte zibilarri Internet komunikazio-tresna gisa erabiltzen laguntzea da. Mujeres en Red gaika eta herrialdeka dago antolatuta. Zenbait urteren ondoren, munduko emakumeen web orri guztietara sartzeko erreferentziatzeko ataria bihurtu da. Bestalde, komunikabide tradizionaletan azaltzen diren estereotipo guztiak mundu birtualean errepikatzen dituzten emakumei buruzko web orri gero eta gehiago sortzen ari direla esan behar da. Aipatutako orrientzat, "emakumeentzako argitalpen" batek arrakasta izateko sukaldaritza, edertasuna eta moda ezinbestekoak dira, eta Mujeres en Red-ek alde batera utzi ditu, noski.

Sare elektronikoek aldaketa sozialerako tresna gisa eskaintzen dizkiguten aukerak alferrik galdu behar al ditugu? Emakumeekiko hain diskriminatzailea ez den mundu birtual bat eraikitzeke garaia da, horrelako aukerak gutxitan izango ditugu eta. Eta horretarako, ezin gara Teknologia Berrien erabileran gutxiengoa izan; asko izan behar gara, eta beraz, emakumeen trebakuntza tek-

(23) Mujeres en Red-i eta Interneteko emakume-sareen historiari buruz gehiago jakiteko: AMECOK argitaraturiko Montserrat Boixen *El viaje de las Internautas. Una mirada de género a las nuevas tecnologías*. II. kap. "La comunicación como aliada: tejiendo redes de mujeres". Liburua Mujeres en Red-en web orritik osorik jaitsi daiteke: <http://www.mujaresenred.net>

(24) <http://www.nodo50.org>

nologikoa ziberfeminismo sozialaren lehentasunetako bat izan behar da. Berez, emakume gero eta gehiago ari dira Internet erabiltzen, eta ziberespazioan gizon eta emakumeen artean dagoen desoreka txikiagotzen ari da. Baina Interneten gero eta gehiago izateaz gain, guretzako interesgarriak diren edukiak nahi ditugu. Horrela, Mujeres en Red-ek feminismoari buruz gogoeta egiteko eta emakumeen eskubideen alde borrokatzeko funtsezkoak diren testu asko biltzen eta argitaratzen ditu; gune horri esker, gainera, baliabideak ezagutu, aprobeztatu eta partekatu egin daitezke. Gure aurretik antzerako egoerei aurre egin zieten gogoetak edo estrategiak sortu zituzten beste emakume batzuen pentsamendua edo esperientziak ezin ditugu gutxietsi; ezagutu egin behar ditugu, beharbada aurrera egiteko abiapuntutzat erabili ditzakegulako. Historian zehar emakumeei egun gauden tokira iristea –aurrerapenak lurraldearen arabera diren arren– ahalbidetu diguten emakume horien genealogia berreskuratu behar dugu, eta euren ekarpenak aitortu.

Mujeres en Red-en prozesuaren alderdi garrantzitsuenetako bat posta elektronikoko zerrenden erabilera izan da. Zerrendak egunetik egunera handitu eta indartu dira, eta horrek aukera handiak eman dizkigu. Internet baliabideak partekatzeko erabili dugu, eta posta elektronikoa aktibismoarako, zerrenden bidez informazioa banatzeko. Elkarri loturiko milaka helbide elektronikoren bitartez, hainbat borrokarako indarrak batu ditugu, salaketak egin ditugu, mobilizatorako estrategiak sortu ditugu... komunikazioen globalizazioa sortzen ari den mundu berriaren alderdi positiboa da. Planeta osoa konektatuta egon daiteke; munduko emakumeak estatuak, erlijioak eta kulturak alde batera utzita denek jasaten duten patriarkatuaren aurka borrokatzeko bildu daitezke. Hizkuntza ezberdinetan dauden emakume-sare elektronikoei eta espazio komunei esker ordu gutxitan erreakzionatu daiteke; sare sozialekin loturiko emakume-sareak antolatu daitezke, edota "klik" bakar batekin munduko txokorik gordeenetara heldu. Hori guztia emakumeen 2000 Ibilaldian egiaztatu zen: Milaka emakume Interneten bidez harremanetan jarri eta koordinatu egin ziren, pobrezia eta genero-indarkeria salatzeko xede komunarekin. Kanadako ehun bat emakumek egindako proposamenak, izan ere, mundu zabaleko milioika pertsona mobilizatu zituen. Emakume guztiek bat eginik zerbait egin dezakegula frogatu dugu. Mundu birtualak eragina dauka eguneroko mundu ez birtualean, agitzioa eta mugimendua sortzen du gutxienez. Beraz, prozesua indartzeko estrategiak sortzea lortzen baldin badugu, Internet aldaketa-tresna erabakigarria bilakatuko da azkenean.

"Bere diseinu eta ikuskera originala dela-eta, sarea espazio femenino ezin hobea izan daiteke. Internet sare lau baten modura sortu zen; bere nodo guztiak berdinak dira, ez dago hierarkiarik. Edozeinek informazioa sortu eta hedatu dezake; gaitasun hori estrategia on baten eta sarearen eza-gutzaren esku dago, pertsona bakoitzak mundu ez birtualean duen indarrean egon beharrean. (...) Sarea lau denez, emakumeek bertan modu erosoago batean jardun dezakegu, eta elkarrekin harremanetan jarri gaitzke" dio Lourdes Muñoz, informatikako ingeniariak, Catalunyako Alderdi Sozialistaren emakumearen arloko arduraduna eta emakume politikarien lehenengo sare elektronikoaren (25) sortzailea denak. Emakumeek gure denboraren zati bat xede horretarako eman behar dugu, denok zerbait irabazi dezagun; kultura berri bat sortu behar dugu, nahiz eta batzuetan kultura hori ulertzeko zaila izan. Emakumeek indarrak batu behar dituzte, patriarkatuaren egitura sakonak aldatzeko behar den "botere handiagotzea" lortzeko eta bidezko eta berdintasunezko mundu bat eraikitzeko. Hori da ziberfeminismo sozialaren helburua.

Kanadan "Cybersolidaires" (26) sortu duen Nicol Neptonek zera dio: "feministek soluzio osagarriak aurkitu behar dituzte. Emakume gutxi aritzen dira informatikan; horietako asko Web gune

(25) [http://www.nodo50.org/mujeresred/l\\_muñoz-nuevas\\_tecnologias\\_y\\_politica.html](http://www.nodo50.org/mujeresred/l_muñoz-nuevas_tecnologias_y_politica.html)

(26) <http://www.cybersolidaires.org/>

bat egiteko gai dira, baina "feminista" hitza entzuten duten bakoitzean ikaratu egiten dira, eta hori saihestea lortu behar dugu. Emakume gazteei komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak kontrolatzen ikastera animatu behar zaie, eta mugimendu feministaren errealitatea erakutsi behar zaie: mugimendua gero eta globalagoa, anitzagoa eta erakargarriagoa dela, alegia". "Cybersolidaires" ezinbesteko erreferentzia bilakatu da mundu frankofonoan, emakumeek trebakuntza-dossierretan eta ziberaktibismo feministan oinarrituriko teknologia berriak erabiltzeari buruzko gogoeta egiten duten web orrirentzat. Latinoamerikan sare eta gune ziberfeminista asko daude; Afrikan Famafrique (27) APC-emakumeak guneak trebakuntza-programak koordinatzen ditu, eta Asian gauza bera gertatzen da. Ziberfeminismo soziala gero eta gehiago hedatzen ari da, eta gero eta indar handiagoa hartzen. Aipatutako mugimenduen ekintzak, teknologia-ezagutzak eta bideak desberdinak dira, baina denek helburu bera dute. Sinadura baten atzean dagoen sexua alde batera utzita, eta gizon batek sarean aukera birtualak trabestitzeko erabiltzea alde batera utzita, garrantzitsuena defendatzen diren politikak estrategia feministak izatea da. Ziberfeminismo soziala alternatiba gero eta interesgarriagoa bilakatzen ari da. Emakumeek sarean gure berezko lurraldea sortzea lortu dugu. Ez da lurralde eskusiboa; baina komunikabide berri honetan gure arauak jaritzeko gai garela frogatu dugu –Wildingek aldarrikatzen duen legez-, espazio birtualean patriarkatuaren aurka lehiatuz.

#### **ZIBERFEMINISMOAK BAT EGITEN DU SOFTWARE LIBREAREN ALDEKO MUGIMENDUAREKIN**

N

ire hitzaldia amaitzeko, hasieran azaldutako gaietako bati berriro ekitea nahi nuke. Sareko etika berriari buruz aritu naiz; baliabideak eta ezagutzak partekatzeaz; informazioa eta komunikazioa trukatzeko;

kontra-informaziozko, informazio alternatibozko edo aurkako informaziozko espazioen bidez gizarte zibilaren elkarreragina sustatzeaz. Gaur egun edozein pertsona bihurtu daiteke igorle, eta Interneten bere informazioa "eseki" dezake; jadanik ez da beharrezkoa informatika-ezagutzak izatea. Software libreko programak hori guztia sustatzen ari dira. Adibide gisa Indymedia (Independent Media Center) aipa dezakegu. Indymedia Seattle-en sortu zen globalizazioaren aurkako mugimenduaren adierazpen-tresna modura, eta bere bilakaera oso interesgarria izan da.

Internet eta mugimendu feministari dagokionez, urte honen erdialdera "Penélopes" talde frantziarrak bere web orriaren edizioan software librea erabili zuen, bere estetika eta lan-filosofia nabarmen aldatuz.

Emakumeak sarean ere software librea erabiltzen hasi da —edizioko SPIP programa, hain zuzen ere-, ezagutza tekniko handiak izan beharrik ez duten emakumeen lanak sarean argitaratzeko. Gainera, "emakumeak sarean, software libre eta ez-sexistaren alde" izeneko informazio eta prestakuntza gune bat zabaldu du. Gune horretan, software librearen erabilera bultzatzeaz gain, programetan eta eskuliburuetan, software jabearen (administratzailea, erabiltzailea eta abar) ohiko hizkuntza sexista alde batera utzi behar dela azpimarratzen du.

Bukatzeko, nire kide kazetariei zerbait esan nahi nieke. Dударik gabe, une honetan kazetariak komunikabide berri hauetan duten eginkizunari buruzko gogoeta egin beharra dago. Gizarte zibila informazioan eta komunikazioan ahalik eta partaidetza handiena izatea sustatzea ez du zertan kazetaritzaren eginkizunaren kontrakoa izan behar. Sarean bitartekotza-lana egitetik informazioa

(27) <http://www.famafrique.org/site/pagegarde.html>

kudeatzera, lurralde zabala dugu gure aurrean. Lurralde horri eremu profesionaletik heldu diezaiokegu, sarea ez hain kaotikoa eta eraginkorragoa bihurtzen lagunduz, egiazkoagoa, demokratikoagoa eta hain diskriminatzailea ez den informazioa lortzeko.

**HITZALDIAN EMANDAKO  
INFORMAZIOARI BURUZKO  
WEB ORRIAK:**

MUJERES EN RED

<http://www.mujaresenred.net/>

VICTORIA SENDÓN

El hacktivismo en la teoría

[http://www.nodo50.org/mujeresred/victoria\\_sendon.html](http://www.nodo50.org/mujeresred/victoria_sendon.html)

La ética hacker – Pekka Imanen

<http://www.lavanguardia.es/web/20020312/23073590.html>

EL VIAJE DE LAS INTERNAUTAS. Una mirada de genero a las nuevas tecnologías.

[http://www.nodo50.org/ameco/el\\_viaje\\_de\\_las\\_internautas.html](http://www.nodo50.org/ameco/el_viaje_de_las_internautas.html)

CRIS

[http://www.comunica.org/cris/home\\_es.htm](http://www.comunica.org/cris/home_es.htm)

INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN MUNDUKO GAILURRA

<http://www.itu.int/wsis/fr-es/basic/basic03.htm>

**HACTIBISTAK**

Nazioartean

<http://www.thehacktivist.com/>

Espanian

<http://www.sindominio.net/wh2001/>

ELECTRONIC CIVIL DISOBEDIENCE

<http://www.thing.net/%7Erdom/ecd/ecd.html>

The Electronic Disturbance Theater and The Electronic Civil and The Electronic Civil Disobedience

<http://www.thing.net/%7Erdom/ecd/EDTECD.html>

Azken ekintzen artean: Juarezeko emakumeen hilketaren zalaketari eutsi  
<http://www.geocities.com/pornuestrashijas/>

#### ZAPATISTAS EN EL CIBERESPACIO

<http://www.eco.utexas.edu/Homepages/Faculty/Cleaver/zapsincyber.html>

Digital Zapatismo by Ricardo Domínguez

<http://www.thing.net/%7Erdom/ecd/DigZap.html>

APC

<http://www.apc.org>

IGC

<http://www.igc.org>

GREEN NET

<http://www.gn.apc.org/>

Zer da apc?

<http://www.apc.org/espanol/about/index.shtml>

APCko kideak

<http://www.apc.org/espanol/about/members/index.shtml>

APC emakumeak-en historiari buruz gehiago jakiteko

<http://www.apc.org/espanol/about/programs/women.shtml>

Nodo 50 APCren kide ohia Espainian

<http://www.nodo50.org>

#### **LATINOAMERIKAKO zerbitzariak...**

La Neta – México

<http://www.laneta.org/nuevaneta/Index3.shtml>

ALAINET – ECUADOR

<http://www.alainet.org/>

Movimientos Sociales en la Red liburua

<http://www.alainet.org/publica/msred/>

#### **SOFTWARE LIBREA**

GNU/Linux proiektua – Proiektuaren filosofia

<http://www.gnu.org/philosophy/philosophy.es.html>

Espainiako zerbitzari bat: Sindominio  
<http://www.sindominio.net>

ESPAINIAKO HACKLAB-AK  
<http://www.sindominio.net/wh2001/>

## **ZIBERFEMINISMOAK**

VNSMatrix  
<http://sysx.org/vns/>

MANIFIESTO DE LA ZORRA MUTANTE  
Jatorrizko bertsioa  
<http://sysx.org/vns/manifesto.html>

Gazteleraizko bertsioa  
[http://www.estudiosonline.net/texts/vns\\_matrix.html](http://www.estudiosonline.net/texts/vns_matrix.html)

## **DOLL YOKO**

Doll Yoko – Yoko panpina –  
VNS Matrix-eko kidea den Francesca de Riminik sortutako Net Art-eko lana

"Historia guztia pornografia hutsa da. Gerrak beren alabekin larrua jotzen duten gizonek egiten dituzte"  
<http://www.thing.net/~dollyoko/doll02c.htm>

Doll Yokoren historiarentzako musika  
<http://www.thing.net/~dollyoko/dollspace.ram>

OBN  
<http://www.obn.org>

MANIFIESTO  
Manifiesto 100 anti-thesis – Kassel 1997  
[http://www.obn.org/reading\\_room/manifestos/html/anti.html](http://www.obn.org/reading_room/manifestos/html/anti.html)

FAITH WILDING  
FourRoses taldean egindako bere azkeneko lanak  
BioTech Sex and Gender Education Show  
<http://www.cyberfeminism.net/SexGenEd/index.html>

SUBROSA –Wilding kide den taldea  
<http://www.cyberfeminism.net/subrosa/index.html>

CIBERFEMINISMO.NET - Wilding  
<http://www.cyberfeminism.net/index.html>

## ZIBERFEMINISMO SOZIALA

APC WOMEN

<http://www.apcwomen.org>

Mujeres en Red

<http://www.mujaresenred.net>

Creatividad Feminista - Mexico

<http://www.creatividadfeminista.org>

Penelopes - Frantzia

Bere web orria egiteko software librea erabili duen lehenengo talde ziberfeminista

<http://www.penelopes.org/>

Cybersolidaires - Kanada

<http://www.cybersolidaires.org/>

Famafrique – ENDA – Senegal

<http://www.famafrique.org>

## INFORMAZIO ALTERNATIBOKO ESPERIENTZIAK

Indymedia

<http://www.indymedia.org>

Indymedia Barcelona

<http://www.barcelona.indymedia.org>

Indymedia Euskalherria

<http://euskalherria.indymedia.org/>

Indymedia Madrid

<http://www.madrid.indymedia.org>

# **1. MAHAI-INGURUA: GENERO HARREMANAK HEDABIDEETAN: BARNETIKO BEGIRADA BAT**

MERTXE AIZPURUA

Garako zuzendaria

JULIO IBARRA

ETB2ko Teleberriaren zuzendaria

NEREA AZURMENDI

Zabalik-eko zuzendaria

JULIO FLOR

Canal Bizkaiako erreportaje- eta  
elkarrizketa-programen zuzendaria

MONTSERRAT LLUIS

El Correoko erredaktorea

**H**edabideak egungo sistema sozialaren eragile nagusiak bihurtu dira, baloreak transmititzen dituzten eta gizarte konplexu bat islatzen duten neurrian. Lehenago, kultura, baloreak eta pentsatzeko eta sentitzeko moduak transmititzeko eginkizun soziala familiak zeukan, eta, egun, hedabideek, belaunaldi gazteenentzako ikus-entzunezkoek bereziki, egiten dute lan hori.

Horregatik, ezinbestekoa da eremu horretan lan egiten dugunok gizartearen alor guztietan eragina duen faktore horretaz jabetzea, emakumearen informazio-tratamenduan, gainera, garrantzia handia duelako.

Albisteei ematen diegun balioa ez da balio neutroa izaten, eta azken hamarkadetan hedabideetan egiten den emakumearen irudikapena hobetzen joan den arren, oraindik ez da lortu bi generoen irudikapenari tratamendu bera ematea.

Hori egiaztatzeko, informazio-gaurkotasunaren protagonistak zeintzuk diren aztertu besterik ez dugu egin behar: "garrantzitsutzat" hartu izan ohi diren informazio-eremuetan, hau da, politikaren, ekonomiaren eta kirolen esparruan, gizonak agertzen dira ia beti. "Bigarren mailakotzat" hartu ohi diren ataletan (gizartea, kultura), ordea, bi generoen arteko desoreka txikiagoa da eta emakumea albiste baten protagonista izatea normalagoa da. Desberdintasun horrek erakusten digu eremu publikoa gizonekin eta eremu pribatua emakumeekin lotzeko betiko joera horrek hor jarraitzen duela, nahiz eta aurrerapen handiak egin diren.

Zorionez, uste dut irakurleen interesak eta eskaerak aldatzen ari direla, idatzizko prentsan politika eta ekonomia baino zerbait gehiago aurkitu nahi dutela. Orain arte "garrantzi txikiko" gaitzat hartu izan direnak, egunerokoagoak, herritarren interesa bereganatzen ari dira; eta, beharbada, interes-aldaketa horrek emakumeek hedabideetan duten presentzia hobetuko du.

Berdintasunezko eta sentsibilitatezko ikuspuntu batetik eremu publiko eta pribatuen berri ematen duen kazetaritza lortzeko, argi dago hedabideetan lan egiten dutenek informazioetan nabari den sexismoari aurre egiteko konponbide bat aurkitu behar dutela. Horretarako, ordea, ahalegin handiak egin behar dira: etengabe adi ibili behar gara eta geure burua aztertu behar dugu, hedabideetan lan egiten dugunak, gehienak behintzat, hainbat sexismo motaz inguraturik hezi gintuztelako, haiek normaltasun sozialtzat hartzen erakutsi zigutelako.

Egia da zuzendaritzak finkaturiko argitaratze-ildoek hedabide baten edukiak baldintzatzen dituztela. Zentzu horretan, hedabide baten zuzendaritza-taldeak gai horri dagokionez duen jarrerak edo ardurak eragin handia izango du irakurleek, entzuleek edo ikusleek jasotzen duten informazioan.

Bestalde, zuzendaritza-karguetan edo atal bateko buruzagitzan emakumeak egongo balira, informazio-errealitateari buruzko ikuspuntua desberdina izango litzateke seguruenik, han erabakitzen baitira gaiak eta albisteak aurkezteko ordena.

Nolanahi ere, hedabideek islatzen duten lengoia edo komunikazio sexista hori ez da bakarrik oinarritzen termino semantikoetan edo maskulinoa unibertsaltzat hartzeko joeran. Informazioaren munduan lan egiten duen norbait egoeraz jabetzen bada, zenbait inertzia hautsi ditzake. Hain zuzen ere, inertzia horiek bultzatuta inkontzienteki sexistak diren hitzak erabiltzen ditugu; esate baterako, "los ciudadanos" esaten dugu "la ciudadanía" esan beharrean. Beste adibide batzuk memoriaren tolesen artean ezkututzen dira; oso finak dira eta, agian, antzemateko zailagoak. Hori gerta-

tzen da, adibidez, erreportaje batean emakumeak "femeninotzat" hartzen diren baloreekin lotzen dituztenean, edota emakume politikari bati egindako elkarrizketa batean haren arropen "dotoretasuna" azpimarratzen denean, edo emakume idazle bati aldi berean ama eta idazlea izateko nola moldatzen den galdetzen diotenean. Inertzia kultural horiek, beharbada, baztertzeko zailenak dira; haien erruz, esaterako, gizonek eta emakumeek kiroletan lortutako arrakastari ez zaio tratamendu bera ematen, edo haurtzaroari buruzko testu bat irudizatzeko, haur-kotxe bat paseatzen dabilen emakume baten argazkia jartzen da.

Alabaina, hedabideek balore sozialen transmisore gisa duten eragina aztertzerakoan eztabaida-ezina den zerbait dago. Hots, ikus-entzunezko bideek belaunaldi gazteenetan duten izugarritzko eragina. Egun, telebista, zinema eta bideojokoak dira etorkizuneko gizartea osatuko duten pertsonen eremurik etxekoenak, eta belaunaldi horien baloreak izango dira nagusituko direnak. Bere berrietasuna dela eta, generoaren tratamenduari buruzko ikerketek ez dute alor hori ia aztertu, baina etortzear dagoen etorkizuneko gizartearen eraketan alderdi erabakigarriena izango da.

**EGUNEROKO ERRUTINA.  
AZKEN PRODUKTUAN  
DAUKAN ERAGINA**

**E**guneroko errutina erlojuaren kontrako borroka da zuzeneko programa bati buruz ari garenean, eta, hain zuzen ere, horixe da albistegien kasua.

Euskal Telebistan ez dago estilo libururik, ez dago albistea lantzen duenaren hizkuntza mugatzen duen orientabiderik, eta, ondorioz, hizkuntza ez sexistaren aldeko apustua profesional bakoitzaren borondate, kontzientzia eta jarreraren menpe dago.

Lehenik eta behin, informazioari arazoaren jakitun izanda heltzea da gakoa, eta ondoren etorriko da horrek sarritan dakarren lan handiagoa norbere gain hartzea.

Hezkuntza nahiz urte askoko eskarmentua dela-eta adierazpide jakin bat lortzen dugu. Adierazpide jakin horrek ez du aintzat hartu hizkuntza bidezkoagoa erabiltzeko beharrezana eta are gutxiago talde baztertuen, hala nola, emakumeen, aldeko bazterketa positiboaren aldeko apustua egitea.

Eskema automatiko horiek alde batera utzi eta hizkuntza ez sexistako beste eskema batzuk hartu beharrak eragiten du lan handiago hori. Hizkuntza ez sexistaren hori, gainera, ahozko hizkuntzan eta hizkuntza idatzian ez ezik, ikusizko hizkuntzan ere islatu beharra dago.

Demagun haurtzaroari buruzko erreportaia bat egin behar dugula eta parke publiko batera goazela. Kontuan hartuta, lehen ere esan dudana legez, erlojuaren kontra lan egiten dugula eta gauzak ahalik eta arinen egin behar izaten ditugula, gauzarik erraz eta praktikoena izango litzateke umeen zenbait plano hartzea, beste barik; baina, beharbada, hori egiten badugu, ikusiko dugu umerik gehienak amek lagunduta daudela, edo emakume zaintzaileraren batek, etab. Horrenbestez, minutu bateko erreportaia batean igortzen dugun irudiak, nahigabe bada ere, borrokatu nahi ditugun eskemak erakusten ditu. Irtenbidea: hara-hona ibiliko gara inguruan, harik eta seme-alabak zaintzen dauden gizonezkoen planoak lortzen ditugun arte. Eta ama baten hitzei aita baten hitzak gehituko dizkiogu, erreportaia orekatuz. Denbora gure kontra egongo da; ez daukagu obligaziorik; beste edozein pertsonak legez, lana ahalik eta azkarren amaitu nahi izaten dugu. Azken finean, ahalegin horrek militantziaz oso gertu dagoen kontzientziazioa eskatzen du sarritan.

**HIZKUNTZA SEXISTA**

**H**izkuntza sexistaren egon badago eta luzaroan egongo da; izan ere, emakumeek beraiek ere ez daukate argi, oro har, bide alternatiboak jorratu beharra.

Ahots askok aldarrikatzen du maskulinoaren neutraltasuna, komunikazioaren beste esparru batzuei emanez garrantzia, besteak beste, gaiak aukeratzeari edo albiste izan daitezkeen eta estereotipo tipikoak ez diren gertaeretan emakumeak sartzea. Nire ustez, saturazio irrigarrira heldu gabe ere, positiboa da hizkuntza behartzea izen generikoak erabiliz, hala nola, ciudadanía ciudadano

erabili beharrean, edo pluraltasuna markatuz, neska-mutikoak, mezuaren hartzailleak keinuaz ohar-tu eta bere egin dezaten.

Hori guztiori ahozko hizkuntzari eta hizkuntza idatziari dagokienez; ikusizko hizkuntzari dago-kionez, berriz, adierazi dut dagoeneko zein izan daitekeen bidea. Gero, kontzeptu globalago bat ere badago, hau da, programak markatu nahi duen ildo editoriala.

Ez da gauza bera Emakumearen Nazioarteko Egunari protagonismo osoa ematea albistegia ire-kiz edo albistegiaren erdian labur-labur ematea albistea. Era berean, ez da gauza bera Emakumearen Nazioarteko Eguna eta Diabetearen aurkako Nazioarteko Eguna parekatzea, ez eta Irun eta Hondarribiako Alardearen gatazka ordena publikoko arazotzat hartzea, horren azpian oi-narrizko eskubideen ukatzea dagoenean.

Apustu hori egiteak baditu arriskuak; are gehiago, botoak galtzeko beldurragatik beraien jarre-ra modu irekian azaltzeko adorea ez duten alderdi politikoek fiskalizatutako komunikabide publi-ko baten kasuan.

Aukera profesional bakarra Epaitegien epaiak aintzat hartzea da; izan ere, gizarte-justiziako kontua da... Horrela, bada, militantzia kontua izaten jarraitzen du.

**ERRUTINA PROFESIONALEK  
BERRIEN HIERARKIZAZIOAN  
ETA ERREALITATE  
INFORMATIBOAREN  
ERAIKUNTZAN DUTEN  
ERAGINA. NOLA ERAGITEN  
DIOTEN INFORMAZIOAREN  
ESPARRUAN SEXUEK DUTEN  
ERREPRESENTAZIOARI**

Gero eta gehiago, kazetariok "errealitate informatiboa" edo dena delako hori eraikitze-ko darabilgun lehengai nagusia jada erdi-egosita heltzen zaigun informazioa da: ohar-rrak, txostenak, prentsaurrekoak... Prentsa eta komunikazio bulegoen bidez, areagotu baino ez da egin azken urteetan iturri pribatu zein publikoek informazioa jada prozesatua igortzeko joera, eta horren aurrean kazetariok nahiko akritiko gara; hau da, hori bilakatu da hein batean gure lan-errutina. Horrek esparru askotan du eragina –gure lanbideari buruzko gogoeta sakona bultzatu beharko zukeen eragin izugarria, gainera–, baita sexuen errepresentazioari dagozkion arazoetan ere. Kazetariok informazioaren transmisio katean aparteko eraginik gabeko bitartekari bilakatzen ari garenez –gehienetan, gure esku-hartze nagusia iturri batzuk hobestera eta beste batzuk gaitzestera mugatzen da, norberaren eta, batez ere, norberaren medioen konpromisoen arabera–, ontzat ematen dugu "jasotzen" duguna galbahe kritikotik pasa gabe. Beraz, sexuen errepresentazioari dagokionez ere gauza bera egiten dugu maiz; iturriaren joerarekiko mimetismoz jokatzeko dugu, ekarpen testimonialak salbu aparteko ekarpen berezirik egin gabe. Horrenbestez, arazo zabalago baten isla baino ez dira alor horretan ditugun gabeziak. Erantzun zehatzik nahi izatekotan, hona: bai, errutinak –okerreko errutina jakin horrek, alegia– eragin izugarria du hizpide dugun alorrean.

**HIZKERA SEXISTA ERABILTZEN  
AL DUGU MEDIOETAN?  
NEUTROTZAT HAR DEZAKEGU  
MASKULINOA? ZUZENA  
IRUDITZEN AL ZAIZU  
ERREDAKZIOETAN GAI HAU  
EZTABAIDATZEA? NOLA  
HARTZEN DU HORI ZURE  
HEDABIDEKO JENDEAK? ZER  
GARRANTZI DU HIZKERA  
SEXISTA ERABILTZEAK? ZEIN  
NEURRI ZUZENTZAILE  
IRUDITZEN ZAIZKIZU  
EGOKIENAK?**

Euskaraz lan egiteak, itxuraz bederen, zertxobait arintzen du arazoa. Genero marka gatzelerazkoa baino arinagoa den heinean, errazagoa da arazoa konpontzea; neurri zuzentzaile gutxiago hartu behar dira. Ustezko "erraztasun" horrek, ordea, arazoaren benetako dimentsioa uzten du agerian. Izan ere, nire ustez arazo nagusia ez da joera politiko zuzenaren gutxieneko arauak bete eta horrekin pozik geratzea. "Vascos y vascas" edo "hombres y mujeres" etengabe errepikatzeak ez du arazoa konpontzen. Aitzitik, benetako arazoa estaltzeko ere balio dezake gutxieneko baldintza formal horiek betetzearekin dena eginda dagoela pentsatzeak eta norberaren burua horrelaxe justifikatzeak. Arazoa, izan ere, kontzeptuala da, eta ez soilik formala. Genero biak erabiltzeari ondo deritzot, baina askotan komunikazioaren eragingarritasuna ere oztapatzen

du, batez ere hedabideetan. Aukeran, nahiago nuke maskulinoa neutrotzat hartuta ere emakumeen ekarpen eta errealitatea ikuspegi zuzenago batetik landuko balitz. Hau da, larriagoa iruditzen zait berriarekiko hurbileta egiterakoan nagusi den sexismoa arazo formala soila baino, hizkera sexista baino askoz arriskutsuagoa iruditzen baitzait mentalitate sexista. Auzia konpontzeko neurriei dagokienez, bi aipatuko nituzte, alor guztietan hartu beharko lirakekeen arau orokorrez gain: kazetariaren prestakuntza eta hedabideen errealitatera egokitutako baliabideak. Oinarrizko hezkuntza ahaztu gabe, unibertsitateak –kazetaritza fakultateek, alegia– aparteko ahalegina egin beharko luke kazetarigaiak horretan trebatzeko orduan. Eta oraingoz, bederen, ez dut horrelakorik antzeman. Gauza bera esango nuke baliabideei buruz. Kazetariok hizkuntzan adituak direnek prestatutako tresnak behar ditugu, arazoa oker handirik egin gabe konponbidean jarri ahal izateko.

### **NORBERAREN HEDABIDEAN DAGOEN EGOERA**

**N**

ik lantoki dudan komunikabidea, alde askotatik begiratuta ere, salbuespena dela uste dut. Izan ere, emakumeak gara nagusi kopuruari dagokionez, eta arduradunak ere –erre-

dakzio arduraduna, ni neu eta kudeaketaz arduratzen den lankidea– emakumeak gara. Horrek, du-darik gabe, eragina du produktuaren edukietan zein gaien trataeran. Ez dugu ikuspegi militantetik lan egiten, baina emakumeon egoera, bizipenak, interesak eta arazoak ondotxo ezagutzen ditugunez, esango nuke nolabaiteko "diskriminazio positiboa" egiten dugula –era inkontzientean, askotan–. Gai asko ikuspegi desberdinetik fokatzen ditu emakumeak, eta emakumeak nagusi diren erredakzio batean –bai lanean, baita lan baldintzetan eta lan harremanetan ere– hori igarri egiten da. Zuzendaritzan emakume bat egotea bezain garrantzitsua iruditzen zait erredakzioan emakume eta gizonezkoen arteko presentzia orekatua izatea; zuzendariak gainerakoek ekarpen eta irizpideak indargabetzen dituen joera autoritarioa ez badu bederen. Eta hori hala balitz eta emakumearen tra-taera hobea ekarriko balu ere, konponbidea arazoa baino onartezinagoa irudituko litzaidake...

Hala ere, kasualitateari egotziko niokeen egoera partikular horrek ez du egoera orokorra batere aldatzen. Inguruko hedabide gehienei begiratzea besterik ez dago gauzak zertan dauden ikusteko. Horrez gain, beste puntu bat azpimarratu nahiko nuke, gure hedabideari ere eragiten diona. Komunikabide baten baitan hartzen diren erabaki asko erredakzioari dagozkio, eta horregatik da garrantzitsua emakumeek gero eta leku handiagoa izatea bai erredakzioetan baita erredakzioari lotutako ardura postuetan ere. Hor dagoen hutsunea handia izanik, askoz handiagoa, eta erabakigarriagoa, iruditzen zait, ordea, emakumeek hedabideen egiazko aginte mailetan –administrazio kontseiluetan eta gestioari lotutako goi-postuetan– duten hutsunea. Azken batean, maila horretan hartzen dira eguneroko lanari eta lan baldintzei eragiten dieten erabaki estrategiko handiak, eta esango nuke hor ez dagoela ia batere emakumerik. Komunikazioari lotutako enpresak gizonezkoek zuzentzen dituzten enpresak dira, oro har. Erredakzioek adabakiak jar ditzakete, baina ez dute inolaz ere arazoa konponduko.

**FAMILIARI LOTUTAKO  
ARDURAK. NOLA ERAGITEN  
DIOTE EMAKUMEEK DITUZTEN  
ETXeko ARDUREK AURRERA-  
-EGITE PROFESIONALARI?  
ZEIN DA ZURE HEDABIDEAN  
DUZUN EGOERA? ZEIN  
ALDAKETA EZARRIKO  
ZENITUZKE FAMILIAN ETA  
LANTOKIAN EGOERA  
BERDINTASUNEZKO EGOERA  
BULTZATZEKO?**

K

azetariaren lanak ezaugarri jakin batzuk ditu, berezkoak. Hedabide bat ez da ordutegi jakin bati atxikitako aurrezki kutxa edo funtzionario leihatila. Biharamunerako testu bat idazten uste baino gehiago luzatu bazara eta umeen bila joan behar baduzu, ezin duzu orrialdea bete gabe utzi. Zu lantzen ari zaren edo landu ohi duzun gai bati buruzko gertakariaren bat jazotzen bada, elkarriketatugai batek ondo ez datorkizun ordua ematen badizu, halakok prentsaurrekoa ordu desegokian jarri badu... Ezin diozu gaurkotasanari

zure beharretara egokitu dadin eskatu. Nola konpondu daiteke hori? Nire ustez, ez dago konponbide egokirik hedabidearen baitan. Hor ere badira adabakiak, noski. Badaude, noski, ordutegi eta lan baldintzei dagokienez beste batzuk baino erosoagoak diren lanpostuak. Eta emakume askok jotzen dute lanpostu horietara irtenbide gisara; egunero ikusten dugu hori erredakzioetan. Horretan ere bi maila bereiziko nituzke. Batetik, maila jakin bat lortu eta kazetaritzaren inguruko jarduera erdi librea lortu dutenak daude. Horiek aukera gehiago dute ordutegia euren beharretara egokitzeko, baina gutxiengo bat dira. Gehienak baldintza horietara egokitzen diren profil baxuko lanpostuak izan ohi dituzte, lan baldintza horiei eutsi nahi bazaie aurrera egiteko aukera gutxi eskaintzen dutenak. Badago, gainera, sailei buruzko aurreiritzi okerreko bat, sail "on" eta "serioak" politikara, ekonomia eta, oro har, aginteekin zerikusia duten alorretara mugatzen dituen, gizartea, kultura edota ordutegi aldetik-eta malguagoak izan daitezkeenak gutxietsiz. Nire ustez, aurreiritzi horiek gainditzea oso garrantzitsua izango litzateke, kazetariaren promozio eta karrera profesionalean eragina dute eta.

Eta beste puntu bat aipatu nahiko nuke: kazetaritzan dauden lan baldintza prekarioak. Soldatak txikiak dira –horrek asko zailtzen du, esaterako, ordutegi murriztua hartzea edota laguntza eskain dezakeen norbait kontratatzea–, zabor hutsa diren kontratu asko daude, segurtasuna oso txikia da, ordu asko sartu behar dira...

Konpongarriak eta konpondu beharrekoak diren faktore horiez gain, dena den, kazetaritzak aldatzen zailak diren ezaugarri asko dituela iruditzen zait.

Gure hedabideari dagokionez, astekari izateak malgutasun handia ematen dio kazetarion lanari, eta ordutegi aldetik ere malgutasuna dugu nagusi. Sei kazetari gara, eta ordutegi desberdina dugu guztiok –emakume zein gizonezko–, hala hitzartuta eta bakoitzaren beharretara egokitua. Hori, ordea, oso zaila irudituko litzaidake egunerokotasunaren presioa duen hedabide batean. Gure hedabidean, dena den, umeen inguruko ardurek berdintsu eragiten diete askotan –hori ere kasualitatea da– gizonezko zein emakumezkoen, eta onartu behar da erredakzio baten gobernuan arazo bilakatzeko direla askotan, batez ere ezustekoak sortzen direnean. Arazoa konpontzeko irtenbideak? Gure kasuan ordutegi malgutasuna izan da irtenbidea baina, esan bezala, gure maiztasunak eta ezaugarriek hori ahalbidetzen duten bezala, ezinezkoa izan daiteke beste batzuetan. Beste gauza batekin ere konturatu gara, ordea. Gure ordutegiak malguak izanik, erredakzioan ditugun "aitek" seme-alabei lotutako ardura asko hartzen dituzte, euren bikotekideek ez baitute horrelakorik beraien lanbideetan. Ikuspegi praktikotik, dena den, erredakzioaren funtzionamendu orokorrari eragiten dioten arazoak sortzen direla aitortu behar dut, eta lanak eta ardurak banatzerakoan elementu hori ere kontuan hartzen dela, ezinbestean gainera. Argi dago egunero arratsaldeko 5etan haurrak ikastolan

jaso behar dituen pertsona batek lan mota bat egin dezakeela, eta ez beste bat. Horrek askotan eragina du kazetariaren ibilbide profesionalean zein bere irabazietan. Gainerako lankideek ere konpromiso hori beren gain hartu behar dutela uste dut. Esate baterako, oporrak banatzerakoan eta jai egunak aukeratzekoan, lehentasuna izan behar al dute umeak dituztenek? Hori horrela izatea laguntza handia da umeak dituenarentzat, baina gainerako lankideek ere ulertu eta onartu egin behar dute, azken batean euren eskubide bati uko egiten ari dira eta. Eta horrelako adibideak ehun aurki daitezke... Hain zuzen ere, bati mesede egiteak bestea kaltetzea ekar dezake, eta hori lantalde osoak adostu behar du, ezin du zuzendaritzak ezarri.

Irtenbide orokorrak? Bada, horixe, gainerako alorretarako proposatzen direnak: bikotekide biek etxeko lanak eta haurren zaintza partekatzea, bi lanbide –etxekoa eta kanpoko– uztartu behar duten emakume zein gizonei laguntza gehiago eskaintzea, ordutegi eta lan baldintza aldetik malgutasun handiagoa ahalbidetzea... Betiere, jakinik kazetaritzak, beste zenbait lanbide bezala, ezaugarri bereziak dituela.

**G**iza Eskubideen aldeko etengabeko borroka batean gaude, errespetuaren, begirunearen, pertsonen duintasunaren aldeko borroka batean. Etorkinei buruz hitz egin dezakegu, edo indigenei buruz, edo Washingtonek Gaizkiaren Ardatza deitu duen mundu horretan bizi diren izakiei buruz; bai eta gure Lehen Munduan senda daitezkeen gaixotasunak izateagatik Hirugarren Mundu deiturikoan hiltzera kondenaturiko gizakiei buruz ere. Betidanik jakin izan dugu bazterketa horietako bakoitzean emakumea beti maila bat beherago dagoela, batzuetan burkaren katakonbetan, beste batzuetan esklaboen esklaboa bihurtuta. XXI. mendearen hasiera den honetan mundu globalari begiratu behar diogu, baina ez Europako alde honetan lortu ditugun aurrerapenak goresteko, ezta ere hemen zein ongi bizi garen esateko eta zenbat kexatzen garen geure buruari aurpegiratzeko. Ez, aurrerapenak ikusi behar ditugu, aurrerapenaren ñabardurak irakurri, indarrak batu benetako berdintasuna lortzeko, duintasuna deituko diogun gurdiari, gizateria berri bat sortuko duen hitz distiratsuari, denon artean tira egiteko.

Foro honetara etorri garenok etorkizunean egin behar ez ditugun akatsak azaldu ditzakegu, batez ere inola ere errepikatu behar ez ditugun iraganeko akatsak. Ñabarduraren bilaketa azpimarratu nahi dut, gizartearen azalean sakon sartuta dauden arantzak aurkitu nahi ditut, arantza horiek eragiten duten mina galarazi daitekeelako eta galarazi behar dugulako. Flaubertek zioen bezala, "gris argia irudikatzea zailagoa da. Zuria eta beltza arazorik gabe irudikatzen diren koloreak dira".

"Sexua, Generoa eta Hedabideak. Errealitateak, estrategiak, utopiak" unibertsitate-batzar honetan, hain zuzen, gris argia da, beste batzuen artean, lortu nahi den kolorea. UPV/EHUko Kazetaritza Saileko Nati Abrilek, hitz-ziklo honen zuzendariak, eztabaidagai eta jarraibide asko mahaigaineratu ditu, denak biziki interesgarriak: errutinek eta baloreek informazioaren unibertsoak egiten duen sexuen irudikapenean nolako eragina duten, gure lanbideko jendeak femeninoaren erabilera nola hartzen duen, emakume kazetariet etxea eta familiarekiko gizonen baino konpromiso handiagoa hartzeak haien lanbide-sustapenean nolako eragina duen. Jakina denez, kazetariet beti galdera pila bat izaten dugu eta erantzun gutxi. Gutxienez gaur erantzun batzuk emango ditudala agintzen dizuet.

Duela urte askotik gizarte guztietan emakumearekiko diskriminazioa ezabatzea helburu duten politikak lanean ari diren arren, diskriminazio horrek emakumearen bizitzaren alderdi askotan oraindik bizirik dirau; hala ere, azken 25 urteotan gure gizartea emakumeekiko justuagoa eta ez hain diskriminatzailea bihurtu dela esan dezakegu. Batzar honetarako azken eztabaidagaitzat aurkeztutakoari, hau da, emakume kazetariet etxea eta familiarekiko gizonen baino konpromiso handiagoa hartzeak beren lanbide-sustapenean duen eraginari dagokionez, nire inguruan ikusten dudana baino ez dut azalduko.

Adibidez, amatasun-bajaren auzia dago, eta haurrak zaintzearena ere bai; bigarren auziak, dudarik gabe, sekulako eragina du emakumeek beren ia bizitza osoan egiten dituzten jardueretan. Hain zuzen ere, haur kopurua zenbat eta handiagoa izan, etxean geratzen diren emakumeen portzentajea orduan eta handiagoa da. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko Dekano Teresa Lópezek datu adierazgarri batzuk ematen dizkigu: "25 eta 39 urte bitarteko emakume europarrei dagokienez, haurrik ez duten emakumeen %6 bakarrik geratzen da etxean; aldiz, 5 urtetik beherako haur bat duten emakumeen %36 etxean geratzen da, eta gutxienez adin txikiko bi haur dituztenen %52".

Emakumeek ordaindutako lana izatea oztopatzen duen eta munduan gizonen nagusitasuna betikotzen duen beste arrazoietakoa bat etxeko lanen banaketa da, emakumeek oraindik lan horien gehiena egiten baitute. Frantzia, munduko herrialde aurreratuenetariko batean, emakumeek etxeko lanen %80 egiten dute. Jean-Claude Kaufman soziologoaren hitzetan, "Etxeko lanen banaketan desberdintasuna sortzen da berriro, bi ezkontideek hori nahi ez izan arren; batez ere arropen kasuan gertatzen da, kontu horretan memoria historikoko desberdintasuna nabariagoa delako. Beren bikotekidearekin bizi diren gizonen %2k bakarrik plantxatzen du. Gizonak bakarrik bizi direnean gauzak aldatu egiten dira, orduan plantxak ez du inolako sekreturik beraientzat".

Lanaldi partzialeko lana (orokorrean, ez dezagun ahaztu, kategoria baxuko eta gutxi ordaindutako azpienplegetan) ere kontuan izan behar da. Emakumeen langabezia ere hor dago; Espainian gizonezkoen langabezia-tasa bikoizten du. Betidanik emakumezkoarena izan den beste eremu bat senide zaharren edo gaixoen zainketa da. Diskriminazio adibide gehiago daude, baina aipatu ditudanak "aurreratutzat" hartzen diren gizarteetan, geurean kasu, gertatzen direnak dira. Horrek guztiak, ordea, ez du gizartearen aitortzea ekartzen. Aitzitik, desberdintasun horiek emakumeak mendekotasun eta iraineko espazioetan jartzen dituzte, eta, gainera, etxe askotan, gehiegitan, ondorio ikaragarriak eragiten ditu: hainbat gizon berekin bizi diren emakumeak gaizki tratatzen, gauza bihurtzen eta hiltzen ari dira, eta horrek gizartean izugarritzko kezka eta larritasuna sortu du. Instituzioek, talde akademiko eta sozialek eta guk guztiok arazo handi horri tratamendu globalagoa eta multidiziplinarragoa eman behar diogu.

**L**an-merkatuan emakumeak jasaten duen diskriminazioari dagokionez, analistak ez datoz bat enfasia non jarri behar den, lanpostuan oinarrituriko diskriminazioan edo emakumeek egiten dituzten zainketetan (mendeko haur eta helduenak) eta etxeko lanetan. Gizarte Politikako katedradun ingeles Jane Lewisek dio berdintasunari buruzko legediak bere merezimenduak izan zituela, baina haren helburuak ez direla munduko herrialde bakar batean ere bete. "Adibidez, Suedian, emakumeen partaidetza lan-merkatuan eta beren soldata-indizeak gizonenena ia parekoak diren herrialde batean, ez dago berdintasunari buruzko inolako legedia formalik".

Mundu ilun eta nahasiaren aurka, ikusezinen munduaren aurka, atsotitz garbi bat dago: "aipatzen dena bakarrik existitzen da", izen bat duena, esan daitekeena bakarrik. Jaiotzen garen unetik, lengoaia modu jakin batean erabiltzen dugu, eta horrek toki batera edo beste batera eramanez gaitzake, gizakiaren dimentsio potentzialen emari handia alferrik galduz. Lengoiaren ondorioz, erlazio bat dago pentsamenduaren eta errealitatearen artean. Estereotipo maskulino eta femeninok aztertu besterik ez dugu egin behar: femeninotasuna samurtasuna, otzantasuna, ezegonkortasuna, intuizioa, beldurra edo arinkeriarekin lotzen da, eta maskulinotasuna nagusitasuna, ausardia, dinamismoa, agresibitatea edo autokontrolarekin. Estereotipo horiek gure gizartearen pentsamendu, sentimendu eta jokaera askoren oinarri dira. Horregatik, eredu unibertsal bat aurkitu behar dugu, ez gizonak eta emakumeak homogeneizatzeko edo izaki estandarrak sortzeko, baizik eta mugarik ez jartzeko, eta batez ere pertsonak ez diskriminatzeko.

Hezkuntzan, esate baterako, beste batzuk pentsatu dutena irakasteaz gain, hau da, ideien eta pentsamenduen historia irakasteaz gain, pertsonari bere kabuz pentsatzen irakatsi behar zaio; bide berriak eraikitzen, mundua beste modu batzuetara interpretatzen, kritikatzeko eta antolatzen. XXI. mendeari, batzuek emakumeen mendea deitu diote. Nik ez dut uste emakumeek gizonak gizartetik

kendu, ezabatu nahi dituztenik, egoera alderantzikatu nahi dutenik. Uste dut beren borroka lasai eta baketsuarekin beren bizitza eta amatasuna demokratikoki eta kontzienteki antolatu nahi dutela, gizartearen arlo guztietan parte hartuz, gizonen maila berean, gizateria berri bat sortzeko. Carlos Fuentesek duela gutxi (2002ko urriaren 9an) El País egunkarian argitaratutako "Boterea, izena eta hitza" artikuluan zioena egin behar dugu: "dogma eta ziurtasun oso guztiak hankaz gora jarri (...), ziurtasun autoritarioak zalantzan jartzeko askatasuna izan, eta esateko eta aipatzeko askatasunak aldatu ditzakeen espazioak dituen mundu bat eraiki (...). Gerra ez da bakea. Askatasuna ez da esklabotza. Ezjakintasuna ez da indarra".

Esateko eta aipatzeko askatasuna daukagu. Kazetariok idatzizko edo ahozko hitzekin lan egiten dugu, eta batzuetan irudiekin ere bai. Hasieran aipatu dudan borroka horretarako, pertsonen duintasunaren aldeko borrokarako, eskura ditugun tresnak dira. Emakume Aurrerakoien Federazioak dioen legez, "ezin gara emakumeek joan den mendean lortutako aurrerapenen atzetik ibili". Ildo horretan, Canalsolitario.org-ekoek emakumeentzako prentsaren azterketa oso interesgarria egin dute. Beren hipotesia honakoa da: "edukiek zein formek emakumeak gizonen mende irudikatzen jarraitzen dute (...). Zenbait "mozorro" linguistiko erabiltzen dituzten arren, "emakume burujabeentzako" edo "gaur egungo emakumeentzako" adierazpenak adibidez, emakumeentzako prentsaren edukiak edertasuna, horoskopokoak, haurren zainketa, sukaldaritza, moda, ligatzeko trikimailuak etab. dira oraindik". Azterketa horrekin eta beste batzuekin lengoaia sexistari buruzko dokumentazioa prestatu dute, gida moduko bat, hedabideek gogoeta egin eta lengoaia modu zuzenagoan erabili dezaten.

AEBetako Brandeis Unibertsitateko Ekonomia Departamentuko irakasle adjuntu Julie Nelsonen arabera, maskulinitasuna nagusitasunarekin eta femininitasuna gutxiagotasunarekin erlazionatzen dituzten hitz edo estereotipoak ez dira "sinesmen pertsonal isolatuak, ohitura kultural eta kognitiboak baizik". Horregatik, erne egon behar dugu. Julie Nelsonek gogoratzen digu: "gogorak eta femeninoak ez diren neskak gizarteak onartu eta batzuetan goratu ere egiten ditu, baina izaera adeitsua duten mutilei "maritxu" deitzen die; emakume batek frakak eraman ditzake, baina gizon batek ezin du gona bat jarri".

Erne ibili behar dugula diot, Getxo, Leioa, Bilbo, Sestao eta Portugaleten lan egiten duten irakasleek kontatu didatenez, geure institutu eta eskoletan "koedukazioarekin loturiko gaiak ez direlako duela 10 edo 15 urte bezala lantzen". Irakasleen ustez, horren ondorioz jarrera matxistak azaldu dira berriro: mutilek agindu eta neskek obeditu egiten dute; mutilek jo, zapaldu eta garrasi egiten dute". "Atzeraka goaz, jarrera liskarzale eta oso maskulinoak nagusi ziren garai batera. Eta buruzagiei jarraitzen ez dieten mutilak maritxutzat hartzen dituzte".

Hedabideen kasuan ere adi ibili behar gara. Hor ere egiteko asko dago oraindik. Hedabideen irudi eta hitzetan emakumeak eta gizonak irudikatzeko moduei buruzko ikerketa zehatz bat egiten badugu, nolako ondorioak aterako ditugula uste duzue? Segur aski, aurkituko dugun gauza bakarra zera izango da, albisteak aurkezterakoan emakumeak eta gizonak gutxi gora-behera maila berean azaltzen direla. Hala ere, ekoizpen propioko programetako partaidetza aztertzen badugu, orokorrean gizonen kopurua emakumeenaren bikoitza dela ikusiko dugu.

Emakundek 2000ko abenduan argitaratutako "Generoa telebistan fokatzen" ikerketa europarrak erakusten duenez, programen zuzendariek sarritan diote zaila izaten dela emakume parte-hartzaileak aurkitzea eta haiek telebistan azaltzeko konbentzitzea. Canal Bizkaian lau urtez lanean aritu ondoren, esan behar dut batzuetan emakumeek gizonenetik desberdina den ikuspuntu bat behar dutela, eta programetako ekipoek emakumeak bilatzeko ahalegin handiagoa egin beharko luketela, era koherenteago eta arrazoizkoagoan pentsatuz, telebistako eskaintza zabalagoa eta erakargarriagoa egiteko.

Zenbaitetan, hedabideetan azaltzeari uko egin dioten unibertsitateko emakume irakasleak aurkitu izan ditut. Beren ikuspuntua protagonismoa izateko gogoaren kontrakoa zen, besterik ez. Bestalde, emakume batzuek gizartean ongi ikusita dauden gizonen nolabaiteko susmo txarra hartzen diete. Haien mailan egongo ez direla pentsatzen dute. Edo beren hitzaldia emateko behar adina denbora ez izatearen beldur dira. Emakume horiek guztiek lehenengo aldiz telebista-kamera baten aurrean egoteko beldurra gaizdutzen dutenean, espero zutena baino askoz hobeto aritzen dira. Azpimarratu behar da gizonen hizketaldietan edo eztabaidazko programetan parte hartzeko gonbidapena errazago onartzen dutela; eta programa horietan denbora asko bereganatzen dute, hitzontzikeria beti emakumeekin erlazionatu den arren. Agian arduragabeagoak izango gara. Agian emakumeek beren buruari gehiago exijitzen diote. Baina gizonak gure ezagutzen zenbaterainokoa edo gure kaskarkeria telebistan erakusterakoan batzuetan barregarri geratzen baldin bagara, zergatik ez dute emakumeek gauza bera egingo? Nork ukatuko die eskubide hori, zergatik pentsatu behar dira gauzak hain serioak, gizonen arinkiago hartzen badituzte?

Zenbaitetan emakume bat aurkitzea oso zaila izaten da, Zientzia eta Teknologiarik buruzko hizketaldia egin genuenean adibidez; baina gomendaturiko gizonen artean beti norbaitek emakumezko kide bat aipatuko dizu. Emakume bat aurkitzeko agian denbora gehiago behar da, baina beti merezi du. Emakumearen presentzia kontuan izateak mesede egiten dio programari, salatzen ari garen desoreka hori ez baituzu errepikatzen, eta, gainera, kalitate handiagoko telebista-produktu bat lortzen duzulako. Horrela, telebistako programa ikusten ari diren gizon eta emakumeak hobeto irudikatutik sentitzen dira, eta erantzun-unibertso zabalagoa lortzen da.

Nik ez dut nire programetan parte hartzen duten pertsonen hitza kentzeko ohiturarik, haiek gizonak edo emakumeak izan, baina Emakundek argitaratutako ikerketaren zenbait ondoriok ez ninduten batere harritu: programetako aurkezleek emakumei gizonen baino sarriago moztu dietela, emakumeek beren txandari giza bide gehiagoz itxaroten diotela, gizonen hitz egiteko aukera gehiago ematen dietela, gizonen hitzaldia luzeagoa dela eta galdetuak izan gabe hitz egiten hasten direla.

**A**steazkenetan Canal Bizkaian egiten dugun hizketaldian gaur jorratzen ari garen gaietako batzuei erantzun bat ematen saiatzen naiz. Maskulinoa generiko gisa erabiltzen ez dutenetakoa naiz. Batzuetan bi genero gramatikalak erabiltzen ditut, betiko akatsak ez egiteko; esate baterako, "los padres de los alumnos" esan beharrean hori beste modu batera esaten saiatzen naiz, "los padres y madres del alumnado" edo horrelako zerbait. Eta hori egitea ez zait bat ere zaila edo errepikakorra iruditzen. Ildo horretan, Emakundek 2000ko ekainean argitaratutako foiletoko bat, "Hizkuntza, hitzak baino gehiago. Lengoaiaren erabilera ez sexista baterako proposamenak", irakurtzea gomendatzen dizuet.

Nire lankideak diren emakume batzuek esaten didate gizonen bi genero gramatikalak nolabaiteko konplexua dugulako edo ongi geratzeko erabiltzen ditugula. Hala ere, esango nuke lengoaiaren aukera horiek erabiltzen ditugun gizon eta emakumeok sentsibilitateagatik egiten dugula hori, eta lengoaiak ez dela neutrala pentsatzen dugulako.

Jakina, hori besterik egingo ez banu oso gutxi izango litzateke. Ekoizpen-lanetan kide dudana Teresa Olabarrietak eta biok urtean zehar Canal Bizkaian gizonak adina emakume izaten ahalegintzen gara, bai platoon bai estudioetan, bai eta kalean egindako "inkestak" bideoetan ere. Are gehiago, kameraren aurrean gizonak eta emakumeak posizio berean erakusten saiatzen gara. Izan

ere, batzuetan gizonak kontrapikatu-posizioan agertzen dira, eta emakumeak goitik behera hartuta. Hori egitearen arrazoia elkarrizketaturiko pertsonen eta kamera-operadoreen altuera izan ohi da. Hala ere, faktore hori aintzat hartzea garrantzitsua da, eta galderei erantzuten dieten pertsonen artean gizonak adina emakume egotea. Auzi hori unibertsitateko ikasleen artean eztabaidatzea ez litzateke ideia txarra izango. Kamerak ezin du jarraitu gizonak irudi eskerga gisa eta emakumeak izaki ñimiño gisa irudikatzen.

· Duela laurogei urte, Virginia Woolf idazleak (1882-1941) hau idatzi zuen: "mende hauetan guztietan zehar, emakumeak gizonaren irudia bi aldiz handiago erakusten zuten ispilu magiko gisa erabili izan dira". Ordua da gizonak eta emakumeak, emakumeak eta gizonak, maitasun eta errespetu berarekin tratatzen zaiela sentitzeko. Edo, behintzat, hori lortzen saiatzeko. Jatorri lituaniarreko Emmanuel Lévinas (1906-1995) filosofo frantziarraren aipu batekin amaituko dut: "Pertsona bat ezagutzen dudan bakoitzean infinitua agertzen zait".

**D**emagogikoa edo zentzugabea, nolako pedanteak izan nahi dugunaren arabera, izango litzateke ziklo hau emakumeak informazioaren unibertsoan erabat integratzea lortu duen argitzeko eztabaida gisa aurkeztea. Denbora alferrik galtzea edo unibertsitateko bilera bat, bazkari eta guzti, egiteko aitzakia bat; hemen biltzeak, sinposium hau antolatze hutsak, frogatzen duelako emakumeok ez dugula integrazio hori lortu. Sexua oraindik ez delako desberdintasun biologiko huts eta beharrezkoa; desberdintasun sozial eta laborala delako oraindik.

Berriro ere gizon eta emakumez hitz egiten ari gara, gizonezko agintzaileez eta eme diskriminatuez, ar bihozgabeaz eta alde batera utzitako emakumez. Egiaz, gizakiena bezain espezie aspergarri oso gutxi egongo dira; Historiaren bizkar koadernatuetan hain eroso jarrita daudenak, eta gradu batzuk bada ere perspektibaz aldatzeko hain gogo gutxi dutenak. Eta immobilismo izugarri horren buruan hedabideak gailentzen dira, gizartearen ispilu gisa, baina batez ere idiosinkrasiagatik. Egunero, ordutik ordura, hamabost minuturo beren buruak berritzeko premiak bultzatuta, hedabideek errutina funtzionalak, teletipo praktikoak eta telefono-agendak erabiltzen dituzte; gogoe-ta egin ordeaz, eta gaurkotasuna aldatu eta batez ere hobetu daitekeen errealitatetzat hartu beharrean, hura amaitutako gertaera baten modura ikusten dute.

Telebista pizten dut eta emakume baten begi handituak, gizonak eman dizkion kolpeek edo bere zorigaitzaren malkoek eraginak, ikaratu egiten nau. Egunkaria ireki eta minifalda ñimiño baten azpian neskatxa baten hezurak antzeman ditzaket. Irrati-emisore bat sintonizatzen dut eta kontatzen didate emakume langabetu bat kontratatzen duen enpresariari bere "altruismoaren" ordaintan Hazienda-aitorpenean deskontu tentagarria egingo diotela. Emakumeen presentzia hedabideetan, agian hori nahi ez arren, emakumea ezinduen mailan jartzen duten gai eta topiko partzial batzuei loturik dago oraindik. Eme jaiotzeak errukitzeko eta ordaintzeko moduko mugak eta akatsak berekin ekarriko balitu bezala. Zorigaitzoak, gertakariak eta krimenak odoltsuagoak eta erakargarriagoak izaten dira biktimen artean haurdun dauden emakumeak, neskatxoak edo amona zaharrak badaude. Emakumeak izatearen zorigaitzari beste zorigaitz bat eransten zaio.

Genero femeninoa "mass media"tan gaurkotasunaren protagonista kolektibo gisa azaltzen denean, gehienetan emakumeek jasaten dituzten bidegabekeriak islatzen edo salatzen dira, beren egoeran hobekuntzak erakusten dira edo beren egoera gizonenarekin alderatzen da: tratu txarrak, alarguentzako laguntzak, ama ezkongabeak, langabetuak, unibertsitateko inskripzio-tasak. Emakumearentzako informazioaren kasuan, menopausia- eta kailu-arazoak aipatzen dira osasunaren arloan, dietak eta zimur-kontrako kremak estetikarenean, eta sedukzioa eta orgasmoa izatearen itxurak egitea sexuarenean. Eta emakumeari izena eta abizenak ematen zaizkion une urrietan, bere emakume-handicapa gaindituz multinazional baten zuzendaria, astronauta edota bere promozioan lehena izatera iritsi dela azpimarratzen da. Azken batean, emakumeak albiste izaten jarraitzen du emea delako, bere espeziean salbuespena delako, Y kromosomarik ez izan arren goraino iristea lortu duelako.

Berdintasuna sustatzeko ez da beharrezkoa hemizikloan zenbat emakume parlamentari dauden esatea; lehenbizikoz emakume bat errektore izendatu dutela kontatzea edo azpimarratzea neskek eskolan mutilak gainditzen dituztela beren garuna hobeto diseinaturik dagoelako. Informazio-bide horretatik errukira heltzen da, ez integratzailea. Erabat integratuta egongo gara gai horiek tituluetan azaltzen ez direnean, emakumeen ahalmena gogorarazteko beharrik ez dagoenean, haiek ziurtzat

joko direlako. Horretaz hitz egitea etxekoandre batek sukaldari bikaina dela frogatu duela esatea bezain burugabea denean, eta zakur batek bere jabea 500 kilometrora aurkitu duela esatea bezain harrigarria ez denean.

Normaltasuna lortzeko, diskriminazio positiboa ez da gaien hautaketan edo pantailetan, uhinetan edo orrialdeetan islatu behar, kazetaritza-jardueran baizik. Esate baterako, erreportaje batean aditu baten adierazpenak sartzeari komeni denean, emakume zientzialari batenak bilatzea; hezkuntza-erreformari buruzko iritzi bat bilatzen denean, gizon batena aukeratzea. Rol maskulino eta feminoetan estigmatizaturiko ohiko iturrietatik ihes egiteko ahalegin horrekin bakarrik lortuko dugu generoaren segmentazio kulturala ezabatzea. Sexuaren alderdiak, orduan, garrantzia galduko du audientziarentzat.

Integratzeak, berez, normalizatzea esan nahi du, gizartean sartzeari, sartzeari baino gehiegizko indarkeriarik gabe. Eta ez dut uste lengoia helburu hori lortzeko bide nagusia denik, ezta ere men-debaleko izaera sexistaren adierazpenik larriena. Generoak edozein modalitatetan banatzea (ciudadanos y ciudadanas, ciudadanos/a, ciudadan@s) informazio-lanak eskatzen duen espazio- eta denbora-ekonomiarentzat xahuketa bideraezina da. Gainera, ez beharrezkoa eta kaltegarria ere iruditzen zait, berdintasunera heltzeko modurik logikoena ezin delako feminismoarena izan. "Trabajadores" taldean ni sartuta egoteak ez nau samintzen. Samintzen nauena zera da, langile-talde horretan berrogeita hamar gizon eta hamar emakume egotea. Ez nau hitzak haserretzen, baizik eta hitz horrek esaten duenak, kontatzen didan errealitateak, errealitate horrek diskriminatu egiten nauelako. Komeni dena, beraz, eszenatokia aldatzea da. Eta horretan, komunikatzaileek lan handia egin behar dugu, batez ere ikus-entzunezko alorrekoek.

Nola? Bada, emeak orokorrean albisteetan sartuz, albiste isolatu gisa haiek baztertu beharrean, egun egiten den bezala. Bi erdi horiek, ez dezagun ahaztu, elkartzen direnean, bizitzaren betikotzearen miraria sortzen dute, eta gutxi gorabehera biak berdin irudikatzen saiatu behar dugu. Topikoak dioenez, irudi batek mila hitz baino gehiago balio du. Bada, erakutsi ditzagun berrogeita hamar, ehun, mila irudi. Egunero hedabide guztiek irudi asko errepikatu beharko lituzkete, emakumea inguru normalizatu, buruaski, duin batean erakusteko. Ez paradisuari; nahikoa da eguneroko bizitza erakustea.

Hori guztia emakume gisa eta kazetari gisa gomendatu dezaket. Nahiago nuke hori agindu banezake. Egunkari-enpresetan, oraindik arraroa egiten da exekutiboaren gosariaren kikara batean ezpainenaren barren arrastoak ikustea. Onartu behar da, nik lan egiten dudana EL CORREOren erredakzioan gutxienez, lanean hasten diren pertsona gehienak emakumeak direla. Zuzendaritza-bulegoetan, ordea, oraindik nagusi dira gorbatak eta "after shave"-a. Egia da lumek eta mikrofonoek aurreiritzirik gabe emakumei ateak zabaldu zizkietela duela hogeitun urte inguru, eta erantzukizun handiko lanpostuetara heltzeko mailak igo eta urteak pasa behar direla, eta ezin dela hori guztia binaka egin. Alabaina, maila-igoera emakumei gogorragoa egiten zaigu, ez trebakuntza gutxiago dugulako edo indarra, baliabideak eta ahalegina falta zaigulako, baizik eta igoeran etxeko betebeharren zama astuna gainean daramagulako.

Janaria prestatzea edo erosketak egitea gero eta gutxiago, baina garbiketa, plantxa eta seme-alaben higiena oraindik emazteari edo neskalagunari dagokion lana da neurri handi batean. Zeregin horiek gizonarekiko desabantailak dira maila igoetako orduan. Atsedena hartzeko, egunean egoteko albisteak ikusteko, birziklatze-ikastaroetara joateko denbora kentzen digute, eta albisteetan esaten ez den arren soldata eta laneko begirunea handitzeko -eta sarritan sinadura goiko testuaren kas-karkeriaz ez lotsatzeko- nahitaezkoak diren aparteko orduak egiteko.

Egun hedabideen zuzendaritzan dauden eta beren ordezkioak izendatzen dituztenen inertzia sexistez gain, etxeko lanak ere birziklatu egin behar dira, haiek gizon eta emakumeen artean bidezkoagoa den modu batean banatuz. Gizonak ez dira eskuzabalegiak izan behar lanak ematean, eta

emakumeak berekoiegiak ere ez lanak hartzean. Nekez lortuko dugu berdintasun profesionala aldez aurretik sukaldea eta gelak txukuntzen ez baditugu. Bulegoan lanen banaketa desorekatua gaizki ikusten hasi den arren –pixka bat bakarrik-, etxeko lanen banaketaren desoreka gauza onartua da; hezkuntza eta tradizioagatik desoreka horretara ohituta gaude, eta zergatik galdetu gabe gure eguneroko ohituretan sartu dugu.

Has gaitezen egunero denbora bat sofán etzanda egoteko eskubidea aldarrikatzen, eta ondoren eska dezagun besaulki bat lanean. Etxean benetako aukera-berdintasuna lor dezagun, eta denborari epe bat eman diezaiogun erredakzioak orekatzeko. Hori bai, bitartean lan handia egin beharko dugu, jendeak emakumearen integrazioa karitate-lan baten modura edo Administrazioak emandako pizgarriekiko erantzun baten modura ulertu beharrean, aberasteko bide gisa eta inoiz soberan ez dagoen pluralismoa handitzeko modu gisa ikus dezan.

Hedabide bat 23 urteko bekadun batek eta erretiroa hartzeko gertu dagoen profesional batek duten ikuspuntu desberdinekin aberastu egiten den bezala, emakume erredaktoreok gai berriak eta kezka berriak ekar ditzakegu, beharbada emakume irakurleek espero eta erredaktoreek sumatzen ez zituztenak. Edo gaizki interpretatzen zituztenak. Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Konfederazioak azaroan argitaratutako ikerketa batek neska nerabeei zuzenduriko aldizkariak emakume txoriburuaren eredia hedatzen dutela salatu du. Aipatutako aldizkarietan, emakumearen ardurak bakarrik itxura zaintzea, sexu-harreman iragankorrak izatea eta jende famatuaren bizitza zehatz-mehatz ezagutzea dira. Horrelako argitalpenetan hainbat funtsezko gai, esaterako lana eta trebakuntza, GKEak eta ingurumena, bidaiak, kirolak, liburuak eta gaurkotasuna, ez dira ia azaltzen.

**H**edabideetan lan eginez, agian errazagoa egingo zaigu frogatzea eta azaltzea modaz, estetikaz, bikote-bizimoduaz eta hurrez gain lehen aipatutako gaiak ere kezkatzen gaituztela. Gain esaten dut, ez didalako lotsarik ematen arropak, kosmetikoek edo sukaldaritzak erakarri egiten nautela onartzeak. Ez naute obsesionatzen, ezta ere interesatzen zaizkidan beste gauza batzuk balio gabetzen. Baina atsegin ditut, eta hedabideek haiek tratatzea gustatzen zait. Eta sarritan nire erredaktore-lanpostu apaletik hori egitea proposatzen dut. Egia esan, dagoeneko ez da harritzekoa egunkari batean edertasunari buruzko atal monografikoak aurkitzea, edo lehen orrialdean Cibeles Ibiltokiaren edo antzerako gertakari baten argazkia egotea. Betidanik emakumeenak izan diren eremu horien trataerak, bide batez, gizonei duten erabilgarritasuna erakutsi diezaieke; horrela, gizonek exekutibo, burtsa-jokalari edo Real Madriden jarraitzailearen alderdian beste alderdi positibo batzuk erantsiko diete.

Gai-ekarpen hori hedabideetan emakumezko profesionalen eskutik gertatzen ari da eta txalotu egiten dut. Hala ere, gai horiek ez dira sexuarekin lotu behar, sentsibilitate desberdin batekin baizik. Gure gorpuzkera hormonal eta fisiologikoak sentikorrek bihurtzen gaitu, eta adierazpen artistikoak eta estetikoak gehiago erakartzen gaituzte. Hori ezin da nagusitasun edo gutxiagotasunezko hitzekin baloratu. Zientziaren apetak dira, eta haren erabakiak neutroak eta eztabaidaezinak dira. Baina sentsibilitate horri probetxua atera behar zaio, eremuak zabaltzeko eta informazioaren kalitatea handitzeko.

Gizarteko zenbait mailatan, pertsonak beren genero bereko norbaitekin hitz egiten dutenean lotsa gutxiago izaten dute zenbait gai eztabaidatzeko. Ildo horretan, nire egunkarian hurrekin, pertsonekin edo solidaritatearekin loturiko gaiak neskei ematen zaizkie sarritan. Hori egitea ez da se-

xismoa. Emakumearen benetako integrazioa logika horretatik antolatu behar da; ezin dugu erosotasunez edo tolesgabetasunez jokatu, integrazio hori ez delako de 'motu' propio etorriko. Gizateriak berdintasunaren bidetik atzeraka doala frogatu du. Segur aski, gizakiak haitzuloetan bizi zirenean generoek lan eta rolen banaketan gaur egun baino askoz garrantzia gutxiago zuten, eta gauza bera gertatzen da egungo landa-eremuetan. Zenbait alderditan, aurrerapenak misoginoa dela erakutsi du.

Aurrerapenari oker dagoela esan behar diogu, oraindik azkarrago joan dadin. Aurrerapena gizonarekin lortutako sinergian, bi sexuen ahalmenen aprobetxamenduan, elkar ulertzean eta normalizazioan oinarritu behar da. Neurtu gabe, alderatu gabe, lehiatu gabe. Gure gaitasunengatik baloratu behar gaituzte, egiten dugunagatik, ez garenagatik. Faboreei, gobernuen limosnei eta kazetaritza-babesei uko egiten diegu. Genero gisa albiste izateari utzi nahi diogu. Natura jakintsuak gizon eta emakumeei itxura biologiko desberdina eman die, ez bata bestea baino hobea edo txarra goa, eta desberdintasun hori estimatzen eta bere egiten duen gizarte batean bizi nahi dugu.

## **2. MAHAI-INGURUA: HAUTAZKO HEDABIDEAK: BA AL DIRA GENERO HARREMANEN ARAKETAN ERE?**

ANDRA-REN ERREDAKZIO KONTSEILUA

HELENA BENGOETXEA

Eguzki Irratia

INDYMEDIA

Euskal Herria

RUTH BALBOA MAYORDOMO

Halabedi irrati libreko

“Sasi guztien gainetik”

programaren partaidea

**E**makumeen 'Andra' egunkaria duela bi urte sortu zen informazio hutsune garrantzitsu bat betetzeko asmoz. Helburua prentsa idatzian emakumeen presentzia areagotzea zen, ez bakarrik modu kuantitatiboan, ezpada, batez ere, kualitatiboan.

Hauxe zen abiapuntua: azken aldian komunikabideak (batzuk beste batzuen eraginez) bazirudien denak bat-batean mendetako loaldi luze batetik itzartu zirela, eta konturatu egin zirela, den-denak ia salbuespenik gabe, emakumeei eginkizun garrantzitsuagoak eman beharraz, bai edukietan bai haien zuzendaritza taldeetan.

Baina 'ahalegin berritzaile' horretan koherentzia eta konbikzio falta nabari zen. Itxura batean, kontua zen kuota antzeko batzuk betetzea feminismotik etorritako kritikak isilarazteko. Hain zuzen ere, prentsa idatziak gorantz zihoan emakumezkoen audientziara egokitzean saihestu egiten zuen eskema eta ikuspegi berritapena.

Orokorrean, egunkariak emakumezkoen prentsako elementuak hartzera mugatu ziren. Modu bitan egin zuten hori: batetik, ikuspegi horiek euren eduki katalogo orokorrean hartuz, eta, bestetik, emakumeari zuzendutako gehigarriak eginez. Horixe da gizonen irudimenean betidanik datzan arketipo aldaezina.

Gai honi errealismoz eta inteligentziaz aurre egin ziotenek emakumeenak izan ohi ziren gaiak (moda, dekorazioa, sukaldaritza...) sexu bietarantz bideratu zituzten, igandeetako gehigarri burutsuan sartuz. Eskaintza handitzeko, 'Emakumeak' sekzioa ezarri zuten, astean orrialde bat eskainiz; bertan eduki serioagoak sartzen zituzten, baina zurrunegia zen eta sarritan hutsala edukiei zegokienez.

Aurreko urteetan, prentsa idatziko zuzendaritza postuetan areagotu egin zen emakumezkoen kopurua; dena dela, goian esandakotik ondorioztatzen denez, horrek ez zuen asko lagundu estereotipoak gainditzen. Izan ere, orokorrean, beste botere-eremu batzuetan gertatzen den legez, 'aukeratuak' pertsona otzanak izaten dira, arlo honetan beligerante izango ez direlako ziurtasuna izaten da (gaitasun profesionala jakintzat jotzen da) eta, aldarrikazale izanez gero, ohikoena etsitzea izaten da bakarrik sentitzean eta inork ez dituela ulertzen ikustean.

'Andra' merkatura atera zenean, 2001eko urtarrilean, asmoa zen zalantzan jartzea 'emakumezkoentzako gai interesgarri' deritzon hori, eta bi urte hauek ematen duten perspektibarekin, esan dezakegu zati baten, behintzat, lortu dela helburua.

Jazoera, zabalkunde handiagoz edo txikiagoz, komunikabideetan azaldu zen. Esate baterako, 'El País' zorrotzak orrialde buru bat eskaini zion edizio autonomikoan eta aipamen bat, txikiagoa baina nahikoa ikusgarria, edizio estatalean.

Hortik aurrera, bata bestearen atzetik etorri ziren elkarrizketak egiteko eskariak, proiektua eza-gutu nahian. Gure ustez, hilabete batzuetan behintzat, lortu zen komunikabide batzuek pare bat minutu eskaintzea haien informazio politikak errebisatzeari. Dena dela, denborarekin, hasierako joera hori desagertzen joan da eta berriro malgutu dira ohiturak.

Baina, zorionez, zerbait geratu da, eta geratu dena da 'Andra', zoritxar-igarle askok aurreikus-ten zutenaren kontra, hilero-hilero hutsik egin gabe heltzen dela kioskoetara. Horrek erakusten du beharrezko produktua dela eta baduela merkatua.

Aldizkaria ez zen bat-batean sortu. Jatorria Bizkaiko Emakumeen Biltzarrak hamabi urtez editatutako 'Geu Emakumeok' aldizkari feministan dago. Bertan ezagutu genuen elkar gaur egun erredakzio kontseilua osatzen dugun gehienok eta laguntzaile askok.

Aldizkari hori desagertzean, pentsamendu feministari eta emakumeen hainbat eta hainbat ekimen interesgarri adierazpidea eskaintzeko, hileroko aldizkari berri eta profesionalizatu hau ateratzea erabaki zen.

Hasiera-hasieratik planteatu genuen komunikabideetan emakumearen presentzia duina bilatzeko, derrigorrezkoa zela eskubide hori bera aldarrikatzea informazio politikek kaltetutako beste gizarte talde batzuentzat. Hori dela eta, gure orrialdeetan, 'zeharkako gai' gisa, hainbat elkarteri utzi diegu lekua, esate baterako, antiglobalizazio elkarteei (Hegoaldeko herrialdeen arazoak, ekimen antimilitaristak, eta politika eta kultura alternatiboko gaiak...) edo gay eta lesbianen eskakizunei.

'Andra fenomeno' dela eta, hainbat eztabaida izan ziren; feministen edo emakumeen kezkek komunikabide berezi bat behar zuten edo besteetan integratu behar ziren zen eztabaidagaia. Momentuz, gure ustez, kezka horiek beste komunikabideetan integratzea alderdi politikoak gizar-tearen benetako beharrezanetara integratzea bezain zaila iruditzen zaigu. Hau da, komunikabideen zuzendaritzetan beren pribilegioak gorde nahi dituzten gizon 'ermandadeak' dauden bitartean, zaila izango da gaur eguneko garaira egokitutako emakumeen irudia azaltzea.

Eta zer ekarri dio 'Andra' aldizkariak emakumeen irudiaren gainean izan den aldaketari? Erantzuna axioma honetan laburbildu daiteke: komunikabide konbentzionalek agertzen duten 'dena emakumeentzat baina emakumerik gabe' jokabidearen aurrean, 'Andra' aldizkariak 'dena emakumeentzat emakumeen ikuspuntutik' (eta rol tradizionalak zalantzan jartzeko prest dauden gizon batzuentzat) leloa aldarrikatzen du.

'Andra' aldizkariak emakumei aukera eman die beraien pentsamendua aurreiritzi sexisten trararik gabe zabaltzeko eta, era berean, emakume batzuk beste batzuekin harremanetan jartzea ahalbidetu du, esperientzia eta kezken elkartrukea bideratuz.

**A**

ldizkariaren 'iritzia' saila emakume filosofo, antropologo, idazle, kazetari eta teologoen markatu dute, eta iritziko orrialdeetatik ez da 'emakumea' (prototipo hori) pasatu, baizik eta emakumeak beren aniztasunean: ekonomilariak, etxeko andrak, idazleak, langileak, langabetuak, mojak, pentsalariak, artistak, lirainak, itsusiak, altuak, baxuak, lodiak, argalak, heterosexualak, lesbianak, etorkinak, indigenak... haien handitasun, muga eta guzti.

Gure lanari ekiteko baliozko erreferentzia gutxi izan dugu —estilistikoak baino ez—; hori dela eta, berriro asmatu behar izan dugu dena, hau da, hasi 'interes informatiboa' izan dezaketen gaiak aukeratzeko irizpideetatik eta informazioak enfokatu eta garatzeko moduraino.

Bestetik, gure produktuari freskotasuna emateko nahitaezkoa izan da prentsa kabineteen informazio ofizial eta kontrolatuari ihes egitea. Horren ordez, jorratzen ditugun gaietan benetan adituak diren emakumeengana jo dugu (teknikarien aholkularitza duten ohiko agente politikoengana jo beharrean), bai eta informazio agentzia eta iturri alternatiboetara ere.

'Andra' aldizkariak nobedade esanguratsuak ekarri ditu informazioaren mundu honetara: bate-tik, lengoia ez sexistaren erabilera eta, bestetik, informazioaren lehen mailara eramatea ohiko prentsak, pribatutasunaren edo etxeko arazoaren eremura eramanez, saihesten dituen gaiak.

Lehenengo gaiari dagokionez, gure ustez, komunikabide guztien lengoaia ohiko lengoaia sexistak ikusezin bilakatzen du emakumea. Beraz, arlo honetan eguneratze etengabea egiteko konpromisoa hartu genuen.

Bigarrenari dagokionez, besteak beste, familia eredu berrien edo harreman afektiboen gaia jorratzeaz gain, oraindik pribatizat jotzen den arazo oso larria, hau da, biolentzia matxista, arazo 'politikoa' izatera hel dadin lan egin dugu, gaia hainbat alderditatik jorratuz eta sakon aztertuz.

Erronka garrantzitsu honi aurre egiteko, esperientziadun eta esperientziarik gabeko kazetari feministak batu gara, eta horren emaitza nahasketa exotiko hau dugu, hau da, komunikabide klasikoa eta aldizkari alternatiboa, biak batera. Hori oso nabarmena da idazketa estiloan, beste komunikabide batzuen ohiko estilo-batasunarekin apurtzen baitu. Izan ere, adierazpen askatasuna azken muturreraino eramaten dugu —zehaztasunaren kaltetan joan gabe—. Beldurrik gabe esan dezakegu kazetari bakoitzaren kezka eta idiosinkrasiak badutela lekurik gure aldizkarian, eta horrek pentsamendu lerro desberdinak ematen dizkio, hau da, aldizkaria pentsatzen duten inteligentzien kopuru eta kalitatearekin bat etorritz.

Ziur gaude pentsamendu eta ekintza askatasun hori ('Andra' egiten dugunon pozerako arrazoirik handienetarikoa) eta emakumeen gaia osotasunean landu gura izana direla gure aldizkaria iraurarazteko arrazoirik garrantzitsuenak. Gure ustez, azken batean, emakume feminista guztiak ordezkaturik daude, feminismoa ulertzeko eta bizitzeko modua edozein izanda ere.

**H**edabide gehienek etekin ekonomiko jakin baten lehentasunak baldintzatzen duen informazioa sortzen dute, eta informazioaren arabera, interes politikoek baldintzaturikoa.

Mundu garatua deiturikoaren giza egituraketak, oro har, botere harremanetan oinarritzen direla ontzat emanik, ohiko hedabideek sistema berak sorturiko gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzen dituztela erran daiteke aisa.

Beraz, ohiko komunikabideei dagokienez, genero desberdintasunean ez ezik, harreman ekonomikoetan ere ematen den informazio trataerari buruzko analisi anitz egin daiteke. Honekin guztia-ekin ez dut erran nahi hedabide hauek egiten duten sexuaren arteko harremanen analisiak garrantzi gutxiago duenik –niretzat alderantziz hain justu–, baizik eta, informatzerakoan, ukitu patriarkala botere ekonomiko zein politikoaren ikuspegi orokor baten zertzelada bat baizik ez dela.

Komunikabide alternatibo deituriko hauek hedabide tradizionalen eta sistemaren arteko lotura hausteko sortzen dira hain zuzen ere. Alternatiboak diren heinean, besteek boterearen mesedetan isiltzen dituztenak kontatzen dituzte.

Gainera, profesionala "iragazki" bat da, zeinak errealitatea desitxuratzen ahal duen. Ez dugu zalantzatzen paratuko "iragazki" bera, baizik eta beraren erabilera zintzoa. Beraz, berriaren protagonista behar dute izan berriemaileek, herri mugimenduek euren esperientziak kontatu behar dituzte lehenengo pertsonan adierazpen askatasuna bermatuz.

Honako ideia hau, jakina, hedabide konbentzionalak dituzten genero politikei legokieke.

Kontrainformazioa kontzeptuari erreparatzeke, hedabide alternatiboen garapen eta bilakaeraren analisia egin gabe; horra doazela ohiko komunikabideek emakumezkoei buruz dituzten estereotipo editorialak zein funtzionalak.

Erran bezala, bide konbentzionalak botereak elikatuak badira –eta alderantziz– eta botere hori "gizonezkoarena" den neurrian; horixe eta ez besterik, izanen da emakumezkoaren irudia.

Emakumea –genero gisa– "gertaeretan" aterako da baina ez "ekonomia" orrialdeetan. Eta bertan aterako balitz "bi umeen ama" edo tankera honetako gehigarriarekin. Antza, emakumeok ez dugu izen–deiturarik, norbaiten "emazte, arreba edo maitaleak", "etxe bortizkeria"-ren biktimak, paperik gabekoak, edota patera baten iritsitako haurdunak besterik ez gara.

Beste parametroekin gertatzen den bezala, informazioari buruz, eta batez ere, aipatutako informazioaren trataerari buruzko ikuspegi estereotipatu honek konportamendu sexista batera garamatza eta hedabideek, ñabardurak ñabardura, iritzi publiko matxista bat sortzen dute, zeinak honako ideia hauek behin eta berriz errepikatzen dituen. Emakumezkoaren ikuspegi estereotipatu honek desberdintasunean oinarritzen diren patroiak sortzen ditu, beraz.

Gainera, komunikabide konbentzionalak, enpresa moldeari jarraikiz, hierarkikoki egituratzen dira eta hierarkizazio hau, definizioz, desiguala da. Erabat "maskulinoa" izanik, lan harremanei egiten die kalte: emakumezkoek ez dute apenas ardura kargurik edota erantzukizun erabakirik hartzen. Beraz, nire ikuspegitik, ez da desberdintasunean oinarritzen diren harreman mota hauekin hausten ahal, harik eta egitura maskulino eta desiguala hauek bazter uzten ez diren arte. Eta hau zinez zaila da eraketa hau komunikabide konbentzionalari errotik baitagokio. Hau da, emakumezkoak nolabaiteko botere eta erabaki ahalmena lortuko bagenu ere, honek ez luke deus ere bermatuko; azken finean erabakitzeak erabakiko baikenituzke indarrean dagoen egitura baten baitan; komu-

nikabidea bera definitzen duen egitura horren baitan, alegia. Dena dela, eta hau beste edozein lan dagokiola, garrantzizkoa ez da emakumezkoek ardurak kargurik har dezaten; baizik eta lanpostu horretatik emakumezkoak emakumezko izatea, gauzak beste era batez egitea, beste harreman moldea eratzea.

Baina gatozen kazetaritza enpresara. Honek ez luke informazio edukien aldaketarik bermatuko. Hala eta guztiz ere, "komunikabide ofizial"-en aurka jartzeak (zentzu zabal batez eta ez soilik komunikabide publikoen aurka) ez du erran nahi biderik alternatiboek ere ez dutenik genero bazterketarik egiten, ez eta egitura ekonomiko tradizionalik dagoenik ere. Ohiko hedabideetan ematen diren eta komunikabide alternatiboetan gainditurik beharko genituzkeen zenbait elementu baztertzailerik diskriminazio era desberdinak sortzen dituzte. Diskriminazio era hauek plano desberdinetan aztertu beharko genituzke. Horretarako, alde aurretiko analisisia ezinbestekoa suertatzen zaigu. Nire esperientziatik abiatuta, komunikabide alternatibo hauen adibide diren irrati libreei buruz mintzatuko naiz eta nolabaiteko analisisia burutuko.

**I**rrati libreak 80ko hamarkadan sortzen dira bereziki eta, Estatu espainiarrean behinik behin, pil-pilean dauden mugimendu alternatiboekin dute lotura. Iruñeko Eguzki Irratia, beste komunikabideek isilarazten zituzten ikuspegi berriak jaso ahal izateko eta batez ere, errebindikazio ekologisten eta garai hartako giza borroken (internazionalismoa, sindikalismoa, feminismoa, nazio errebindikazioa, okupa mugimendua, e.a.) berri emateko sortu zen duela 20 urte (aurten dugu urteurrena hain justu). Irrati libreak, halaber, eraketa horizontala dakarkigu, zeina zabaltzen den edukiarekin bat datorren. Gainera, hierarkia eta lan komunikatiboarekiko botere era desiguala gainditzen ditu e. Asanblada da antolaketa era eta funtzionatzeko era oinarritzkoa, denon artean erabakiak hartzeko gunea, nolabaiteko koherentzia ematen diguna. Laburbilduz, Eguzki Irratia komunikazio alternatiborako proiektu mistoa, autogestionatua eta batzarraren bidekotzat jotzen ahal da eta definizio honek urteez gaindu ukan duen bilakaera eta pairatu dituen aldaketak izanik ere, balio du egun. Botere ekonomikoak edota politikoak eragindako informaziorik ez dago. Ezta berria zabaltzen duen esatari profesionalak eragindakorik ere. Ondorioz, funtzionamendu hierarkikorik ez zaigu ageri eta harreman desigualak desagertzen dira.

Hala eta guztiz ere, hain ederrak diren postulatu teoriko hauek irrati libreen egunerokoak desitxuratu ditu. Genero harremanetan eta medio hauen emakumezkoekiko ikusmolde informatiboetan sartuko naiz, beste kontu batzuk bazter utziz. Nire aburuz, oinarritzko arazoa da komunikabide alternatiboek feminismoa errebindikaziotzat hartzen dutela, beste edozein balitz bezala. Ez dutela sakontzen eta eguneroko konportamenduek matxista izaten jarraitzen dutela. Hots, feminismoa ez da bere bizimoldean sartzen: hedabide alternatiboak diren aldetik emakumezkoen borroka asumitzen dute, diskriminazio positiboa bermatzen duen politika eratu dute, baina ezinbertzekoak eta ez-maskulinoak diren hainbat lan molde eguneroko praktikatik at utzi dute. Zinez eskertzekoa da berdintasunaren alde eginiko saiakera, eskertzekoa emakumeek hartzen duten protagonismo informatiboa, eskertzekoa da hizkera ez-sexista erabiltzea. Komunikazioa egiteko eratzat hartuz baina ez konportamendu eta autoikaskuntza bezala harturik.

Gizonezkoek, oraindik, ez dituzte barneratu oinarritzko beste elementu batzuk. Hala nola, emakumezkoek batzarretan mintzatzeko edo iniziatiba hartzeko zailtasuna, zeina heziketa patriarkaltik datorrien.

Ikuspegi "konpartimentalizatu" honek ez du kontraesan gutxi sortzen. Errate baterako, emakumeek ekonomia eramatea bezalako lan "ikusezin" batzuk hartzen dituzte. Gizonek denonak diren guneen garbiketa antolatzeko iniziatibarik nekez hartuko dute. Emakumeek eginiko saioei, politikoki garrantzizkoak izanik, garrantzia ematen zaie baina beraiekin ematen den "harreman maskulinoa" ez da aintzakotzat hartzen. Komunikabide alternatiboan autogestiorako garrantzitsua den alderdi teknikoa ez da lehenesten. Emakume irratikideek gutxitan hartzen dituzte lan hauek. Gizonek eszeptizismoz irizten diote emakumeek irradi baren espazio propioak eratzeari, irratia errebindikazio feministari eginiko aportazioa aski dela argudiatuz.

Halaber, ez dira bultzatzen emakumeentzako interesgarriak suerta daitezkeen saio kolektiboak, gure ikuspegitik egindakoak, eta sarri uste da programa hauek feministek "beren gauzez hitz egiteko" saioak direla.

Aipatutako kontraesan hauek emakumeek eginiko emakumeentzako bide espezifikoaz mintzatean desagertzen dira. Eguzki Irratian urteak daramazkigu emakumeentzako proiektu espezifiko hori eratu nahian, "Emakumeak komunikazio espazioak sortuz" izena duena.

Proiektu hau 1994an sortu zen irradi libre eta komunitarioren emakume komunikatzaileen nazioarteko sare bat da. Saioak trukatzeko IKX izeneko sare mistoaren eskutik zetorren. Sinkronizazioa eta distribuzioa Dreyeckland Irratian zegoen zentralizatua, Friburgen (Alemania). Batez ere Europatik zetorren diru iturririk gabe, lana deszentralizatu behar izan genuen eta proiektu mistoa desagertu zen orain dela hainbat denbora. Hala ere, emakume sareak lanean jarraitzen du oraindik ere. Urtean behin egiten den batzarrean; tailerrak, mintzaldiak eta posta bidez proposatzen diren guretzat interesgarriak diren gaiekiko mahai-inguruak. Nahiz eta zailtasun ekonomikoak izan, guk bai lortu dugula aitzina egitea. Eguzki Irratiak ez du sarean aritzeko emakume talde espezifikorik. Gehienez ere lana bizpahiru emakumek burutu dute. Hala ere, "Emakumeak espazioak sortuz" izeneko sarean bizitako esperientziak –modu pertsonalean bada ere– biziki positiboak izan dira eta euren burua feministatzat duten gizonek ez baldintzatutako espazio berriak sortu ditugu.

Azkenik, azpimarratu nahiko nuke hedabide alternatiboek genero estereotiporik gabeko informazio alternatiboa egiteko balio dutela. Oraindik balio dutela. Gu emakumezkoak gara, beti bezala, gure gune propioak eratu behar ditugunak eta parte hartzen dugun espazio mistoetan erne egon. Hondarreko hamarkadetan lorturiko berdintasuna agerikoa bada ere, anitz dugu egiteko.

**ETA ZER GERTATZEN DA  
EMAKUMEEKIN?**

G

aldera hau "Mujeres en Red"-etik egiten da, "Feminismoak, komunikazioa eta informazioaren teknologiak" izenburu duen artikulu interesgarri batean. Esan daiteke, galdera

honek berak motibatu gintuela pasa den azaroaren 19an, EHUko Leioako kanpusean, medio alternatiboen mahai-inguru batean parte hartzeko egindako gonbidapenari baiezkoa emateko; "Sexua, generoa eta komunikabideak; errealitateak, estrategiak, utopiak" izenburuko konferentzia zikloaren barruan. Galdera horrek eta diru pixka bat ematen zutela ere bai.

Eta han animatu nintzen testu hau idaztera, mahai horren inguruan egondako emakumeekin gai hauez hitz egin eta komentatu ondoren. Nire aldetik barkaezina litzateke ez aipatzea testu hau Indymediako zenbait emakumeren eta mahai-inguru hartako emakumeen ekarpenekin izan dela idatzia. Batez ere bazkari eta bazkalosteko tertulian egindako ekarpenekin.

Hau esanda, onartu beharra dago Indymedia Euskal Herrian generoari buruzko eztabaida ez dela piztu mahai-inguru honetan parte hartzeko gonbitea jaso genuen arte. Era berean, onartu beharra dago emakume gutxik hartzen dutela parte Indymedia Euskal Herrian. Hala ere, testu hau publikatu ondoren eta egoera hau aldatzeko egiten ari den lanarekin, espero dut gauzak aldatu egingo direla. Hori da behintzat gure nahia.

Aipatutako artikuluan idazten den bezala, eta goazen harira, ikerketa ugarik egiaztatu dute, alde batetik, "emakumeek komunikabideetan duten presentzia eskasa, eta, bestetik, gure interes eta eguneroko errealitateak kanpoko estereotipoen etengabeko erabilpena; (emakumeak) paralisi egoera batean geratuz". Beste giza kolektibo askotan bezala, eta bereziki emakumeen kolektiboan, "argi ikusi da zer den gustuko ez duguna (konkretuki komunikabideei dagokienez), eta urteak dira kritikatzin ari garela, baina ez gara gai izan egoera hori aldatzea galarazten diguten mugak hausteko behar diren estrategia eraginkorrak finkatzeko".

Esanenezake, generoari dagokionean, Indymedia tresna iraultzaile bat dela. Indymediak informazio-emaile eta informazio-kontsumitzaile eskema tradizionala hausten du, eta horregatik ez zaio gizonetzko-eskaera bati erantzun behar, edo aurrefinkatutako argitalpen estilo batean lan egin behar. Guk geuk esatea harro samarra ematen badu ere, Indymedia aparteko tresna da muga horietako asko hausteko.

Testuaren idazleak hausnartzen duen moduan, beharbada Indymediak eta internetek eskaintzen dituzten beste tresna askoren nolabaiteko berritasunagatik, komunikabide hauetan ez da genero ikuspuntutik egin lana eta analisisa. Ez, behintzat, beste medio askotan egin den bezala; hala nola, masa-komunikabideetan eta bereziki publizitatean emakumeen presentzia urria edo irudi distorsionatuaren azterketa, hizkuntza sexistaren analisisa, ekitatearekin lotutako gaiak jorratzerakoan... "Orokorrean, komunikazio eta informazio estrategiak mugimendu feministen agendetatik at geratu dira, eta, ondorioz, eztabaidetatik kanpo".

Testu honetan, emakumeei biziki gonbidatzen zaie lan egitera eta ahal den modu guztietan komunikabideetara ailegatzera. Eta galdetzen da: "feminismotik, feminismoetatik, emakumeekin hain diskriminatzailea ez den eta eskubide berdintasun handiagoa duen gizartea eraikitzeko, beharrezkoak diren aldaketak defendatzeko, hain tresna bikaina diren komunikabideei, komunikabide

guztiei, uko egingo al diegu"? Eta beste galdera interesgarri bat ere egiten da, medio alternatiboei dagokiena: "zer gertatzen da gizarte zibileko taldeek, komunikabideen demokratizazioaren aldarrikapenean militante direnak, osatu dituzten komunikazio alternatiborako, kontrainformaziorako eta komunikazio antagonistarako espazio berriekin (...)"

Puntu honetan, aipagarria da galdera hau behar-beharrezkoa dela, eta gizarte eta herri kolektibo guztietara zabaldu daitekeela. Artikuluak oso ondo azpimarratzen duen bezala, badagoelako arriskua komunikabide alternatiboetan, Indymedian barne, beste komunikabideetan egiten diren akats berberak errepikatzeke; hau da, emakumearen ikusezintasuna eta emakumeen inguruko estereotipoen iraunaraztea.

Guztioi dagokigun ataza, eta bereziki emakumeen ahalegin handia eskatzen duena, komunikabide alternatibo hauen eduki eta funtzionamendua ikuspuntu feminista edota genero-ikuspuntu batez etengabe bideratzea da. Errealistak izan behar dugu, orokorrean komunikabide hauen partaide garen mutilok eta konkretuki Indymediako partaide garen mutilok; oso jator izanagatik, gure genero-perspektibak ez du inoiz behar bezalako garrantzia izango eguneroko lanean. Horrek argia dirudi. Indymediak bilatzen dituen informazioaren eta komunikazioaren demokratizazioa ezin da lortu komunikabide tradizionalak emakumeekiko egiten dituzten akats berberak errepikatzen badiugu.

Hori gerta ez dadin, beharrezkoa da guztiok, emakume eta gizonak, "hausnarketak planteatu dituzagun, lan praktikorako dinamikak finka dituzagun eta informazio-komunikazio eta teknologia berrien arloetan pertsona guztien trebakuntza bultzatu dezagun", bereziki emakumeena. Honekin ez da esan nahi informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan emakume trebatuak ez daudenik, harritu egingo gintuelako arlo hauetan lan egiten duten emakumeen kopuruak. Baina, hala ere, ez da gehiengo eta, are gehiago, ez da ohikoena.

Hori, nire iritziz, artikuluan oso argi azaltzen da, honakoa esaten duenean: "emakumeak informazio iturri gara eta hori hasieratik oso argi eduki beharreko zerbait da (...). Informazioa eta iritziak ekoiztu behar ditugu eta horiek ahalik eta bide gehienetatik zabaldu behar dira, eragozpenen aurrean etsi gabe". Funtsezkoa da zenbait baliabideren eskuragarritasuna, eta bereziki informatikarekin lotutakoena, zailtasun bat ez izatea. Gogoratu behar dugu emakumeak ez direla zenbait baliabide eskuratzeko arazoak dituzten bakarrak, giza kolektibo ugari zailtasun berberak dituela, boterearen diskurtsoarekin bat ez datozelako baztertuak izan baitira. Horrexegatik, Indymedia bezalako tresna eta alternatibek garrantzi handiagoa hartzen dute, Indymedian ez dagoelako zentsurarik edo interes handien zerbitzura dagoen argitalpen-politikarik.

Horrek, potentzialki, aparteko tresna bilakatzen du Indymedia, batez ere beste esparru batzuetan oztopo eta eragozpen ugari izaten dituzten kolektiboentzat, emakumeena besteak beste. Emakumeek Indymedia beraien espresio tresna bihurtu dezakete, beraiek gertaerez duten ikuspegia zabaltzeko tresna. Emakumeek beraien hausnarketa eta balorazioen bitartez gertaerak beste modu batean tratatzeko joera bultzatu dezakete, beraien iritziz garrantzitsuak direnei lehentasuna emanez, feminista eta generokoa den ikuspuntu batetik landuaz.

Horrek sexuen arteko beste harreman bat gauzatzen lagun dezake, komunikabide ofizialetan ohikoak diren ikuspuntuetatik desberdinak diren ikuspuntuak zabaltzen ere. Hala ere, bat nator tesuarekin esaten duenenean "Indymedia sarean dauden demokratizazio dinamikien adibide proposa bada ere (...). sarritan emakumearen perspektiba eza nabari da".

Hor dago koska! Hortxe dago muina. Zergatik gertatzen da hau? Esan bezala, Indymedia Euskal Herrian ez dugu sakonki eztabaidatu gai hau, baina onartzen dugu beharbada gure aldetik akats handi bat izan dela emakumearen parte-hartzea Indymediaren ezinbesteko printzipio edo baloreetako bat bezala hartu ez izana; hori ezinbestekotzat ez jotzerakoan, zentzu horretan ekimenik bultzatu ez delako. Planteatu beharrezkoa zera da, zenbat emakumeren irispidean dagoen Internet

orokorki hartuta, lehenik eta behin, eta ondoren Indymedian konkretuki emakumeek daukaten parte-hartzea. Egia da parte-hartze hori kalkulatzea zaila izaten dela eskuinaldeko zutabera bidaltzen diren berriei dagokionean, askotan ezizenez sinatzen baitira. Anonimatuak, hain zuzen ere, edozein pertsonaren parte-hartzea bultzatzen duen ezaugarria da, aldi berean idatzitakoa genero parametroetatik epaitzea galarazten duena. Inork ezer erakutsi dezan galarazten du. Hori "newswire" edo eskuineko zutabeari dagokionean. Talde teknikoan eta editorialean, ordea, badakigu zenbat emakumek hartzen duten parte, eta bi kasutan taldeak gizonenak bakarrik daude osatuta. Gure kasua ezin da adierazgarritzat hartu. Europa mailako beste Indymedia batzuetan fijas gero, ondorioa honakoa da; emakumearen parte-hartze handiena edizio taldeetan ematen da, eta talde teknikoak gehienbat gizonenak osatuta daude. Testu honek galdera asko planteatu ditzake, eta erantzun gutxi eman.

Teknika eta teknikaren inguruko arloek duten garrantzia handia da Indymedia bezalako proiektu batean, eta galdera ona litzateke ea zein neurritan teknologiaren kontzeptzio eta garapen berak gizonenak beharretara erantzuten duen zerbait den. Horrelako zerbait galdetzen dio bere buruari Alizia Sturtzek GARA egunkarian.

Internet eta teknikaz hitz egiterakoan sarritan topo egiten dugu arras zabaldutako ideia batekin, zeinak dioten emakumeek teknologia berrietara hurbiltzeko beldurra dutela. Hala ere, egoera hau bultzatu dezaketen faktoreen artean, mahai-inguruan egin behar duen azalpenarako laguntza eskatuta jasotako zenbait ekarpen aipa daitezke. Honela, Indymedian ataza teknikoetan parte hartzen duten emakumeen urritasunari dagokionean, kontuan hartzeko aukera da emakumeek beraien burua autozentsuratu edo atzera botatu dezaketela, emakumea gizonaren azpiko bezala ikusten duen rol tradizionalak presionatuta. Paper tradizional hori gainditzeko borrokaren barruan, kontuan hartu behar da emakumeei, tradizioz gizonenak jo diren ataza teknikoak egiten dituztenean, gizonen ataza berdinetan baino emaitza askoz ere hobekia eskatzen zaizkiela. Prozesu teknikoetan material bat sortzen da hasiera batean, eta gero zenbait aldaketa egiten zaizkio. Software librearen kasuan aldaketa hauek erabat publikoak dira. "Bug" famatuaren zuzenketa. Gerta daiteke prozesu honek berak emakumeak atzera botatzea, zenbait akats eta inperfekzioen erakusketa publikoa dakarrelako, eta horiek onartzea zaila izan daitekeelako, gizonenak errespetua galtzea ekar dezakeelako. Akats berberak egiten dituzten gizonenak, noski. (Ekarpen hau software askearen eta Indymedia munduan mugitzen den emakumeen batek egindakoa da. Ez ezazue pentsatu nik "bug" bat zer den dakidanik).

Indymediaren ikusmoldean eragina duen beste puntu garrantzitsu bat hau da: hasiera batean Indymediari sorrera eman zion talde teknikoaren gehiengoa gizonenak osatua zegoen, eta horregatik, nahiz eta medio alternatibo bat den, beraren logika eta estruktura oso maskulinoak izan daitezke. Hori ez gertatzea guztioi dagokigun lana da, lehenago esan bezala. Eta aitzakiatzat hartu gabe esan beharra dago, Berlinen, Indymediaren azkeneko bilera europarrean, emakume talde baten egoera honen arrazoi nagusienetako bat bezala proiektuaren estruktura kaotikoa zela seinaltatzen zuela. Indymediak arrakasta azkarra izan duen proiektua da, eta denbora osoko aktibitate birlakatu da, estruktura horiek behar bezala garatzeko denborarik gabe utzi gaituena, beharrezkoak ziren planifikazio eta eztabaidak egitea galaraziz. Denboraz hitz egiten badugu, galde genezake zergatik emakumeek denbora gutxiago daukaten Indymedia bezalako proiektuetan eta ordenagailu baten aurrean lan egiteko; baina hori beste gai bat izango litzateke. Esan beharra dago bilera hartako Indymediako emakumeak oso gogorrak izan zirela barne-funtzionamenduari dagokion zenbait ataletan egindako kritikan, batez ere Europa eta gai teknikoari dagokionean.

Bukatzeko, nik bi proposamen nabarmenduko nituzke. Lehenengoa giza mugimendu feministei zuzendutakoa. Horiei, eskatuko nieke balora dezaten Indymedia bezalako medio alternatiboetan beraien parte-hartzea bultzatzea komenigarria den. Indymedia Euskal Herrian ezin kontentago ginateke baiezko erantzuna jasoz gero, eta iniziatiba honetan lan egitera animatuko balira. Eta gure

aldetik, parte-hartze hori galarazten duen oztoporen bat sumatuko balute, esan dezaten eskatuko genieke, eragozpen hori gainditu dezagun. Perfektuak ez baikara, noski. Bigarren proposamena Indymedia Euskal Herria osatzen dugunon kolektiboari zuzenduko nioke, eta esparrua zabalduz, Indymedia guztiei. Giza mugimendu eta mugimendu herrikoi guztien parte-hartzea bultzatzeko ildotik egiten ari den lanarekin jarraitzea litzateke proposamen hau. Eta, bereziki, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatzea, zeren eta Berlingo bileran esan bezala, "komunikazio jarrera ereduak Indymedian parte hartzen duten emakumeen kopurua handitu bezain laster aldatuko lirateke". Argi dago Indymedia Euskal Herrian, orain arte lortutakoa asko bada ere, etorkizunean izango ditugun erronkak handiak izango direla. Honaino nire ekarpen apala. Espero dezagun hemen ez geratzea eta guztion artean, gai honetan eta beste batzuetan aurrera egitea, Indymedia Euskal Herrian eta beste Indymedia guztietan jarritako helburu guztiak betetzea.

#### INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO:

- Emakumeei komunikazio teknologia berriak jorratzen laguntzeko, Mujeres en Red-ek duen korreo zerrenda
- Viaje de las internautas. Genero begirada bat teknologia berriei
- Kazetaritza ez sexistaren ABC-a
- Ziberfeminismoari buruz

## XEHETASUN TXIKI BATZUK

**H**alabedi irrati libreak 20 urteko ibilbidea egin du ia. Erdi komunikabide, erdi esperientzia herrikoi, komunikabide autonomoa da. Halabediren asmoa ez da beste komunikabide batzuekin lehiatzea; aitzitik, komunikatzeko eredu desberdina ezarri nahi du, berezko ezaugarriak izango dituen, eta gaur eguneko komunikabideek dituzten gabeziak gainditzen ahalegintzen da. Komunikabideetatik entzuleenganako norabide bakarreko ereduaren aurrean, parte-hartzean oinarritutako irratia da. Halabedik batzuen eta besteen arteko harreman handiagoko erdua eskaintzen du.

Hori dela eta, praktikan, irratiaren ehunka lagunek egiten dute lan era batera edo bestera. Gizarte-mugimenduei beren txokoa eskaintzen die eta gizartearen autogestioa sustatzen du, batzarretan oinarritutako eredu independente eta aurrerakoiarekin, baloreen aldaketara bidean.

## ETA GU, EMAKUMEOK, ZER?

**E**makume antolatu gehienentzat, ezaugarri hauek dituen komunikazio-proiektu baten partaide izatea aukera handia da. Jakina denez, gizarte-taldeek ez dute izaten ahots propiorik ia-ia ezein komunikabidetan, eta emakumeen kasua are nabarmenagoa da.

Gainera, kontuan hartu behar dugu gizarteak bizi duen balizko berdintasun egoera, erakundeek diskurtso feminista xurgatu izana (batez ere egitura patriarkalekoak) eta geuri ere, nahiz eta oinarri-oinarritzko lan garrantzitsua egin, ahaztu egiten zaigula egunean-egunean egiten dugun lan guztia ezagutarazi egin behar dugula. Ez badugu nahi lau baino ez izatea hainbeste jakituriaren jabe (je, je!), ireki beharra daukagu eta zabaldu. Gogoeta horiek eta beste batzuk izan ziren, hain zuzen ere, Halabedin, zehatzago esanda emakumeen programan, lanean hastera animatu nindutenak.

Halabedi esperientzia herrikoitik elikatzen den komunikabide bat denez, urte hauetan elkarrekin ikasi dugu, hala komunikazio-proiektuak berak erakarrira etorri ziren pertsonen aldetik nola gizarte-errealitatei lotuago zeuden pertsonen aldetik.

Emakumeek egindako "Sasi guztien gainetik" programaren kasuan, prozesua oso nabarmena izan da, oso erreferente desberdinetako emakumeak bildu baikara: emakume antolatuak, emakume kazetariak, emakume artistak... Aniztasun hori oso garrantzitsua izan da espazioak sortzeko, eztabaidatzeko, zalantzak planteatzeko...

Sasiren lehenengo urteetan, gure kezka nagusienetako bat izan zen programa interesgarri bat egitea, umoretsua, arina... baina salaketa alde batera utzi gabe, eta uste dut lortu egin genuela: joan den urtean, irratiko emakume bazkideei egindako azterketa soziologiko batean, hogeita hamarren bat programetatik Sasi bosgarren geratu zen programa entzun eta ezagunen artean. Horrekin ez dut esan nahi dena daukagula eginda; ez, ezta gutxiagorik ere, baina, gutxienik, ez da gutxi bide okretik ez goazela jakitea, ezta?

Une honetan, berregituratze eta birziklapen fasean gaude programaren barruan (je, je!); beste emakume batzuek txanda hartu dute; guk baditugu beste plan batzuk irratiko beste ataletarako (batzorde guztietan parte hartu, presentzia magazineetan, hizkuntza ez sexistako tailerrak, harreman handiagoa beste irratik libre batzuetako emakumeekin...). Berregituratze hori dela-eta ezin izan ditugu egin gogoeta hauek emakume guztiak batera; hemen esandako gehiena, beraz, nire errua da, bale?

INFORMAZIO GEHIAGO: [www.halabedi.org](http://www.halabedi.org) edo [www.halabedi.org/sasi](http://www.halabedi.org/sasi)